**HIZPIDE**
EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

**XXXII. urtea • 83. zenb. • 2014 MAIATZA-ABUZTUA**

# Zenbaki honetan

Aurkezpena 1

**Gai Monografikoa**

*Xabier Elortza eta Alex Mungia*
Helduen euskalduntzearen azterketa 2007-2008 / 2012-2013 3
1.- Sarrera 3
1.1. Testuingurua 4
1.2. Bi hitz ebaluazioaz 5
1.3. Egiaztatze-deialdiaren nondik norakoak 7
1.4. Datuak aztertzeko ikuspegiak 12
2.- Ikasleak 14
2.1. Ikasle-kopuruaren bilakaera, euskaltegi-motaren arabera 14
2.2. Ikasle-kopuruaren bilakaera, sareka 15
2.3. Emakumezkoen ehunekoa 16
2.4. Ikasleen jatorria 17
2.5. Lehen hizkuntza 19
2.6. Hizkuntza-eredua 21
2.7. Etxeko hizkuntza 23
2.8. Lagunen arteko hizkuntza 24
2.9. Ikasleen ikasketa akademikoak 25
2.10. Ikasleen ogibideak 26
2.11. Langabetuak 27
2.12. Ikasle-kopurua, hasiera-mailaren arabera 28

2.13. Ikasleen adina 29
2.14. Ikasleak, hasiera-maila eta adinaren arabera 31
2.15. Ikasleak, hasiera-maila eta ikasketa akademikoen arabera 33
2.16. Matrikulak, mailaka 35
2.17. Matrikulen trinkotasuna 38
3.- Ikasle berriak 40
3.1. Ikasle berrien kopurua 40
3.2. Ikasle berrien adina 41
3.3. Ikasle berrien ikasketak 42
3.4. Ikasle berrien hasierako maila 43
3.5. Ikasle berrien hizkuntza-eredua 44
3.6. Ikasle berrien jaioterria 46
4.- Irakasleak 47
4.1. Irakasle-kopurua 47
4.2. Irakasleak ikasle-kopuruarekiko 48
4.3. Sexua 48
4.4. Adina 49
4.5. Ikasketa akademikoak 50
4.6. Irakasleak 2012-2013 50
5.- Euskaltegiak EAEn 55
6.- Lorpen-emaitzak 55
6.1. Euskaltegien ebaluazioa 55
6.2. Emaitzak egiaztatze-deialdietan 70
6.3. Argazkia: 2013ko lehen egiaztatze-deialdia 77
7.- Ondorioak 85
7.1. Xehetasun orokorrak 85
7.2. Euskaltegiaren ebaluazioa 87
7.3. Egiaztatze-deialdia 88
7.4. Etorkizunari begira 90
Bibliografia 94
Orokorra 94
Araudiari buruzko aipuak 94
Eranskinak 96
1.- Euskaltegiak, lurraldeka 96
2.- Ikasle-kopuruaren urteroko bilakaera, lurraldeka 96
3.- Emakumezkoen ehunekoak, lurraldeka 97
4.- Ikasleriaren ikasketa akademikoen banaketa, lurraldez lurralde 98
5.- Ogibideen banaketa, lurraldez lurralde 99
6.- Hizkuntza-eredua, lurraldeka 101
7.- Lehen hizkuntza, lurraldeka 103
8.- Etxeko hizkuntza, lurraldeka 103
9.- Lagunen arteko hizkuntza, lurraldeka 104
10.- Lehenengo aldiz matrikulaturiko ikasle berriak, lurraldeka 105
11.- Matrikulen banaketa, hasiera mailaren arabera eta lurraldeka 105
12.- Matrikulen trinkotasuna ehunekotan, lurraldez lurralde 107
13.- Egiaztatze-deialdietako emaitzak, aztertokika 109

# HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

HIZPIDE aldizkarirako harpidetza egin nahi baduzu, hurrengo harpidetza-orria bete eta HABEra bidali

**posta-helbidea:**
HIZPIDE aldizkaria
K/ Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia

**e-posta**:
info@habe.org

2014ko harpidetza: 15,00€ (82., 83. eta 84. zenb.)

## HARPIDETZA-ORRIA

NAN/IFK: ______________________

Izen-abizenak: ______________________

Helbidea: ______________________

Udalerria: ______________________ Posta-kodea: ____________

Bidalketa-helbidea: ______________________

Telefonoa: ______________________

Helbide elektronikoa: ______________

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEk aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezu. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia



# Aurkezpena

Euskara biziberritzeko prozesuaren ardatzetako bat da helduen euskalduntze-alfabetatzea, hezkuntza sistemarekin batera. Euskarak hirurehun mila hiztun berri irabazi ditu azken hogeita hamar urteotan eta, horietatik, ehun mila pasatxo zor dizkio helduen euskalduntzeari.

Euskaltegietan ikasturtero hogeita hamar mila lagunetik gora aritzen dira euskara ikasten edo euskarazko gaitasuna hobetzen. Heldu aroan euskara ikastea edo hobetzea erabakitzen duten herritar horiek denek, jakina, izugarrizko ekarpena egiten diote euskarari; baina, euskarari ez ezik, baita hizkuntzen elkarbizitzari eta, beraz, gizartearen elkarbizitzari ere.

Horregatik, HABEren eta euskaltegien betiereko kezka eta gogoa da urrats hori egiten dutenei ahalik eta zerbitzurik eraginkorrena eskaintzea. Hobekuntza didaktikoari buruzko gogoeta etengabea dugu horretarako tresna ezinbestekoa: nola egin eta erabili ikasmaterial eta metodologia hobeak, nola azkartu eta sendotu ikasprozesuak, nola mugarritu ikasle mota bakoitzaren neurriko gaitasun helburuak… den-dena hiztun berriak irabazteko helburuz, gaitasun komunikatiboa xede.

Gogoeta hori taxuz bideratzeko, ordea, beharrezkoa da ikasprozesuen datuak izatea eta ustiatzea. Horien argitan saiatu behar dugu eragile guztiok hobekuntzarako erak antzematen eta ezartzen. Horretaraxe dator, beraz, eskuartean duzun *Hizpide* monografiko hau, helduen euskalduntzeak 2007tik 2013ra bitartean izan dituen emaitza eta ezaugarri nagusiak biltzen dituena. Honen aurretik, *Hizpide*ren 68. zenbakian, 2000tik 2007 bitarteko sasoia aztertua eta argitaratua dugunez gero, dagoeneko urte sorta esanguratsu bati buruzko datuak ditugu eskura –hauez gain, eta aldizkariak *Zutabe* izena zuen garaian, horrelako beste lan bi plazaratu ziren, 16. eta 30 zenbakietan, zehazki–.

2000. urtekoa da, hain zuzen ere, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK), gaur egun euskaltegietan indarrean dagoena. HEOKak gaitasun komunikatiboan eta ekintzan oinarritutako irakaskuntzan ardaztu zuen irakasprozesua, bat etorriz Europan hizkuntzen ikaskuntzan nagusitzen ari ziren joera didaktiko aurreratuenekin.

Harrez gero HABEk eta euskaltegiek metatu duten esperientziatik abiatuz eta arestian aipatu dugun gogoeta etengabea landuz, aurten onartu eta argitaratuko du HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) berria. Urte honen hasieran aurkeztu zien HABEk lehenengo zirriborroa euskaltegi guztiei eta euskararen irakaskuntzan ari diren erakunde nagusiei. Sektoreko eragileekin eta adituekin batera izandako gogoeta

eta eztabaida aberasgarriaren ondotik, dokumentua aurki prest izango du HABEk, udazken honetan era ofizialean onartua eta indarrean jarria izan dadin. HEOC berriak sakondu, osatu eta hobetu egiten du aurrekoaren planteamendua; alde batetik, euskararen irakaskuntza osokiago egokitzen baitu Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markora, eta, bestetik, pausu nabarmena ematen baitu Europako Markoaren planteamendua bera euskararen egoerara egokitzeko. Besteak beste, euskararen irakaskuntzan Europako Markoaren A1 eta A2 mailak definitzea eta egiaztatzea ekarriko du HEOC berriak, hasierako gaitasun mailetan ari diren milaka ikasleei prozesu eraginkorragoa eta argiagoa eskaintzeko xedez.

Baina, curriculum berriaz gainera, HABEk badu aurten beste egitasmo bat plazaratzeko asmoa: helduen euskalduntzearen oinarrizko adierazleen sistema. Jardueraren jarraipen sistematikoa egiteko aukera emango digu adierazle sistemak, eta, hortaz, autoebaluaziorako tresna ezin hobea izango dugu, bai HABEk bai euskaltegiek, praktika onak hauteman eta orokortu ahal izateko.

Azken batean, datozen urteetan ere, euskal hiztun berriak ematen jarraitzea izango du eginkizun helduen euskalduntzeak, gizarte benetan elebidunagoa osatzeko bidean. Eta zeregin hori gero eta hobeto betetzen laguntzeko bitarteko baliagarria izango da, zalantzarik gabe, aldizkariaren monografiko honetan dugun azterketa hau. Itxaropen horrekin jartzen dugu HABEko eta euskaltegietako lankide guztien eskura eta, halaber, helduen euskalduntzeari buruz interesa duten era guztietako eragileen eta ikerleen eskura ere.

Joseba Erkizia Itoitz

HABEren zuzendari nagusia

Gai monografiko

# Helduen euskalduntzearen azterketa. 2007-2008 / 2012-2013

Xabier Elortza[*] eta Alex Mungia[**]

## 1.- Sarrera

Jadanik, badira sei urte 2000-2001 eta 2006-2007 bitarteko ikasturteak aztertu zirenez geroztik (Elortza eta Perales, 2008) eta, beste hainbeste ikasturte igaro direnez, abagune egokia iruditu zaigu, luze eta zabal erreparatzeko helduen euskalduntzean azken sei ikasturteotan egindako bideari.

2007-2008tik 2012-2013ra bitarteko ikastaroen analisia taxutzeko, lan honen helburua da, batetik, aztertzea Euskal Autonomia Erkidegoan HABEren babesean euskara irakasten eta ikasten aritu diren helduen profila eta horiek egindako urratsen nolakoa[1], eta, bestetik, helburu ere bada atzematen diren joerak azaleratzea.

Helburuak ezartzean, ezinbestekoa izan ohi da funtsezko galderak egiten asmatzea eta, ondorioz, azterketaren helburu zehatzak mugatzea. Horregatik, guk jakin nahi izan dugu zer gertatu den epealdian, zer-nolako joerak atzematen diren eta, azkenik, etorkizunari begira ere jarri gara ondorioen atalean.

[*] X-Elortza@habe.org
[**] a-mungia@habe.org

[1] Alde batera utzi ditugu atzerriko Euskal Etxeetan HABEren babesean euskara ikasten aritu direnak (2012-2013an, 1.900 ikasle), lan honetako helburua ez baita Euskal Etxeetako gaia aztertzea.

Horrela, ezagutza oinarri, sakon dezagun euskalduntze-arloaren nolakoan, zehatz jakin dezagun non diren aldeko indarrak eta non gabeziak, eta egin dezagun gogoeta, erabaki eraginkorrak hartuz eta eragile guztien arteko elkarreragina sustatuz,eta, ondorioz, euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egin.

## 1.1. Testuingurua

Eusko Jaurlaritzak 1981ean jarri zuen abian Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE). HABE Kultura Sailari atxikitako Eusko Jaurlaritzako autonomiadun erakunde bat da, legezko nortasuna duena eta Eusko Legebiltzarraren 29/1983 Legeak sortua.

Honako hauek dira, Lege horren I Idazpuruaren 2. Atalaren arabera, HABEren egitekoetako batzuk:

a) *Gara-adinekoei euskera irakastea, eta bai Euskal Herrian hoiek euskalduntzearen eta alfabetatzearen suztapena ere, hizkuntza-politikabidetarako gai den Jaurlaritzako ihardutze-sailak emandako artezpideei atxikiz.*

b) *Ikasketaren sustapena, eta bere helburuak lortzeko bideak, ihardutze-erak eta baliabideak bilatzea.*

c) *Irakaskuntza-hazkuntzarako gaiak sortaraztea eta argitaratzea.*

d) *Gara-adinekoak euskalduntzeko eta alfabetatzeko egitarau bereziak helburu hoiek lortzeko Irakastegietan egiteratzea.*

2000ko urtarrilaren 24ko Kulturako sailburuaren Aginduak HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) onartu zuen, eta, euskararen erabileraren jardunbide diskurtsibo-pragmatikoan oinarrituta, euskalduntzeko maila bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztu. Eta 2006an, berriz, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren mailari dagozkion eduki eta ebaluazio-irizpideak beste Agindu batek.

Euskalduntze-prozesua bideratzeko ezinbesteko tresna da Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma. Izan ere, Curriculumaren helburua da euskararen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako gidalerro nagusiak eskaintzea helduak euskalduntzen ari diren euskaltegiei, euskararen autoikaskuntzarako zentroei zein HABEri eta HABErekin lankidetzan aritzen diren erakundeei. Helduen euskalduntzea pertsona helduei[2] dago zuzendua, bai lehen hizkuntza erdara izan eta euskaldundu nahi dutenei, bai hezkuntza-sistema formalean oinarrizko gaitasunak lortu eta euskararen alorrean komunikazio-gaitasuna bereganatu, hobetu edota gaitasun-maila bat egiaztatzen duen agiri bat lortu nahi dutenei.

[2] Gutxienez, 16 urte izan behar ditu euskaltegiko ikasleak.

2001ean, Europako Kontseiluak Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua[3] onartu zuen. Ikasle helduak bigarren hizkuntza ikastean egin beharreko prozesua sei mailatan banatu zuen, eta maila horien kategoria deskriptiboak sailkatu: testuingurua, komunikazio-jarduerak, estrategiak, gaitasunak, prozesuak, testuak eta jarduerak; guztiak komunikazio-gaitasunaren adierazle esanguratsutan zehaztuta.

Horiek horrela, lehenik, 2003ko abuztuaren 6ko Aginduan zehaztu zuen Kulturako sailburuak HABEren Curriculumean ezarritako euskararen jakite-mailak egiaztatzeko sistema, eta, gero, 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduan euskara-mailak egiaztatzeko oinarri berriak.

Beste alde batetik, 2010ean argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko Dekretua[4]. Dekretu honen helburua da euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzea, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzea.

Ezin aipatu gabe utzi euskalduntze-alfabetatzearen alorreko eragileen ekarpenak jaso dituela HABEk, Oinarrizko Curriculum berritua (HEOC 2014) indarrean jarri aurretik; eta ikas-irakasteko eduki eta helburuen mailan, Europako Erreferentzia Markoan zehaztutako gidalerroetan oinarritu direla Curriculum berriak indarrean jarriko dituen euskararen gaitasun-mailak.

### 1.2. Bi hitz ebaluazioaz

Euskaltegiek HABEk haien eskura jarritako hainbat baliabide informatiko erabiltzen dituzte, bai euren jarduna antolatzeko, bai HABEren dirulaguntzak jasotzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Baliabide horietan jasotzen da ikasleen eta irakasleen gaineko oinarrizko informazioa (identifikazio-datuak eta oinarrizko xehetasun soziologiko batzuk) eta, batez ere, ikasprozesua antolatzeko informazio egituratua (ikastaldeen eta irakasleriaren antolaketa, eman eta jasotako eskola-orduen jarraipena, ebaluazio-plangintza eta horren emaitzak, besteak beste). Aplikazio horietan jasotako informazioa da azterlan honen oinarrian dagoena.

---

[3] Europako Erreferentzia Markoak ekintza-ikuspegia gehitzen dio metodologia komunikatiboari: "Hizkuntzaren erabileraz hitz egitean, pertsonen ekintzaz ari gara. Hauek, gizabanako eta gizarte-eragile izaki, gaitasun orokor batzuk dituzte eta, bereziki, komunikazio-gaitasuna. Hizkuntz ekintzak gauzatzeko, gaitasun horiek erabiltzen dituzte, testuinguru, baldintza eta muga desberdinen arabera. Hala lantzen (ulertzen eta sortzen) dituzte testuak, arlo espezifikoetako gai batzuk garatuz, egokien irizten dieten estrategiak erabiliz eta atazak gauzatuz". Parte-hartzaileek, jarduera horiek egin ahala, gaitasunak sendotu edo hobetuko dituzte. (Europako Kontseilua. Hizkuntza Politika Saila. 2005. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Donostia: HABE. 29. or., egokitua).

[4] Honako erakunde hauek emandako tituluak baliokidetu ziren: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) emandakoak (oinarrizko curriculumean ezarritako euskararen jakite-maila egiaztatzeko sistema zehaztu zuen Kulturako sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduan jasoa), Osakidetzak, Ertzaintzak, Hezkuntza Sailak, Euskaltzaindiak eta Hizkuntza Eskola Ofizialek.

Nolanahi ere, komeni da ebaluazioari buruz dugun ikuspegia zedarritzea, datozen orrialdeotako analisia behar bezala bideratzeko. Ebaluatzea gogoeta egitea da (Martínez eta Salinas, 1988), egitasmoez hausnartzea, egitasmo horiek gauzatzeko moduez eta ebaluazioan lorturiko emaitzez; betiere, Curriculumaren hiru mailetan (Administrazioarenean, euskaltegiarenean eta ikasgelarenean). Hortaz, HABEren, euskaltegien nahiz irakasleen lanaren hausnarketaz ari gara gu ere ebaluazioa dugunean hizpide.

Ebaluatzea baloratzea da, batetik, Curriculumean zehazten diren helburu eta edukien aprobetxamendu- eta lorpen-maila, eta, bestetik, hizkuntzaren erabileran lortzen den menderatze-maila, zertarako eta hobetzeko erabakiak hartzeko. Eta ebaluazio eraginkorra egiteko, honako alderdi hauei erreparatuko diegu: ezarritako helburuei, landutako edukiei eta erabilitako metodologiari. Izan ere, Curriculumean zehazten diren helburu, gaitasun eta ebaluazio-irizpideen arabera ebaluatuko dituzte irakasleek ikasleen gaitasunak.

Ebaluazioa eta kalitatea mintzagai, azterketa-probak estandar batzuen arabera landu eta ebaluatu behar dira, proba horien balio, fidagarritasun, berdintasun eta eragin positiboa bermatzeko. HABE, ebaluazioaren erronkei behar bezala erantzuteko, 2007tik aurrera da EALTA[5] erakundeko partaide, eta, ondorioz, bat egiten du erakunde horren oinarrizko printzipioekin: errespetua izan behar da ikasle/azterketariekin, erantzukizuna, zuzentasuna, fidagarritasuna, baliotasuna eta guztien arteko elkarlana sustatu.

Denok dakigun bezala, nagusiki, bi ebaluazio-mota bereizi ohi dira ikas-irakas prozesuetan: ebaluazio formatiboa eta sumatiboa. Ebaluazio formatiboa da kurtsoan zehar sistematikoki egiten dena euskaltegian, prozesuan egiten diren aurrerapenak eta sortzen diren eragozpenak baloratzeko; eta helburua izan ohi da irtenbideak "garaiz" bilatzea. Horretarako, sistematikoki bildu behar izaten dira datuak (kualitatiboak eta kuantitatiboak), eta, gero, kontuan hartu ohi dira datu horiek guztiak ebaluazio sumatiboan. Diagnostikoa egiteko ebaluazioa gauzatzea da lehen urratsa: bai programatzeko unitate didaktikoetako helburuak eta edukiak, bai baloratzeko gaitasun komunikatiboaren garapen-maila. Eta ebaluazio sumatiboan edo aprobetxamenduzkoan, ebaluazio formatiboaren emaitzak hartu ohi dira kontuan (oharrak, balorazioak, kalifikazioak, etab.) eta, behar izanez gero, baita bukaerako proba baten emaitzak ere.

Artikulu honetan, alde batetik, euskaltegiek HABEren aplikazio informatikoan txertatzen dituzten datuak aztertuko ditugu eta, bestetik, euskara-mailak egiaztatzeko deialdietako emaitzak.

---

[5] EALTA (European AssociationforLanguageTesting and Assessment) Hizkuntza-probetarako eta Hizkuntzak Ebaluatzeko Europako Elkartea da, eta Suediako Göteborg hirian du egoitza nagusia. http://www.ealta.eu.org/institutional-members.php?member_id=6280

## 1.3. Egiaztatze-deialdiaren nondik norakoak

HABEren egiaztatze-deialdiak kanpo-ebaluazioan txertatzen dira, eta, besteak beste, euskalduntzean hobe daitezkeen alorrak identifikatzen lagundu nahi dute. Hizkuntzak ikasteko prozesuak direla-eta, argi dugu konplexuak izan ohi direla ikas-irakas prozesu horiek eta aldagai askoren baitan dagoela emaitzak hobetzea: bitartekoak, eskura dauden material didaktikoak, irakasleen prestakuntza, irakasleen eta ikasleen motibazioa, lan-baldintzak, lan-giroa, gizarte-ingurunearen ezaugarriak, eta abar.

Bide luzea du egina helduen euskalduntze-alfabetatzeak urte hauetan guztietan. Eta ibilbide horrek, nola ez, etenik gabeko egokitzapena eskatu izan dio HABEri. Hasiera batean, urratsetan arautu zen euskalduntze-prozesua (Kultura eta Turismo Sailaren 1989.eko azaroaren 17ko Agindua) ondoren etorri ziren lau mailak eta, azkenik, sei maila izango ditugu indarrean hemendik gutxira.

2007-2008 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera arteko egiaztatze-deialdiei buruzko datuak behar den moduan interpretatzeko, kontuan hartu behar da hainbat egokitzapen egin direla sei ikasturteotako deialdietan, bai deialdiotara aurkezteko baldintzetan, bai egiaztatze-prozeduretan. Hasierako urteetan, adibidez, nahikoa zen euskaltegian matrikulatuta egotea eta bertan Curriculumaren araberako ikasketa-maila gainditua izatea, egiaztatu nahi zen euskara-maila jakin batera aurkezteko. 2012ko deialdietatik aurrera, ordea, baldintza horri gehitu zitzaion euskaltegiko jardunean ikasleak gutxieneko errendimendua erakutsi behar izatea.

2010. urtean, egiaztatze-deialdien baitako prozesu eta prozedurei buruzko azterketa abiatu zen, hobekuntzarako aukerak zehaztu eta eguneratze-plan bat onartzea ekarri zuena ondoren. Horrela, 2013ko deialdietatik aurrera,beste zenbait berrikuntzaren artean, bi aztertzailek zuzendu eta kalifikazioak adostuko dituzte maila guztietako[6] idazmen- eta mintzamen-proba guztiak. Berrikuntza horien harira, idazmeneko probak PDF bihurtu eta Internet bidez zuzendu dituzte aztertzaileek, azterketariak nor diren jakin gabe. Bukaeran, ikasle bakoitzak bere proba eta aztertzaileek adostutako kalifikazio-fitxa ikusi ditu HABEren web-orrian. 2014. urtetik aurrera, mintzameneko saioaren grabazioa eta hari dagokion kalifikazio-fitxa ere ikustea aurreikusten da.

Ibilbide horren isla da 2008an argitaraturiko Hizpide aldizkariaren 68. zenbakian erabilitako mailaketa: 1A maila (101-103 urratsak), 1B maila (104-106 urratsak), 2.maila (107-109 urratsak), 3.maila (110-112 urratsak), 4.maila (401) eta, azkenik, 201-202 alfabetatzeari dagozkio. Aurrera egin, eta 2014an, berriz, HABEren *HEOC 2014* Curriculum berriaren araberako gidalerroetan jorratuko dugu 2007 eta 2013 bitarteko ikasturteen analisia; alegia, A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailetan.

---

[6] Ordura arte, laugarren mailan bakarrik zuzentzen zen horrela.

Horregatik guztiagatik eta irakurleak nahasmendurik izan ez dezan, gogora dezagun hainbat azpimailaz osatua dagoela euskalduntze-prozesuaren euskara-mailetako bakoitza (azpimaila horiek, garai batean, *urrats* gisa izendatzen ziren). Jarraian duzue lan honetan erabilitako mailaketa zaharra eta berria ulertzeko taula:

| KODEA[7] | MAILAKETA ZAHARRA | | MAILAKETA BERRIA | |
|---|---|---|---|---|
| | MAILA | URRATSA | MAILA | AZPIMAILA |
| 101 | | 1 | A1 | A1A1 |
| 102 | | 2 | | A2A1 |
| 103 | | 3 | A2 | A2A2 |
| 104 | 1M | 4 | | B1A1 |
| 105 | | 5 | B1 | B1A2 |
| 106 | | 6 | | B1B1 |
| 107 | | 7 | | B2A2 |
| 108 | 2M | 8 | B2 | B2B1 |
| 109 / 201 | | 9 / Alfa1 | | B2B2 |
| 110 | | 10 | | C1B1 |
| 111 | 3M | 11 | C1 | C1B2 |
| 112 / 202 | | 12 / Alfa2 | | C1C1 |
| 401 | | - | | C2C1 |
| 411 | 4M | - | C2 | C2C2 |

Lauki horretan ikus daitekeen bezala, alfabetatze-prozesuei buruzko datuak euskalduntzeko gainerakoekin batera eman ditugu: Alfa1 (201), lehenik, B2B2 azpimailarekin batera eta Alfa2 (202), berriz, C1C1arekin. Izan ere, ohartu gara, batetik, Helduen Euskalduntzearen Curriculumak ezartzen dituen mailetan ere ez dela alfabetatzearen bereizketa mantentzen eta, bestetik, euskalduntze-prozesuko hainbat ikasle alfabetatze-prozesuetan nahastu izan direla.

Beraz, HABEren Curriculum berriak ezartzen dituen maila eta azpimailen arabera aurkeztuko ditugu emaitzak. Eta emaitza horien bilakaera ikasturtez ikasturte aztertzerakoan, halaber, ezinbestekoa da kontuan izatea urtez luzez euskaltegietan erabili izan zen kodifikazioa; izan ere, ikuspegi diakronikotik aztertu nahi bada bilakaera, ezinbestekoa da oinarrizko alderagarritasuna ziurtatuko duen baliokidetza moduko egitura bat finkatzea.

Hona, HABEren Didaktikaren Zerbitzuak helburu horrekin paratutako diagrama, arestian aipatutakoaren argigarri eta lagungarri:

[7] Aplikazio informatikoan erabiltzeko kodeak.




Grafiko horretan txertatu ditugu Curriculumak berak maila bakoitza gainditzeko egiten duen ordu-aurreikuspena,eta, gure ustez, komeni da zenbateko horiek kontuan izatea. Lauki horretako kopuruak egoki irakurtzeari begira, ikus dezagun nola ulertu datuok. Adibidez, HEOC 2014ko zirriborroaren arabera,A1 maila lortzeko, 250 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da, eta horietatik 125 irakastorduak izango dira eta beste hainbeste ikasleak bere kasa egitekoak; edota A2 maila lortzeko, esaterako, 400 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da, eta horietatik 200 irakastorduak izango dira eta beste hainbeste ikasleak bere kasa egitekoak.

Datuen irakurketa errazte aldera eta irakurlea behar bezala koka dadin, hurrengo lerroetara ekarriko ditugu HEOC 2014k eskaintzen dituen A1[8], A2[9], B1[10], B2[11], C1[12] eta C2[13] mailen deskribapen laburrak.

[8] A1 Hasierako erabiltzailearen maila lortzeko, 250 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da HEOC 2014an; betiere, ikaslearen hasiera-maila kontuan izanik.
[9] A2 Oinarrizko erabiltzailearen maila lortzeko, 400 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da HEOC 2014an, baldin eta A1 mailatik abiatuta baldin bada.
[10] B1 maila lortzeko, 600 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da HEOC 2014an, baldin eta A2 mailatik abiatuta baldin bada.
[11] B2 Erabiltzaile aurreratuaren maila lortzeko 800 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da HEOC 2014an, baldin eta B1 mailatik abiatuta baldin bada. Horietatik 400 irakastorduak izango dira; gainerakoak, berriz, ikasleak bakar-lanean eta erabilera askean osatu beharrekoak.
[12] C1 Erabiltzaile gaituaren maila lortzeko 1.000 lanorduko ikas-prozesua aurreikusten da, baldin eta B2 mailatik abiatuta baldin bada. Horietatik 500 irakastorduak izango dira; gainerakoak, berriz, ikasleak bakar-lanean eta erabilera askean osatu beharrekoak.
[13] C2 maila lortzeko, 590 lanorduko ikasprozesua aurreikusten da. Horietatik 190 irakastorduak izango dira; eta gainerakoak bakar-lanean eta bere espezialitateari dagokion proiektua garatzen eta lantzen.

- Oinarrizko A1 eta A2 mailen xedea da ikasleak eguneroko egoera eta testuinguruetan euskarazko testu laburrak ulertzea eta, ahoz zein idatziz, euskara elkarreraginean erabiltzea, labur eta sinple, baina egoki eta eraginkor.
- B1 mailako ikaslea gai da eguneroko testuinguru ezagunetan eta maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko, gai orokorra eta arrunta denean eta xedea informazioa trukatzea denean. Era berean, gai da instrukzioak emateko lagunei, senideei eta ikaskideei edo lankideei; baita pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta gertaeren kontaketa laburrak egiteko ere. Gai ere izango da iritziak labur-labur emateko eta bere asmoak azaltzeko. Bestalde, Europako Erreferentzia Markoaren (EEM) arabera, B1 maila bisitariak atzerriko herrialde batera joateko behar duen atalase-mailari dagokio.
- B2 mailako ikaslea gai da, aurrez aurre nahiz komunikabideetan, gai orokor nahiz abstraktuei buruzko testu gehienak ulertzeko, eta ongi bereiziko ditu ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Gai da lagun eta lankideekin, baita jatorrizko hiztunekin ere, elkarreragin arruntean jariotasunez aritzeko, besteak jakinaren gainean jarriz, iritzia eskatuz, bere ikuspegiaren alde eginez, etab. Zehatz eta eraginkor jardungo du ohiko gai eta egoera ezagunetan, eta adierazpen argi eta xeheak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gairi buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz, eta bere iritzia ere eraginkortasunez emango du.
- C1 mailako ikaslea gai da lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu (elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak) ulertzeko; eta gai da, era berean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jariotasunez eta eraginkortasunez adierazteko. Gai da ongi egituratutako eta osatutako testu argiak idazteko, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, xedea lortzeko estrategia egokiak aukeratuz. Era berean, gai da bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko, ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez.
- Eta C2 mailako ikaslea gai da norbere espezialitateko edozein testu ulertzeko, eta egoerari egokituz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko. Gai da jariotasun handiz eta zehatz adierazteko gauzak, baita konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko ere.

Jakina denez, urtero argitaratzen du HABEren zuzendari nagusiak ikasleen euskara-mailak egiaztatzeko deialdia egiten duen Ebazpena (ikus, esaterako, 2014koa). Bertan zehazten dira deialdiaren xehetasun guztiak, eta horietako ezaugarri batzuk ekarri ditugu hurrengo lerroetara, lagungarri izango delakoan aurrerago emango ditugun datuak egoki ulertzeko.

- HABEren deialdian parte hartzeko, azterketariak mailaren atalasea bermatu behar du; eta, mailaren atalasea bermatzerik ez badu, beheragoko maila batean aurkezteko aukera izango du[14]. Horretarako, euskaltegiak HABEren aplikazio informatikoetan sartu dituen datuak hartzen ditu kontuan HABE erakundeak.
- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuak ziurtatuko dizkio HABEri ikasleen datuak eta horien gaitasun-mailen gutxienekoak, HABEren aplikazio informatikoaren mailaz mailako kodeetan, HABEren berariazko aplikazio informatikoaren prozedurei jarraiki:
  – Lehen maila: 106 kodea.
  – Bigarren maila: 109 edo 201 kodeak.
  – Hirugarren maila: 112 edo 202 kodeak.
  – Laugarren maila: 401 eta 411 kodeak.
- HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumari jarraiki, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko Ebaluazio Atalak prestatuko ditu lau trebetasunak neurtzeko probak, mailaz mailako ebaluazio-irizpideak oinarri hartuz. HABEk mintzamena eta idazmena neurtzeko probak aplikatuko ditu, eta euskaltegiek, berriz, entzumena eta irakurmena neurtzekoak.
- Zuzenketa izengabea bermatzen da probak zuzentzeko prozesuan; hau da, irakasleak ezin du zuzendu berak izandako ikasleen gaitasun-probarik. Horrelakorik gertatuz gero, aztertzaileak berak egingo dio uko egoera horri.
- Gaitasun-proba gainditutzat emateko, lau trebetasunetan gainditu beharko ditu azterketariak ezarritako gutxienekoak.
- Bina aztertzailek zuzentzen dituzte idazmen- eta mintzamen-probak, eta irizpen arrazoitua eman behar izaten dute adosturiko kalifikazio-fitxan.
- Gutxienekoak bete diren ala ez erabakitzean bi aztertzaileak bat ez badatoz edo tutorea ohartzen bada kalifikazio-proposamena ez dela egokitzen mailaren irizpideetara, hirugarren zuzenketa bideratuko da tutorearen eskutik.

---

[14] Euskaltegian matrikulatuta egon eta, behar den datarako, ikasten ari den maila euskaltegian gainditu ez duen azterketariak beheragoko mailan aurkezteko aukera izango du; betiere, aurreko puntuan ezarritako epealdian, gutxienez, euskaltegiko curriculum-proiektuaren araberako azpimaila bat gainditu badu.

## 1.4. Datuak aztertzeko ikuspegiak

Azkenik, komeni da argi izatea leiho askotatik azter litekeela errealitatea eta, era berean, euskalduntze-prozesuko datuak testuinguru zabalagoekin erkatzeak mesede besterik ez duela egiten. Horregatik, alde batetik, oinarrizko datuak sailkatzeko modu bat baino gehiago baliatu ditugu lan honetan, hurrengo atalean argituko dugun moduan, eta, beste alde batetik, gizarteko beste eremu esanguratsu batzuen erreferentziak ere jarri ditugu begien bistan; esate baterako, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat)[15] EAEko biztanleriari buruzkoak: izan langabetu-kopuruak aztertzeko, izan adina aztertzeko edota izan hizkuntza-ereduen analisia egiteko.

Gisa honetako lan batek berezkoa du datuak kudeatzea. Hauta Lanerako Euskal Hiztegiaren arabera[16], esaterako, *z*enbakizko emaitzen matematika bidezko biltze, sailkatze eta aztertzean datza *estatistika*. Eta, Wikipediaren arabera[17], estatistikaren helburua da jasotako datuetatik informazio baliagarria eskuratzeko teknikak garatu eta aplikatzea; besteak beste, konklusio zehatzak eman eta erabaki egokiak hartu ahal izateko.

Azterketa honetan, egileok kezka berezia izan dugu errealitatea den bezalakoa ager dadin irakurlearen begietan, ahalik eta ikuspegirik osatuena izan dezagun denok. Horregatik, errealitate beraren ertzak erakusteko, hiru kopuru-mota[18] erabili ditugu orrialdeotan datuak kudeatzeko orduan:

1.-Azterraldiaren sei ikasturteak banan-banan hartuta, 215.553 ikasle aritu dira euskaltegietan aztergai ditugun mailetan euskara ikasten. Pertsona bat ikasturte batean baino gehiagotan aritu baldin bada, ikasturte bakoitzeko behin kontatuta dago.

2.-Azterraldiaren sei ikasturteak batera hartuta, bigarren ikuspegi nagusia da epealdian ibilitako pertsona ezberdinena. Aurreko atalean ikasturte bakoitzeko pertsonak metatu ditugun moduan, atal honetan azterraldian ibilitako pertsona ezberdinak hartuko ditugu kontuan: 116.241 pertsona ezberdin aritu dira euskara ikasten sei ikasturteotan.

3.- Azterraldian lehen multzoko horiek egindako matrikula-kopurua: 272.882.

Hurrengo lerroetan, egindako eragiketei buruzko xehetasunak zehazten ahalegindu gara, irakurlea noraezean ibil ez dadin eta dagozkion ondorioak askatasunez atera ditzan. Adibidez, *ikasleriaren banaketa mailetan* azter liteke aipaturiko hiru oinarri horiek hartuta, eta kopuru ezberdinak atera:

[15] http://www.eustat.es
[16] http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl
[17] https://eu.wikipedia.org/wiki/Estatistika
[18] Nagusiki, lehen biak erabili ditugu, nahiz eta hirugarrena ere baliatu kasuren batean edo beste.




| | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 215.553 | 12,32 | 13,09 | 22,01 | 25,7 | 25,69 | 1,19 |
| 116.421 | 20,2 | 14,08 | 19,36 | 21,46 | 23,48 | 1,42 |
| 272.882 | 10,19 | 11,48 | 21,33 | 26,66 | 28,49 | 1,86 |

Ikus daitekeen bezala, aldea dago oinarriaren arabera lortzen diren kopuruetan.

Grafikoaren aurretik zehazturiko hiru bide horietatik, egileok lehendabiziko aukera (215.553) baliatu dugu nagusiki, koherenteena iruditzen baitzaigu ikasturtez ikasturteko ikuspegia azaleratzeko. Eta, beharrezko ikusi izan dugunean, bigarren eta hirugarren aukerak ere erabili ditugu.Bigarren aukera (116.421) esaterako, lorpen-emaitzak ematean jorratu dugu, ertz batetik baino gehiagotik aztertu ahal izateko lorpen-emaitzen alorra. Eta hirugarren aukera (272.882) oso kasu bakanetan; esaterako, matrikularen trinkotasuna aztertzean. Dena dela, aldiro ohartuko da irakurlea zer oinarri eskaintzen zaion.

Bestalde, kontuan hartu hainbat taulatako batuketek beti ez dutela kopuru bera ematen, zeren eta, ikaslea hainbat eremutan banatzean, baturak berezko kopurua baino handiagoa izan behar baitu; horrela, esaterako, bitan kontatzen da bi eremutan (euskaltegi-sare, lurralde, herri…) aritu den ikaslea. Adibidez, 2007-2008 ikasturtean, 36.565 ikasle aritu ziren euskara ikasten euskaltegietan, baina, euskaltegi pribatu eta publikoetan bereizita emanez gero datu hori, ikusiko dugu beste kopuru handiago bat ondorioztatzen dela; kasu honetan, 38.712. Ondorioz, horrek esan nahi du 2.147 ikasle bi eremu horietan ibili zirela ikasturte horretan.

**2.- Ikasleak** Ikasle-kopuruaren bilakaerari dagokionez, hurrengo grafikoan ikus daiteke 2012-2013an 2007-2008 ikasturtean baino 4.187 ikasle gutxiago aritu direla euskara ikasten EAEko euskaltegietan; alegia,% 11,45 gutxiago.




Hurrengo ataletan, kopuru orokor horiek xeheago ikusiko ditugu.

*2.1. Ikasle-kopuruaren bilakaera, euskaltegi-motaren arabera*[19]




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ■ Pribatuak | 28.290 | 29.940 | 30.944 | 29.563 | 27.519 | 25.192 |
| ■ Publikoak | 10.422 | 11.248 | 10.880 | 10.010 | 9.336 | 8.732 |

[19] Gogoan izan sarrerako oharra: batuketek beti ez dute kopuru bera ematen, zeren eta, ikaslea eremu bat baino gehiagotan egotean, baturak berezko kopurua baino handiagoa izan behar baitu.

Aztertutako urteetan, orotara, egonkor samar mantendu da euskaltegi pribatuen eta publikoen arteko ikasle-proportzioa. Datuei erreparatuta,ikasle gehiago ibili dira ikasten euskaltegi pribatuetan, publikoetan baino. Sei urtekoaren bi muturrei erreparatuta, ikusten da proportzio bertsuari eusten zaiola: euskaltegi pribatuetan, ikasleen % 73,08 eta % 74,26 dabil (2007-2008an eta 2012-2013an, hurrenez hurren) eta euskaltegi publikoetan, berriz, % 26,92 eta % 25,74.

Oro har, joera bertsua ikusten da, bai euskaltegi pribatuetan, bai publikoetan, ikasle-kopuruei dagokienez, ikasleak irabaztean nahiz galtzean. Pribatuek 2009-2010 ikasturtean jo zuten goia 30.944 ikaslerekin eta publikoek, berriz, 2008-2009an 11.248rekin. Hortik aurrera, etenik gabe galdu dituzte ikasleak ikasturtez ikasturte. Muturreko ikasturteak alderatuta, orotara, % 12,36 gutxiago zebiltzan ikasten euskaltegietan (4.788 ikasle) 2012-2013an: euskaltegi pribatuetan% 10,90 gutxiago (3.098 ikasle), eta, publikoetan % 16,21 (1.690). Hortaz, proportzioan, ikasle gehiago galdu dituzte euskaltegi publikoek pribatuek baino: % 5,26 gehiago.

## 2.2. Ikasle-kopuruaren bilakaera, sareka[20]

Sarea aipatzean, euskaltegiek euren izaera edo interesen alde egiteko sorturiko elkarteez ari gara.

Lehenik eta behin, grafiko batean islatuko ditugu 2012-2013 ikasturtean matrikulatutako ikasle-kopuruak sareka, sare bakoitzaren tamainaren berri izan dezan irakurleak.




[20] Aldizkari honetan, ez dugu sarekako datu gehiago emango, zeren eta euskaltegi bakoitzak jasotzen baitu dagokion informazio zehatza ikasturtean zehar. Hala ere, oinarrizko datu bat eskaini nahi izan dugu, irakurleak jakin dezan zer-nolako eragin-esparrua hartzen duen sareetako bakoitzak.

Jarraian, taula batean laburbildu ditugu sei ikasturteotako ikasle-kopuruak, sareka banatuta.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AEK | 8.806 | 9.504 | 9.988 | 9.544 | 9.196 | 8.738 |
| BAI & BY | 1.538 | 1.639 | 1.450 | 1.269 | 1.143 | 1.009 |
| BATUZ | 5.760 | 5.991 | 6.522 | 6.290 | 6.453 | 5.663 |
| ELKARLAN | 4.272 | 4.605 | 4.754 | 4.716 | 4.102 | 3.767 |
| FEDERATU GABE | 4.477 | 4.564 | 4.584 | 4.346 | 3.487 | 3.361 |
| IKA | 3.119 | 3.283 | 3.182 | 2.882 | 2.680 | 2.231 |
| MONDRA-LING. | 318 | 354 | 464 | 516 | 458 | 423 |
| UDAL EUSK. | 10.422 | 11.248 | 10.880 | 10.010 | 9.336 | 8.732 |

Ikasle-kopuruaren zenbatekoa, sareka eta ikasturteka banatuta ere, orotara emandako datuaren norabide berean antzematen da; hau da, aldeak alde, ia sare guztietan gutxitu da ikasle-kopurua.

Muturreko ikasturteetako datuak erkatuz gero (2007-2008 eta 2012-2013), honako ikasle-kopuru hauek galdu dituzte euskaltegiek: AEK-k 68 ikasle gutxiago (% 0,17), BAI & Byk 529 gutxiago (% 1,36), BATUZek 97 gutxiago (% 0,25), ELKARLANek 505 gutxiago (% 1,30), federatu gabeek 1.116 (% 2,88), IKAk 888 (%2,29), udal-euskaltegiek 1.690 gutxiago (% 4,36). Mondragon Linguak, aitzitik, 105 ikasle gehiago izan ditu 2012-2013an (2007-2008an baino % 0,27 gehiago).

*2.3. Emakumezkoen ehunekoa*

Emakumezkoa da, neurri handi batean, euskaltegiko ikaslea (% 67, gutxiasko). Muturreko ikasturteak aztertuz gero, zertxobait egin du behera emakumezkoen zenbatekoak (% 68,9 izatetik 2007-2008an % 67,2 izatera igaro da 2012-2013an).



## 2.4. Ikasleen jatorria

Hizkuntzen berreskuratze- eta normalizazio-prozesuetan, aintzat hartu beharreko ezinbesteko aldagaietako bat izan ohi da ikasleriaren jatorriaren azterketa egitea. Hizkuntzaren psikopedagogiaren arabera, kontuan hartu behar dira subjektuen egoera ezberdinak eta egoera linguistiko berezi bat duten hizkuntza-taldeak (adibidez, atzerritarren egoera). Izan ere, baldintza soziokulturalak eta giza taldeak nahiz norbanakoek hizkuntzarekiko zein kulturarekiko dituzten motibazioak eta jarrerak ezagutzea eskatzen du horrek.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ARABA | 12,50 | 12,42 | 12,71 | 13,02 | 12,99 | 12,34 |
| BIZKAIA | 52,61 | 53,14 | 52,86 | 52,51 | 50,85 | 49,63 |
| GIPUZKOA | 20,10 | 19,77 | 20,41 | 20,85 | 21,15 | 21,89 |
| NAFARROA | 1,71 | 1,47 | 1,40 | 1,44 | 1,62 | 1,75 |
| ESTATUA | 8,81 | 8,03 | 7,70 | 7,44 | 7,99 | 9,00 |
| IPARRALDEA | 0,10 | 0,11 | 0,10 | 0,12 | 0,13 | 0,14 |
| ATZERRIA | 4,18 | 5,07 | 4,81 | 4,62 | 5,27 | 5,26 |

Ikasleen jatorriaren analisia egitean, gutxi-asko aurreko urteetako joera nabari bada ere, badira aipatzeko moduko zenbait datu deigarri. Atzera begira jarri, eta azter ditzagun zenbatekoak:

a) Orain arte, Bizkaian jaioak ziren ikasleen erdiak baino gehiago, baina kopuruak % 50etik behera egin du lehen aldiz[21] azken ikasturtean: 576 ikasle gutxiago daude 2012-2013an; horrela, 2007-2008 ikasturtean % 52,61 izatetik % 49,63 izatera etorri da kopurua.

b) Gora egin dute Gipuzkoan eta atzerrian jaiotakoek: batetik, 262 ikasle gehiago Gipuzkoan 2012-2013an 2007-2008an baino (% 20,10etik % 21,89ra handitzen da ehunekoa) eta, bestalde, 175 ikasle atzerritar gehiago daude (% 4,18tik % 5,26ra).

c) Kopuru bertsuak ditugu Araban, Nafarroan, Iparraldean eta Espainiako estatuan jaiotakoen artean.

Eta, ondorengo irudian ikusten den bezala, atzerrian jaiotakoak[22] dira etenik gabe gora egin dutenak 2000-2001 ikasturtetik aurrera.

[21] 2000-2001/2006-2007 ikasturteetan % 50etik gorako kopuruak izan ziren: % 50,76 2000-2001ean eta % 52,93 2006-2007an, esaterako.

[22] 2011ko V. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, EAEko biztanleen % 6,6 atzerritarra da. Gaur egun, Hego Amerikatik etorritakoek osatzen dute atzerriko biztanleriaren % 43,1, Europatik datozenak % 27,8 (gehienak, errumaniarrak) eta Afrikatik iritsitakoak % 22,5 (gehienak, marokoarrak edo aljeriarrak). http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/4411/V_Mapa_EU.pdf?1396872659.




Bestalde, jakin nahi izan dugu atzerritarrak euskalduntzearen zer mailatan aritu diren euskara ikasten. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, A1 mailan biltzen dira atzerritarrik gehien; 2012-2013an, esaterako, ikasle atzerritarren % 55 aritu da maila horretan.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 61,18 | 67,08 | 58,27 | 58,50 | 60,20 | 55,37 |
| A2 | 11,93 | 11,25 | 16,38 | 15,25 | 14,68 | 16,06 |
| B1 | 13,38 | 11,50 | 13,54 | 12,69 | 12,56 | 14,70 |
| B2 | 9,18 | 6,75 | 6,51 | 8,44 | 7,50 | 8,21 |
| C1 | 4,13 | 3,32 | 4,99 | 4,83 | 4,62 | 5,08 |
| | 0,20 | 0,10 | 0,31 | 0,29 | 0,44 | 0,59 |

Era berean, jakin nahi izan dugu zenbat ikasle diren atzerritar A1 mailan: 2012-13an, esaterako, maila horretako ikasle guztien % 25 dira atzerritarrak (2007-08an, % 19).

| | 2007-2008 Ikasleak guztira | 2007-2008 Atzerritarrak | 2007-2008 Atzerritarren ehunekoa | 2012-2013 Guztira | 2012-2013 Atzerritarrak | 2012-2013 Atzerritarren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 4.839 | 933 | 19,28 | 3.693 | 938 | 25,40 |
| A2 | 5.050 | 182 | 3,60 | 4.027 | 272 | 6,75 |
| B1 | 8.407 | 204 | 2,43 | 6.628 | 249 | 3,76 |
| B2 | 9.009 | 140 | 1,55 | 8.064 | 139 | 1,72 |
| C1 | 8.145 | 63 | 0,77 | 8.441 | 86 | 1,02 |
| C2 | 124 | 3 | 2,42 | 666 | 10 | 1,50 |

## 2.5. Lehen hizkuntza[23]

Lehen hizkuntza da gizabanako batek jaiotzetik era naturalean ikasi duena[24] gurasoengandik edo haurrarekin bizi diren senitartekoengandik, eta bigarren hizkuntza, berriz, lehen hizkuntzaren ondoren ikasten den hurrengoa. Hego Euskal Herrian, eskolan irakasten dira bigarren hizkuntzak: gaztelania kasu batzuetan eta euskara gehienetan; eta, horiez gain, atzerriko hizkuntza gisa, hirugarren bat ere —normalean, ingelesa—.

Horrela, bada, hiztun elebakarra, orokorrean, hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzen duen hiztunari esan ohi zaio; hiztun elebiduna, bi hizkuntza erabiltzen dituenari, eta eleaniztuna hizkuntza gehiago erabiltzeko gauza denari. Horiek horrela, hizkuntzen ikaskuntza-prozesuei begira, garrantzizkoa izan ohi da aztertzea zer-nolako ezaugarriak dituzten ikasleek, lehen hizkuntza dela-eta.

EAEko lau biztanletatik ia hiruk (% 72,6k) gaztelania soilik dute lehen hizkuntza[25]. Euskara dutenak % 18,6 dira eta biak dituztenak % 4,9. Dena dela, alde handia dago lurralde batetik bestera: Araban, % 87,9k jaso du gaztelania soilik etxean; Bizkaian, % 79,4k; eta Gipuzkoan, % 54,4k.

V. Mapa Soziolinguistikoan, euskaldunak hiru multzotan banatu dira, euren lehen hizkuntzaren arabera: euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak. 2011ko Zentsuaren arabera, EAEn bost urte edo gehiagoko euskaldunen % 46,9k euskara besterik ez du jaso etxean; hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldunen % 10,9k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da. Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak % 42,2 dira; hau da, euskaldun berriak dira. Euskaldun berriak etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.

Euskaltegietako ikasleen lehen hizkuntza aztertuz gero, lehen hizkuntza gaztelania dutenen multzoa da nagusi, alde handiz.

| Lehen hizk. | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erantzunik ez | 4,06 | 2,94 | 2,39 | 1,97 | 1,70 | 1,65 |
| Besteren bat | 4,18 | 4,70 | 4,69 | 4,56 | 5,21 | 5,55 |
| Biak | 5,40 | 6,11 | 6,26 | 7,17 | 6,81 | 6,97 |
| Euskara | 8,79 | 8,86 | 9,32 | 8,76 | 8,56 | 8,45 |
| Gaztelania | 77,57 | 77,39 | 77,34 | 77,54 | 77,71 | 77,39 |

Aztertutako ikasturteetan, oso antzeko kopuruak[26] ditugu urtetik urtera. Goraxeago adierazi bezala, euskaltegietako ikasleen artean nagusi da lehen hiz-

[23] *Lehen hizkuntza*, edo *guraso-hizkuntza*, edo *ama-hizkuntza* terminoak erabili ohi dira.
[24] Hizkuntza bat edo gehiago izan litezke.
[25] V. Mapa Soziolinguistikoa 2011.
http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/4411/V_Mapa_EU.pdf?1396872659
[26] Euskaraz (Euskaraz baino ez+ Euskaraz, batez ere), Gaztelaniaz (Gaztelaniaz baino ez+ Gaztelaniaz, batez ere), Bietan (Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan).

kuntza gaztelania dutenen multzoa (2012-2013an,esaterako, % 77,39). Bestalde, handitu egin da zertxobait lehen hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat dutenen kopurua (2007-2008an % 4,18 izatetik % 5,55 izatera igaro dira 2012-2013an), eta, orobat, zertxobait egin dute gora euskara eta gaztelania dutela adierazi dutenek (% 5,40 izatetik 2007-2008an % 6,97 izatera 2012-2013an).

Ondoko irudian dugu 2012-2013 ikasturteari dagokion banaketa.



## 2.6. Hizkuntza-eredua[27]

Euskal Estatistika Erakundearen arabera (Eustat), 2012-2013 ikasturteko irakaskuntza ez unibertsitarioko matrikulei erreparatuz gero[28], orotara, D ereduan EAEko ikasleen % 63 matrikulatu ziren, B ereduan % 21 eta, azkenik, A+X[29] ereduan % 16[30]. Baina batxilergoan beste ehuneko batzuk ditugu: D ereduan ikasleen % 57, B ereduan % 1,6 eta A+X ereduan % 41 aritu dira. Eta Lanbide Heziketan, ordea, D ereduan ikasleen% 24, B ereduan % 1,7 eta A+X ereduan % 74 dago matrikulatuta.

Datu horiek argi erakusten dute haurrei buruzko ehunekoak aldatu egiten direla haur horiek nerabezarora ailegatzean, zeren eta Lanbide Heziketan eta batxilergoan handiagoak baitira A+X ereduetako ehunekoak eta txikiagoak, berriz, B eta D ereduetakoak. Irakurleak gogoan izango du 16 urte eduki behar direla, gutxienez, euskaltegian matrikulatu ahal izateko.

Euskalduntze-alfabetatzeari erreparatuz gero, multzorik handiena osatzen dute bai A ereduan ikasitako ikasleek, bai erdarazko X ereduan aritutakoek. Ondorioz, euskaltegietan matrikulaturiko ikaslerik gehienak aipatu bi hizkuntza-eredu horietan ibilitakoak dira; 2012-2013an, esaterako, ikasleen % 74 izan dira.

| Hizkuntza-eredua | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erantzunik ez | 4,06 | 2,94 | 2,39 | 1,97 | 1,70 | 1,65 |
| A ereduan | 41,49 | 40,58 | 40,52 | 40,69 | 41,37 | 41,70 |
| B ereduan | 6,55 | 7,69 | 8,22 | 9,29 | 9,78 | 9,23 |
| D ereduan | 11,74 | 13,86 | 16,32 | 17,43 | 16,12 | 15,20 |
| X ereduan | 36,16 | 34,93 | 32,56 | 30,62 | 31,02 | 32,22 |

Horretaz aparte, muturreko bi ikasturteak erkatuta, aztergai ditugun ikasturteotan gora egin du B eta D ereduetan ibilitako euskara-ikasleen ehunekoak (2,68 eta 3,46 puntu, hurrenez hurren), eta behera, aldiz, erdarazko X ereduan ikasitakoen multzoak (-3,94 puntu). Eta A ereduan ikasitakoen multzoak ez du aparteko gorabeherarik izan.

Azkenik, nabarmentzekoa da 37 urtekoa dela euskara-ikasleen batez besteko adina 2012-2013an, eta, ondorioz, ikasleen erdiek ez dutela eskolako hizkuntza-eredurik[31] ezagutu. Baina, aitzitik, 37 urtetik beheragokoek ezagutu dute, zeren eta 1983an arautu baitzuen Eusko Jaurlaritzak EAEko hizkuntza ofizialen erabilera hezkuntza ez unibertsitarioan, eta, garai hartan, 37 urteko ikasle horrek 6 urte zituen 1983an.

[27] Hizkuntza-eredu, i*kasketa-eredu, irakasteredu* edo *hezkuntza-eredu* terminoak erabili ohi dira.

[28] http://eu.eustat.es/elementos/ele0000100/ti_Euskal_AEko_araubide_orokorreko_unibertsitateaz_kanpoko_irakaskuntzetako_eta_helduen_hezkuntzako_ikasleak_lurralde-eremuaren_mailaren_eta_irakasteredu_elebidunaren_arabera_201213/tbl0000106_e.html#axzz2wU7wE1fk

[29] X ereduan edo erdarazkoan, ez da euskaraz ikasten.

[30] A ereduan, % 15,92; eta erdarazko X ereduan, berriz, % 0,56.

[31] DEKRETUA 138/1983, uztailaren 11koa.: http://parlamento.euskadi.net/pdfdocs/leyes/dec_138_1983.pdf




Ondoko irudian dugu 2012-2013 ikasturteari dagokion banaketa.



## 2.7. Etxeko hizkuntza

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, EAEko biztanleriaren % 77,1ek gaztelania baino ez du erabiltzen etxean, eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat % 2,1ek. Bestalde, % 13,4k euskara erabiltzen du etxean beti edo ia beti, eta beste % 7,4k euskara eta gaztelania[32].

Euskaltegietako ikasleen datuetan, ez dago gorabehera handirik ikasturtetik ikasturtera:aztertutako azken ikasturtearen arabera, adibidez, gehienek hitz egiten dute gaztelaniaz etxean (% 79k), edota euskaraz eta gaztelaniaz (% 13k). Bestalde, ikasleen % 7k egiten du etxean euskaraz, eta, bietan egiten dutela diotenak gehituz gero, ikasleen % 20k egingo luke euskaraz edota bietan.

Bi hizkuntza-faktore lotu ohi dira euskarazko gaitasun-mailarekin: euskara etxeko hizkuntza bezala erabiltzea eta hautatutako hizkuntza-eredu elebiduna. Eta lagunen arteko hizkuntza da hirugarren faktorea.

| Etxeko hizkuntza | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erantzunik ez | 4,06 | 2,94 | 2,39 | 1,97 | 1,7 | 1,65 |
| Euskaraz [33] | 6,61 | 6,46 | 6,76 | 6,5 | 6,72 | 6,75 |
| Bietan | 11,71 | 12,28 | 12,71 | 13,62 | 13 | 12,93 |
| Gaztelaniaz | 77,61 | 78,32 | 78,14 | 77,92 | 78,58 | 78,69 |

Ondoko irudian dugu 2012-2013 ikasturteari dagokion banaketa.




[32]http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/4411/V_Mapa_EU.pdf?1396872659
[33]Euskaraz (Euskaraz baino ez + Euskaraz, batez ere), Gaztelaniaz (Gaztelaniaz baino ez + Gaztelaniaz, batez ere), Bietan (Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan).

## 2.8. Lagunen arteko hizkuntza

IV. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, EAEko biztanleen % 18,6k euskara gaztelania beste (% 6,1) edo gehiago (% 12,5) erabiltzen du eguneroko jardunean, % 11k gaztelania erabiltzen du nagusiki eta % 70,4k ez du euskararik erabiltzen[34].

Gehiago zehaztuz, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleetatik euskara beti edo ia beti erabiltzen du % 15ek lankideekin, % 14k lagunekin eta % 13k auzokideekin zein dendariekin. Halaber, euskara gaztelania beste erabiltzen du % 7k lankideekin eta lagunekin, eta % 6k auzokideekin eta dendariekin. Baina emaitza horiek elebidunekiko aztertuz gero, elebidunen % 46k beti edo nagusiki euskara erabiltzen du lagunekin eta beste % 18k euskara gaztelania beste. Sarearen eragina handia da lagunarteko euskararen erabileran ere bai, baina ez etxean bezain handia.

Euskaltegietako ikasleek, nagusiki, gaztelaniaz hitz egiten dute lagunen artean (% 76k, 2012-2013an); gero, euskaraz eta gaztelaniaz (% 17k) jarduten dute; eta, azkenik, euskaraz(% 5ek). Muturreko ikasturteak konparatuz gero, antzeko kopuruak ikusten dira hizkuntza batean nahiz bestean, nahiz eta ehunekoak zertxobait egiten duen gora azkeneko ikasturtean, salbu eta erantzunik eman ez dutenetan. Goranzko joera horrek (gutxi-asko, puntu bat), itxura batera, zerikusi zuzena eduki lezake erantzun ez dutenen kopuruaren beherakadarekin.

| Lagunen arteko hizkuntza | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erantzunik ez | 4,06 | 2,94 | 2,39 | 1,97 | 1,7 | 1,65 |
| Euskaraz [35] | 4,78 | 4,51 | 4,92 | 4,61 | 4,99 | 5,18 |
| Bietan | 16,08 | 16,76 | 17,51 | 18,52 | 17,74 | 17,12 |
| Gaztelaniaz | 75,08 | 75,79 | 75,17 | 74,9 | 75,57 | 76,05 |

Ondoko irudian dugu 2012-2013 ikasturteari dagokion banaketa.

[34] IV. Mapa Soziolinguistikoa 2006 baliatu dugu, V.ak ez baitu horrelako daturik eskaintzen. http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/noticia/albis17_366_mapa_09_04/eu_soziolin/adjuntos/IV.%20Inkesta%20Soziolinguistikoa.pdf

[35] Euskaraz (Euskaraz baino ez + Euskaraz, batez ere), gaztelaniaz (Gaztelaniaz baino ez + Gaztelaniaz, batez ere), bietan (Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan).




*2.9. Ikasleen ikasketa akademikoak*

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lizentziadunak** | 29,07 | 28,28 | 27,74 | 28,00 | 28,37 | 28,37 |
| **Diplomadunak** | 21,09 | 20,01 | 19,08 | 19,07 | 18,78 | 18,5 |
| **UBI edo LHII** | 25,14 | 25,67 | 26,20 | 26,36 | 25,92 | 25,79 |
| **Eskola-graduat., LHI** | 17,31 | 18,05 | 18,28 | 17,75 | 17,71 | 17,75 |
| **Beste** | 7,40 | 8,00 | 8,70 | 8,81 | 9,23 | 9,59 |

Azken ikasturteari erreparatuz gero, ikaslerik gehientsuenak lizentziadunak dira (% 28), gero UBI edo LHII dutenak ditugu (% 26), diplomadunak (% 18,5) eta, azkenik, eskola-graduatua edo LHI dutenak (% 18). Muturreko bi ikasturteak aztertuta, behera egin du unibertsitate-maila[36] duten ikasleen zenbatekoak (-3,29 puntu).




36 Lizentziadunak, eta diplomadunak.

Horrezaz bat, laugarren mailako ikasleen ikasketa akademikoen nolakoa jakin nahi izan dugu, zeren eta HEOKen adituaren maila gisa definitu baitzen eta horren araberako helburuak ezarri[37]. Horregatik, 2013ko lehen deialdian parte hartu zutenei erreparatu diegu, eta honako argazki hau atera, 2012-2013ikasturtean laugarren mailan matrikulaturiko ikasleen ikasketa akademikoak direla-eta:

| 4M: 2012-2013 | |
|---|---|
| Lizentziadunak | % 69 |
| Diplomadunak | % 20 |
| UBI edo LH II | % 4 |
| Eskola-graduatuak, LH I | % 2 |
| Beste | % 5 |

Laukian ikus daitekeen bezala, nagusi dira lizentziadunak laugarren mailako ikasleen artean.

Ohar gisa, kontuan izan HABEren datutegian gutxien eguneratzen den datuetako bat dela ikasketa akademikoei dagokiena.

## 2.10. Ikasleen ogibideak

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Admin. publikoan | 21,36 | 19,32 | 16,59 | 15,36 | 14,47 | 15,20 |
| Bestelakoa | 16,84 | 17,79 | 18,81 | 19,33 | 19,70 | 20,21 |
| Etxeko lanak | 3,97 | 3,82 | 3,57 | 3,36 | 3,41 | 3,40 |
| Ikasle | 17,26 | 18,92 | 20,96 | 22,13 | 21,67 | 21,15 |
| Inoiz lanik ez | 0,43 | 0,46 | 0,47 | 0,61 | 0,56 | 0,65 |
| Irakasle | 10,45 | 8,60 | 7,81 | 7,36 | 7,95 | 7,62 |
| Lanbide liberala | 4,39 | 4,54 | 4,30 | 4,37 | 4,28 | 4,32 |
| Lang. espezializatua | 13,67 | 13,82 | 14,15 | 14,03 | 14,37 | 14,21 |
| Ez espezializatua | 3,32 | 3,66 | 3,57 | 3,60 | 3,70 | 3,43 |
| Teknikaria | 8,31 | 9,06 | 9,77 | 9,85 | 9,88 | 9,81 |

Euskaltegiko ikasleen ogibideen banaketari dagokionez, askotariko argazkia ateratzen da. Irauli egin da 2007-2008ko hurrenkera, zeren eta 20012-2013an ikasleek osatzen baitute multzorik handiena (4,15 puntu egin du gora). Kopururik handienetik txikienera eginez, ikasleriaren % 56,56 osatzen dute ikasle gisa azaltzen direnek (% 21,15), "bestelakoa" etiketapean multzokatuek (% 20,21) eta Administrazio publikoan lan egiten dutenek (%15,20). Atentzioa ematen du nola handitu den "bestelakoen"[38] ehunekoa (3,37 pun-

[37] Kultura-maila goreneko eta norbere espezialitateko gaien inguruan elkarrizketa mantendu, eta iritziak eta azalpenak emateko gai da. Testu espezializatuak bere osotasunean jasoko ditu, eta hizkuntza formal eta informalean egoerari egokituz lortuko duarrakasta.

[38] HABEren aplikazio informatikoa berritzean, berraztertu egin beharko da sailkapen hau (besteak beste, *Bestelakoa* izeneko atala).

tu egin du gora). Bestalde, apalago bada ere, teknikarien multzoak egiten du gora (1,5 puntu), eta irakasleenak, aitzitik, behera (2,83 puntu).

Datu esanguratsua ere bada herri-administrazioko langileen bilakaera, ondoko grafikoan ikus daitekeenez.




Administrazio publikoan lan egiten duten langileen zenbatekoak 6,16 puntu egin du behera sei ikasturteotan: % 21etik % 15era.

## 2.11. Langabetuak




Euskaltegietako ikasleen artean EAEko biztanleria orokorrean[39] baino langabetu-kopuru handiagoa dago. Esaterako, 2012-2013 ikasturtean, 12,5 puntuko aldea zegoen batetik bestera.

[39] EUSTAT http://www.eustat.es/indice.asp?idioma=e#axzz2tCfGgp9b

*2.12. Ikasle-kopurua, hasiera-mailaren arabera*[40]




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 13,6 | 13,7 | 12,53 | 10,55 | 11,68 | 11,71 |
| A2 | 14,2 | 13,78 | 12,85 | 12,57 | 12,31 | 12,77 |
| B1 | 23,63 | 22,47 | 21,84 | 21,44 | 21,52 | 21,02 |
| B2 | 25,32 | 25,13 | 25,53 | 26,5 | 26,17 | 25,58 |
| C1 | 22,9 | 24,32 | 26,25 | 27,58 | 26,46 | 26,77 |
| C2 | 0,35 | 0,6 | 1,01 | 1,35 | 1,86 | 2,14 |

Sei ikasturte hauetan, ikasle-kopuruak behera egin du orotara, eta beherakada hori euskalduntze-prozesuaren beheko mailetan (A1, A2, eta B1) islatzen da[41] (-5,93 puntu). B2 mailan ere beherakada izan da (-945 ikasle), nahiz eta ehunekoak ez duen gorabehera handirik islatzen (+0,26 puntu). Eta, aitzitik, gora egin dute goiko bi mailek (C1 eta C2) ikasturteotan[42] (5,66 puntu): 2012-2013an, esaterako, ikasleriaren kopururik handiena C1 mailan (% 26,77) biltzen da, eta txikiena, berriz, C2 mailan (% 2,14).

Datuen irakurketa ikuspegi zabalagoz eginez gero, bi ondorio atera genitzake. Alde batetik, B1 maila bitartean hasten direla euskara ikasten ia ikasleen erdiak (hamarretik lau[43], gutxi-asko); eta kopuru horri B2 mailakoak gehituz gero, ikasleen hamarretik zazpi-edo[44] liratekeela C1 mailaren azpitik hasitakoak. Eta, beste alde batetik, C1 + C2 mailetan egin duela gora ikasle-kopuruak (3,87 puntua eta 1,79 puntu).

2012-2013an, kopururik handienetik txikienera eginez, ikasleriaren % 52,35 osatzen dute C1 (%27) eta B2 (% 26). B1ekoak gehituz gero (% 21), guztien %73 lirateke. Beraz, ikaslerik gehien B1, B2 eta C1 mailetan metatzen da.

Horrela, nahiz eta ikasleen beherakada beheko mailetan gertatu den (A1, A2 eta B1 mailetan), orotara gutxiago dira C1 eta C2 mailetan ikasten hasitakoak (2012-2013an, % 29), gainerakoetan hasitakoak baino (2012-2013an, % 71).

[40] Ikasle-kopuruaz ari garenean, sei ikasturteotan pilatutako 215.553 ikasleei buruz ari gara..

[41] A1en, -1.146 ikasle; A2n, -1.023; B1en, -1.779; eta B2n, -945.

[42] C1en, 296 ikasle; eta C2n, 550.

[43] Sei ikasturteotan, % 47,42.

[44] Sei ikasturteotan, % 73,12.

## 2.13. Ikasleen adina

Hizkuntzaren normalizazio-prozesuan, ezinbesteko adierazlea da adinarena, eta, adin-tarte guztiak aintzat hartzekoak badira ere, garrantzizko esparrua da gazteena, gazte-garaian errotzen baitira hizkuntza erabiltzeko ohiturarik sendoenak.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **16-20** | 3.906 | 4.525 | 4.888 | 4.693 | 4.126 | 3.638 |
| **21-25** | 3.239 | 3.740 | 3.940 | 4.041 | 3.649 | 2.965 |
| **26-30** | 4.948 | 5.181 | 5.138 | 4.897 | 4.415 | 3.578 |
| **31-35** | 5.715 | 6.110 | 6.301 | 5.669 | 5.124 | 4.529 |
| **36-40** | 6.060 | 6.266 | 6.272 | 5.742 | 5.527 | 5.028 |
| **41-45** | 5.451 | 5.629 | 5.547 | 5.029 | 4.758 | 4.679 |
| **46-50** | 3.894 | 3.914 | 3.801 | 3.546 | 3.499 | 3.492 |
| **51-55** | 1.782 | 1.904 | 1.946 | 1.904 | 2.012 | 2.153 |
| **56-60** | 789 | 759 | 819 | 818 | 867 | 984 |
| **61-65** | 410 | 490 | 523 | 513 | 549 | 656 |
| **>65** | 348 | 427 | 542 | 541 | 605 | 673 |

Euskaltegietan, 31-40 adin-tarteko ikaslea da nagusi, 2007-2008tik 2011-2012 ikasturtera bitartean. Baina 2012-2013 ikasturtean 36-45 adin-tartean biltzen da ikaslerik gehien.

Datu horiek portzentajeen arabera aztertuz gero, hona sei ikasturteotako bilakaera:

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **16-20** | 10,69 | 11,62 | 12,31 | 12,55 | 11,74 | 11,24 |
| **21-25** | 8,86 | 9,60 | 9,92 | 10,81 | 10,39 | 9,16 |
| **26-30** | 13,54 | 13,30 | 12,94 | 13,10 | 12,57 | 11,05 |
| **31-35** | 15,64 | 15,69 | 15,86 | 15,16 | 14,59 | 13,99 |
| **36-40** | 16,58 | 16,09 | 15,79 | 15,36 | 15,73 | 15,53 |
| **41-45** | 14,92 | 14,45 | 13,97 | 13,45 | 13,54 | 14,45 |
| **46-50** | 10,66 | 10,05 | 9,57 | 9,48 | 9,96 | 10,79 |
| **51-55** | 4,88 | 4,89 | 4,90 | 5,09 | 5,73 | 6,65 |
| **56-60** | 2,16 | 1,95 | 2,06 | 2,19 | 2,47 | 3,04 |
| **61-65** | 1,12 | 1,26 | 1,32 | 1,37 | 1,56 | 2,03 |
| **>65** | 0,95 | 1,1 | 1,36 | 1,45 | 1,72 | 2,08 |

Euskaltegietako ikasleak EAEko biztanleria baino gazteagoak dira, nahiz eta euskaltegietan euskalduntzen ari diren ikasleen adinak gora egin. Goraxeago aipatu bezala, euskaltegietan 31-40koa da adin-tarterik jendetsuena 2007-2008 ikasturtetik 2011-2012 ikasturtera bitartean (% 32 eta % 30, hurrenez hurren), baina azken ikasturtean 36-45 adin-tartekoak nagusitzen dira (% 30).

Ezagun da, oro har, zahartzen ari dela mendebaleko biztanleria[45], eta, nola ez, euskaltegietako ikasleen adina ere bide beretik doa: 21-65 adin-tarteko ikasleak % 88 ziren 2007-2008ko ikasturtean eta % 86,5 2011-2012an[46]; eta 66 urtetik gorakoak 2007-2008an % 0,9 ziren, eta 2011-2012an, berriz, % 1,7 izatera igaro dira[47]. Ondorioz, 2011-2012 bitartean, gora egin du 66 urtetik gorakoen ehunekoak, bai euskaltegietan (0,77puntu), bai gizartean (1,19 puntu); eta goranzko norabide berean darrai ikasleen adinaren zahartzeak baita 2012-2013an ere, ikasleen % 2 baitira 66 urtetik gorakoak (0,35 puntu).

*2.13.1. Adin-portzentajeen aldea 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturteen artean*




Irudian ikusten den moduan, gutxitu egin da 21-40 adin-tarteko multzoa, eta, aitzitik, ugaritu 41etik gorakoa eta, apalago bada ere, baita 16-20 tartekoa ere.

[45]EUSTATeko datuen arabera,EAEn 20-64 urte artekoak % 64,90 ziren 2006an, eta % 62,62ra txikitu zen ehunekoa 2011n. http://www.eustat.es/elementos/ele0008400/ti_Euskal_AEko_biztanleria_lurralde-eremuen_adin-talde_handien_eta_sexuaren_arabera_2011/tbl0008458_e.html#axzz2svkBChEV
[46] Atal honetan, 2007-2008 eta 2011-2012 ikasturteko datuekin erkatuko ditugu EUSTATenak, 2006 eta 2011koak ematen ditu-eta.
[47] EUSTATeko datuen arabera,EAEn 65 urtetik gorakoak % 18,60 ziren 2006an, eta % 19,79 2011n.

*2.13.2. Ikasleen adinaren batez bestekoaren bilakaera 1994-2013*




Grafiko honetan, argi ikusten da nola egin duen gora ikasleen adinak urtetik urtera.1994-1995 ikasturtean ikasten ari ziren ikasleek 27 urte zituzten, batez beste;eta 2012-2013an, aldiz, 37. Hemezortzi urtean, 10 urte egin du gora ikasleen batez besteko adinak.

*2.14. Ikasleak, hasiera-maila eta adinaren arabera*

Atal honetan, ikasleen adina eta hasiera-maila gurutzatu ditugu, azterraldian zer-nolako adin-banaketa eman den Curriculumeko sei mailetan aztertu ahal izateko. Horrela, jakin nahi izan dugu euskalduntze-maila bakoitzean zer-nolako banaketa dagoen, adin-tarteka.

| | 16-20 | 21-30 | 31-40 | 41-55 | 56-65 | >66 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 938 | 4.894 | 9.198 | 8.746 | 1.838 | 943 |
| A2 | 1.214 | 4.850 | 10.132 | 9.446 | 1.715 | 857 |
| B1 | 2.457 | 9.415 | 16.919 | 16.200 | 1.856 | 573 |
| B2 | 6.092 | 13.606 | 17.196 | 16.430 | 1.521 | 543 |
| C1 | 15.046 | 15.695 | 12.836 | 10.748 | 837 | 209 |
| C2 | 18 | 693 | 1077 | 730 | 40 | 2 |

Aurreko taulako kopuruen irakurketa errazte aldera, hona hemen dagozkien ehunekoak.

| | 16-20 | 21-30 | 31-40 | 41-55 | 56-65 | >66 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 3,53 | 18,43 | 34,63 | 32,93 | 6,92 | 3,55 | 100 |
| A2 | 4,30 | 17,19 | 35,91 | 33,48 | 6,08 | 3,04 | 100 |
| B1 | 5,18 | 19,85 | 35,68 | 34,16 | 3,91 | 1,21 | 100 |
| B2 | 11,00 | 24,56 | 31,05 | 29,66 | 2,75 | 0,98 | 100 |
| C1 | 27,17 | 28,35 | 23,18 | 19,41 | 1,51 | 0,38 | 100 |
| C2 | 0,70 | 27,07 | 42,07 | 28,52 | 1,56 | 0,08 | 100 |

2007-2008 eta 20012-2013 ikasturte bitartean, A1 eta B2 maila bitartean 31-55 adin-tartekoak nagusitzen dira (mailaren arabera, izena emandakoen % 61 eta % 68), eta C1 mailan, aitzitik, 16-20 eta 21-30 urte bitarteko ikasleen multzoak nabarmentzen dira; izan ere, 16-20 urte bitarteko ikasleen % 27k izena eman du C1 mailan, eta 21-30 urte bitarteko ikasleen % 28k. Guztira, C1 mailan izena emandakoen % 56 osatzen dute 16 eta 30 urte bitartekoek. Azkenik, C2 mailan, deigarria da 31-40 urte bitartekoen ehunekoa (% 42), zeren eta alde handia ateratzen baitio (6 puntu) taulako hurrengo portzentajerik handienari.




Era berean, jakin nahi izan dugu zenbatekoa den adin-tarte bakoitzaren itzala euskara-mailetan.

| | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16-20 | 3,64 | 4,71 | 9,54 | 23,64 | 58,40 | 0,07 | 100,00 |
| 21-30 | 9,96 | 9,87 | 19,15 | 27,68 | 31,93 | 1,41 | 100,00 |
| 31-40 | 13,66 | 15,04 | 25,12 | 25,53 | 19,06 | 1,60 | 100,00 |
| 41-55 | 14,04 | 15,16 | 26,00 | 26,37 | 17,25 | 1,17 | 100,00 |
| 56-65 | 23,54 | 21,97 | 23,77 | 19,48 | 10,72 | 0,51 | 100,00 |
| >66 | 30,16 | 27,41 | 18,32 | 17,36 | 6,68 | 0,06 | 100,00 |

Ehunekoek argi uzten dute zenbat eta gazteago izan ikaslea, orduan eta gorago dabilela euskalduntze-prozesuaren mailetan, eta, aitzitik, zenbat eta zaharragoa izan ikaslea, orduan eta beherago.

Taulan ikus daitekeen bezala, 16-30 urte bitartekoak dira nagusi C1 eta B2 mailetan, eta bereziki deigarria egiten da 16-20 urte bitartekoen ehunekoa, adin horietako ikasleen % 58 baitira C1 mailan ibilitakoak. Gero, 31-55 adintartekoak nagusitzen dira B2 eta B1 mailetan (adin horietako ikasleen % 25 - % 26). Bestalde, 56 urtetik gorakoak A1-A2-B1 mailetan nabarmentzen dira.

Aurreko atalean, adierazia dugu 37 urtekoa dela ikaslearen batez besteko adina 2012-2013an. Datu hori kontuan harturik, jakin nahi izan dugu zer mailatan aritu diren 37 urtetik beheragokoak, zeren eta adin horietako ikasleek izan baitute eskolako hizkuntza-ereduren bat ezagutzeko. Ondoko taulan laburbildu ditugu 16-40 urte bitartekoen banaketa[48], mailaka.

| | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16-40 | 10,56 | 11,38 | 20,24 | 25,93 | 30,63 | 1,26 | 100,00 |

Datuen arabera, argi ikusten da C1 mailan aritu direla 16-40 urte bitarteko ikaslerik gehientsuenak (% 31) eta A1 mailan, aitzitik, kopururik txikiena (% 11), goitik beherako hurrenkeran. C2 maila berezia denez gero, ez dugu kontuan hartuko.

## 2.15. Ikasleak, hasiera-maila eta ikasketa akademikoen arabera[49]

Atal honetan, ikasleen ikasketa akademikoak eta hasiera-maila gurutzatu ditugu, azterraldian Curriculumeko sei mailetako ikasleek zer-nolako ikasketa-prestakuntza duten aztertu ahal izateko.

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 5.607 | 3.535 | 6.458 | 7.031 | 3.931 | 26.541 |
| A2 | 6.918 | 4.608 | 8.230 | 5.846 | 2.589 | 28.191 |
| B1 | 13.557 | 9.226 | 13.949 | 7.253 | 3.420 | 47.405 |
| B2 | 15.990 | 11.959 | 15.013 | 8.335 | 4.057 | 55.354 |
| C1 | 16.394 | 10.886 | 12.847 | 10.651 | 4.549 | 55.327 |
| C2 | 1.813 | 464 | 119 | 51 | 111 | 2.558 |

Hona hemen kopuru horiei dagozkien ehunekoak.

[48] Ikasle guztien % 66 dira 16-40 urte bitartekoak.
[49] 1 Lizentziadunak; 2 Diplomadunak; 3 UBI, LHII; 4 Eskola-graduatuak, LHI; 5 Beste.

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| **A1** | 21,13 | 13,31 | 24,33 | 26,49 | 14,81 |
| **A2** | 24,54 | 16,34 | 29,19 | 20,74 | 9,18 |
| **B1** | 28,60 | 19,46 | 29,43 | 15,30 | 7,21 |
| **B2** | 28,89 | 21,6 | 27,12 | 15,06 | 7,33 |
| **C1** | 29,63 | 19,68 | 23,22 | 19,25 | 8,22 |
| **C2** | 70,88 | 18,14 | 4,65 | 1,99 | 4,34 |

Euskara-maila eta ikasketa akademikoen banaketari dagokionez, argi azaltzen da aztergai ditugun bi aldagai horien arteko lotura, zeren eta zenbat eta euskara-maila altuagoa izan, orduan eta gehiagok baitute goi-mailako titulazioa. Ikusi besterik ez dago, esaterako, lizentziadunen lehen zutabean zer-nolako progresioa dagoen beheko ikasmailetatik gorakoetara, edota A1 mailan zenbatek ez duten erantzuten edota zenbatek dioten ikasketa akademikorik baxuena dutela[50]. Horrela, argi ikus daiteke nolako progresioa dagoen ikasketa-mailarik baxuenaren zutabean beheko mailetatik goikoetara.




Horrela, bada, adinaren eta ikasketen parametroak gurutzatuta, honela laburbil genezake mailakako argazkia:

a) Adinari dagokionez, zenbat eta gazteagoa izan ikaslea, orduan eta gorago dabil euskalduntze-prozesuaren mailetan, eta aitzitik, zenbat eta zaharragoa izan ikaslea, orduan eta beherago.

[50] A1 mailan, % 26,49k dio eskola-graduatua edo LHI duela, eta % 14,81ek, berriz, *Beste* laukia du aukeratua. Nabarmena da gainerako mailekiko aldea.

b) Ikasketei dagokienez, zenbat eta euskara-maila altuagoa izan, orduan eta gehiagok dute goi-mailako titulazioa, eta, alderantziz, zenbat eta euskara-maila baxuagoa izan, orduan eta ikasketa akademiko baxuagoa dute.

### 2.16. Matrikulak, mailaka[51]

Lehenik eta behin, ohar bat: matrikulatuen kopuruetatik kanpo utzi ditugu 501 kodea duten ikastaroei dagozkienak[52], ohiko euskalduntze-prozesutik at gauzatzen baitira. Hirugarren mailatik gorako ikastaro labur eta bereziak izan ohi dira, eta ez dute HABEren diru-laguntzarik jasotzen, hainbat arrazoi tarteko: gutxienekora heltzen ez delako HABEk eskatutako ikastaroaren ordu-kopurua edota ikasle-kopurua, edo ikastaroa beste erakunde batek finantzatzen duelako, edo… Adibide gisa, 501 ikastaro moduan erregistratukoa izan liteke hitanoa lantzeko 10 orduko ikastaroa, edo udal bateko langileak euskaraz idazten trebatzeko 15 ordukoa, edo IRALEko hainbat talde berezi, etab.




2007-2008 eta 2012-2013 ikasturte bitartean, HABEren Curriculum berriaren (HEOC 2014)[53] mailaketaren arabera, C1 mailan matrikulatu da ikaslerik gehien (% 28) EAEko euskaltegietan euskara ikasteko, eta, ondoren, ho-

[51] Aztergai dugun epean, ikasleek egindako matrikulen guztizko kopurua (272.882) oinarri hartuta atera dira ehunekoak.
[52] 501 ikastaroetan ibilitako ikasleak: 2007-2008an, 1.050 ikasle; 2008-2009an, 822; 2009-2010ean, 596; 2010-2011n, 676; 2011-2012an, 846; eta 2012-2013an, 905.
[53] Honela dio HEOC 2014 izeneko dokumentu-zirriborroak: *Ikas/irakas-eduki eta helburu-mailan, Oinarrizko Curriculum honek indarrean jartzen dituen euskararen gaitasun-mailak Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan zehaztutako A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen gidalerroetan oinarritu dira, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitu.*

nako maila hauetan, kopururik handiena biltzen duenetik txikienera eginez, hurrenez hurren: B2 (% 27), B1 (% 21), A2 (% 11), A1 (% 10) eta, azkenik, C2 (% 2).

Maila baxuetan ikasten hasitako matrikula-kopuruaren kalkulua egiteko, esaterako, batu egin beharko ditugu hasierako mailetako zenbatekoak. Horrela, bada, A1 eta A2 mailak gehituz gero, matrikulen % 22 egin ziren hasierako bi maila horietan, 2007-2013 bitartean. Eta, horrezaz gain, A1 + A2 + B1 gehituta, matrikulen % 43 biltzen dira hasierako lehen hiru mailetan.

Hurrengo taulan ikus litekeen bezala, aztergai ditugun muturreko bi ikasturteak erkatuz gero, honako bilakaera ikusten da, matrikula-kopuruei dagokienez: behera egiten dute A1, A2, B1 eta B2 mailetako matrikula-kopuruek eta, aitzitik, gora C1 eta C2koek.

| Hasierako maila | 2007-2008 | | 2012-2013 | |
|---|---|---|---|---|
| A1 | 5.009 | % 11,24 | 3.908 | % 9,70 |
| A2 | 5.545 | % 12,44 | 4.553 | % 11,30 |
| B1 | 10.295 | % 23,10 | 8.071 | % 20,03 |
| B2 | 12.051 | % 27,04 | 10.400 | % 25,81 |
| C1 | 11.527 | % 25,86 | 11.978 | % 29,73 |
| C2 | 140 | % 0,31 | 1.385 | % 3,44 |
| Guztira | **44.567** | **100,00** | **40.295** | **100,00** |

Esaterako, A1 mailan, 2007-2008an 5.009 matrikula egin ziren (matrikula guztien % 11,24) eta 2012-2013an, berriz, 3.908 (matrikula guztien % 9,70). Edota, C2 mailan, 2007-2008an 140 matrikula egin ziren (% 0,31) eta 2012-2013an, aldiz, 1.385 (% 3,44).



Lan honen hasieran genioena gogoratuz, 2012-2013 ikasturtean, 4.187 ikasle gutxiago aritu dira euskara ikasten EAEko euskaltegietan; betiere, 2007-2008 ikasturteko kopuruarekin erkatuta. Beste modu batera esateko, % 11,45 gutxitu da ikasle-kopurua aztergai dugun seiurtekoan. Eta ikasle horiek egindako matrikulen gorabeherek egoera hori besterik ez dute islatzen. Ondorioz, datuek begien bistan jarri dute, batetik, euskalduntze-prozesuaren lehen lau mailetan gertatu dela ikasle-galera hori eta, bestetik, gora egin dutela euskalduntze-prozesuaren goi-mailek.

Une batez, matrikulen ikuspegia albo batera utzi, eta, ikus dezagun nolakoa den ikasleriaren banaketa mailetan, azterraldiaren sei ikasturteetan ibilitako 215.553 ikasleak oinarri hartuta[54]:




Bestalde, aztergai ditugun muturreko bi ikasturteak erkatuz gero, honako bilakaera ikusten da, ikasle-kopuruei dagokienez.

Hurrengo taulan dago jasota 2000-2006 eta 2007-2013 ikasturteetako matrikula-kopuruaren alderaketa [55], azpimailaka.

[54] Sarrerako azken oharreko adibideko grafikoan ere emanak ditugu oinarri ezberdinez atera litezkeen emaitzak, nork bere analisia aberats dezan.

[55] Ehunekotan

| | 2000-2006 | 2007-2013 |
|---|---|---|
| A1A1 | 22,41 | 10,19 |
| A2A1 | 8,53 | 5,38 |
| A2A2 | 9,01 | 6,1 |
| B1A1 | 7,46 | 6,79 |
| B1A2 | 6,7 | 6,57 |
| B1B1 | 5,57 | 7,97 |
| B2A2 | 5,05 | 7,97 |
| B2B1 | 4,04 | 6,36 |
| B2B2 [56] | 8,03 | 12,33 |
| C1B1 | 5,11 | 7,27 |
| C1B2 | 4,75 | 5,71 |
| C1C1 | 13,19 | 15,51 |
| C2C1 [57] | 0,13 | 1,09 |
| C2C2 | - | 0,77 |

### *2.17. Matrikulen trinkotasun[58]*

Azter dezagun zer-nolako bilakaera izan duten matrikulek azterraldian.




[56] Bigarren mailan (B2) txertatu dira Alfabetatzen-1eko kopuruak (201 kodea dutenak) eta hirugarren mailan (C1), aldiz, Alfabetatzen-2koak (202 kodea dutenak), HABEren zuzendari nagusiak ikasleen euskara-mailak egiaztatzeko deialdia egiten duen ebazpenetan ezarri izan den moduan.

[57] 2005-2006 ikasturtean jarri zen abian lehen aldiz laugarren maila EAEko euskaltegietan.

[58] Kopuru hauek kalkulatzeko, matrikula-kopuruetan (272.882) oinarritu gara.

Ikasturtez ikasturteko ehunekoak, honako taula honetan jaso ditugu[59].




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1-6 ordukoak | 19,21 | 20,72 | 21,06 | 21,22 | 22,9 | 25,05 |
| 7-9 ordukoak | 8,65 | 9,56 | 9,31 | 9,07 | 9,02 | 9,14 |
| 10-19 ordukoak | 36,93 | 34,51 | 33,46 | 32,61 | 31,09 | 29,21 |
| 20tik gorakoak | 6,89 | 7,17 | 8,27 | 8,12 | 7,94 | 7,68 |
| Barnetegiak | 3,99 | 3,23 | 3,58 | 3,98 | 3,42 | 3,46 |
| Autoikaskuntza * | 11,03 | 11,78 | 11,96 | 11,75 | 12,47 | 12,77 |
| Udako trinkoak | 9,36 | 9,45 | 9,15 | 9,81 | 10,02 | 9,46 |
| Udako barnetegiak | 3,94 | 3,58 | 3,21 | 3,44 | 3,14 | 3,23 |

Horrela, bada, ikastaroen trinkotasunari dagokionez, gero eta trinkotasun txikiagoko erritmoak ari dira indartzen. Muturreko bi ikasturteei erreparatuz gero, begien bistakoa da joera: nagusiki, ugaritu egin dira 1-6 ordukoak eta autoikaskuntza-ikastaroak, eta gutxitu 10-19 ordukoak[60].

Bestalde, jakin nahi izan dugu zer mailatan biltzen diren autoikaskuntzan egindako matrikula horiek guztiak.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 16,91 | 14,25 | 12,59 | 9,69 | 9,68 | 9,92 |
| A2 | 21,44 | 19,09 | 16,40 | 15,93 | 15,66 | 14,41 |
| B1 | 28,50 | 27,83 | 26,56 | 26,37 | 24,97 | 23,71 |
| B2 | 19,83 | 20,17 | 21,96 | 22,51 | 21,71 | 22,27 |
| C1 | 12,92 | 14,36 | 15,76 | 16,86 | 15,57 | 15,72 |
| C2 | 0,40 | 4,30 | 6,73 | 8,65 | 12,42 | 13,97 |

Taula horretan ikus daitekeen bezala, kopururik handienetik txikienera eginez, B1 eta B2 mailetan biltzen dira autoikaskuntzan egindako matrikularik gehien.

[59] Autoikaskuntza ez da berez trinkotasun-adierazle bat, modalitate bat baizik. Dena den, eta, jardun osoaren isla gordetze aldera, hortxe laga dugu.

[60] Era berean, izan dira aldaketa txikiago batzuk: batetik, ugaritu egin dira 20 ordutik gorakoak (+0,79 puntu) eta udako trinkoak (+0,1) , eta, bestetik, gutxitu egin dira barnetegiak (-0,53) eta udako barnetegiak (-0,71).

## 3.- Ikasle berriak

Euskaltegian lehen aldiz matrikulaturiko ikasleak izendatzen ditugu *ikasle berri* moduan. Hortaz, *ikasle*[61] eta *ikasle berri* terminoak bereiziko ditugu, hemendik aurrera.

Atal honetan, ikasle horien ezaugarriak aztertuko ditugu: zenbat diren, adina, ikasketak, hizkuntza-ereduak, jaioterria eta zer mailatan hasi diren euskara ikasten. Izan ere, euskalduntze-prozesuan murgildurik dabiltzan ikasleen joerak atzemanten lagun diezaguke ikuspegi honek.

### 3.1. Ikasle berrien kopurua

| 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|
| 10.313 | 12.070 | 12.370 | 11.352 | 10.538 | 9.102 |

Ikasle guztien laurdena baino gehixeago izaten dira lehen aldiz matrikulatzen diren ikasle berriak. Aztertutako sei ikasturteetan, % 28 eta % 31 bitartean.




[61] *Ikasle* terminoa erabiltzean, ez da inolako bereizketarik egiten.

## 3.2. Ikasle berrien adina

| | 16-20 | 21-30 | 31-40 | 41-55 | 56-65 | 66> |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 29,74 | 28,35 | 23,10 | 15,10 | 2,79 | 0,92 |
| 2008-2009 | 29,14 | 30,20 | 22,96 | 14,14 | 2,54 | 1,02 |
| 2009-2010 | 29,82 | 29,95 | 23,16 | 13,18 | 2,73 | 1,17 |
| 2010-2011 | 31,40 | 31,87 | 21,54 | 11,41 | 2,66 | 1,12 |
| 2011-2012 | 29,16 | 29,09 | 24,04 | 13,55 | 3,01 | 1,15 |
| 2012-2013 | 30,43 | 25,65 | 23,46 | 14,82 | 3,83 | 1,80 |

Euskaltegietan lehen aldiz matrikulatutako ikasle berrien adina ikasturtez ikasturte aztertuz gero, begien bistakoa da adin-tarterik gazteenetan biltzen direla ikaslerik gehienak urterik urte. 2012-2013 ikasturtean, esaterako, behetik gorako hurrenkeran multzokatzen dira ikasle berriak: 16-20 urte bitarteko adin-tartean biltzen dira ikaslerik gehienak (% 30), ondoren 21-30 tartean (% 26), gero 31-40koan (% 23), segidan 41-55ekoan (% 15), gero 56-65ekoan (% 4) eta, azkenik, 66 urtetik gorakoan biltzen da % 2.

Hurrengo irudian, ikasle berrien adinaren batez bestekoak, 2007-2008 / 2012-2013 azterraldikoak laburbilduta.




Euskaltegietako ikasleen guztizko kopuruekin erkatuz gero, gazteagoa da lehen aldiz matrikulatzen den ikasle berria, zeren eta 16-30 urte artean biltzen baitira ikasle berri gehienak[62].

[62] Euskaltegietako ikaslerik gehienak 31-55 adin-tartean biltzen dira.

### 3.3. Ikasle berrien ikasketak

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziadunak | 22,01 | 19,86 | 19,06 | 20,40 | 19,51 | 20,59 |
| Diplomadunak | 14,77 | 14,1 | 13,47 | 13,55 | 14,02 | 12,18 |
| UBI edo LH II | 25,77 | 26,74 | 26,44 | 26,99 | 25,70 | 25,69 |
| Eskola-graduatuak, LH I | 27,23 | 27,52 | 28,29 | 26,33 | 27,20 | 27,26 |
| Beste | 10,23 | 11,78 | 12,74 | 12,72 | 13,56 | 14,28 |

Azken ikasturteari erreparatuz gero, euskaltegietan lehen aldiz matrikulatu diren ikasle berrien multzorik handienak eskola-graduatua du (% 27), gero UBI edo LHII dutenak ditugu (% 26), ondoren lizentziadunak datoz (% 21), jarraian diplomadunak (% 10) eta, azkenik, irakasleak (% 2). Muturreko bi ikasturteak aztertuta, behera egin du unibertsitate-maila[63] duten ikasle berrien zenbatekoak (-4,01 puntu).

Dena dela, ikasleen guztizko datuaren norabide berean koka genezake beherakada hori, ikasleen multzoan 3,29 puntu txikitzen baita unibertsitate-ikasketak dituztenen ehunekoa. Eta ezin ahantzi *beste* aukeratu dutenek gora egin dutela sei ikasturte hauetan: 2007-2008an % 10 ziren eta 2012-2013an, aldiz, % 14 (4,05 puntu). Besterik gabe, deigarri egiten da ia proportzio berean agertzea gorabehera hauek, bai 4,05 puntu gora, bai 4,01 puntu behera.

Hurrengo irudian, ikasle berrien ikasketei buruzko datuak, 2007-2008 / 2012-2013 azterraldikoak laburbilduta.




[63] Lizentziadunak, diplomadunak eta irakasle-ikasketak egindakoak. 2007-2008an, ikasle berrien % 37 ziren unibertsitate-ikasketak zituztenak eta, 2012-2013an, berriz, % 33.

### 3.4. Ikasle berrien hasierako maila[64]

| | 2007-08 | 2008-09 | 2009-10 | 2010-11 | 2011-12 | 2012-13 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 32,43 | 30,78 | 27,04 | 23,58 | 27,18 | 28,66 |
| A2 | 13,40 | 12,35 | 11,87 | 12,10 | 12,47 | 12,56 |
| B1 | 12,33 | 12,89 | 12,83 | 12,91 | 13,39 | 11,89 |
| B2 | 15,50 | 16,81 | 17,94 | 19,57 | 19,75 | 16,96 |
| C1 | 25,85 | 26,49 | 29,04 | 29,91 | 25,21 | 27,52 |
| C2 | 0,49 | 0,68 | 1,27 | 1,93 | 2,00 | 2,41 |

Kopuruei eta mailei erreparatuz gero, ikasturtez ikasturteko ikuspegiak erakusten du ikasle berri gehienak A1 mailan matrikulatzen direla, gero C1 mailan, ondoren B2 mailan, segidan A2 mailan, gero B1 mailan eta, azkenik, C2 mailan.

| | 2007-2008 | | 2012-2013 | | ALDEA |
|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | Kopurua | % | |
| A1 | 3.254 | 32,43 | 2.547 | 28,66 | -3,77 |
| A2 | 1.345 | 13,40 | 1.116 | 12,56 | -0,84 |
| B1 | 1.237 | 12,33 | 1.057 | 11,89 | -0,44 |
| B2 | 1.555 | 15,50 | 1.507 | 16,96 | 1,46 |
| C1 | 2.594 | 25,85 | 2.446 | 27,52 | 1,67 |
| C2 | 49 | 0,49 | 214 | 2,41 | 1,92 |

Aztergai ditugun 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturteak erkatuz gero, argi ikusten da zer-nolako joera hartu duten ikasle berrien matrikulazioek: behera egiten dute maila baxuetan matrikulatutakoen ehunekoak (A1, A2 eta B1)eta gora, berriz, gainerakoek (B2, C1 eta C2).

Hurrengo irudian laburbildu dugu hasiera-mailaren araberako ikasle berrien banaketa, 2007-2013 azterraldian.

[64] Ehunekotan.




2007-2008 eta 2012-2013 bitartean, % 53 dira A1 + A2 + B1 mailetan matrikulatutako ikasle berriak[65], eta B2koak gehituz gero, % 71.

## 3.5. Ikasle berrien hizkuntza-eredua

| | 2007-2008 | | 2008-2009 | | 2009-2010 | | 2010-2011 | | 2011-2012 | | 2012-2013 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| A ereduan | 3.140 | 30,48 | 3.617 | 30,03 | 3.577 | 28,94 | 3.294 | 29,05 | 3.188 | 30,28 | 2.613 | 28,74 |
| B ereduan | 1.078 | 10,46 | 1.378 | 11,44 | 1.362 | 11,02 | 1.516 | 13,37 | 1.401 | 13,31 | 1.098 | 12,08 |
| D ereduan | 2.787 | 27,05 | 3.554 | 29,50 | 4.237 | 34,28 | 3.919 | 34,56 | 3.218 | 30,57 | 2.792 | 30,71 |
| Erdaraz | 3.297 | 32,00 | 3.497 | 29,03 | 3.183 | 25,75 | 2.611 | 23,02 | 2.720 | 25,84 | 2.588 | 28,47 |

Euskaltegian lehen ikasturtea egiten hasi diren ikasle berriak hezkuntza formalean zer hizkuntza-eredutan arituak diren ikasten aztertuko dugu jarraian. 2007-2008an, ikasle berri gehienak erdarazko X ereduan ibilitakoak dira (% 32), gero A ereduan biltzen da multzorik handiena (% 30), ondoren D ereduan (% 27) eta, azkenik, B ereduan ibilitakoek osatzen dute multzorik txikiena (% 10). Eta 2012-2013an, berriz, D ereduan ibilitakoek osatzen dute multzorik handiena (% 31)[66], gero A ereduan ibilitakoek (% 29)[67], ondoren erdarazko X ereduan aritutakoek (% 28)[68] eta, azkenik, B ereduan aritutakoek osatzen dute multzorik txikiena (% 12)[69].

[65] Ikasleen orotariko datuekin erkatuta, esaterako, % 45,5 dira 2012-2013an A1 + A2 + B1 mailetan matrikulatutako ikasleak.
[66]+ 3,66 puntu azterturiko sei ikasturteotan.
[67]-1,74 puntu.
[68]-3,53 puntu.
[69]+1,62 puntu.

A eta erdarazko X ereduetan aritutako ikasle berriak multzokatuz gero, 2007-2008an guztien % 62 ziren, eta2012-2013an guztien % 57. Beraz, aztergai dugun epealdian, 5 puntu txikitu da bi eredu horietan ikasitako ikasle berrien kopurua.

Eta, ikasleen orotariko datuekin erkatuz gero ere, argi ikusten da ikasle berrietan behera egiten duela aipatu bi ereduotan ibilitakoen kopuruak. Esate baterako, 2012-2013an, ikasleen % 74 ibili ziren A eta erdarazko X ereduan, baina, aitzitik, % 57 dira ikasle berrietan (-16,71 puntu). Hurrengo irudian ikus genitzake gorabehera hauek guztiak.




B eta D ereduetan ibilitako euskara-ikasleen ehunekoek gora egin dute, bai orotara, bai ikasle berrietan. Orotara, % 15 ziren D ereduan ikasitakoak 2012-2013an, eta % 9 B eredukoak. Ikasle berriei erreparatuz gero, % 31 ziren D eredukoak eta % 12 Bkoak. Datuen taulan ikus daitekeen bezala, gainera, ez du etenik izan goranzko joera honek.

Aztertzekoa litzateke zer dela-eta ari diren gertatzen goranzko eta beheranzko joera hauek, eta zer harreman duten ikasleen matrikulazio-jaitsierarekin. Dena dela, uste izatekoa da hezkuntza-sistemaren eragina antzematen ari dela, besteak beste.

Hurrengo irudian, ikasle berrien hizkuntza-ereduei buruzko datuak, 2007-2008 eta 2012-2013 bitarteko azterraldikoak laburbilduta.




### 3.6. Ikasle berrien jaioterria

| | 2007-2008 | | 2008-2009 | | 2009-2010 | | 2010-2011 | | 2011-2012 | | 2012-2013 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Araba | 1.157 | 11,22 | 1.348 | 11,17 | 1.408 | 11,38 | 1.256 | 11,06 | 1.174 | 11,14 | 960 | 10,55 |
| Bizkaia | 4.927 | 47,77 | 5.905 | 48,93 | 6.077 | 49,13 | 5.579 | 49,15 | 4.946 | 46,94 | 3.967 | 43,58 |
| Gipuzkoa | 2.104 | 20,40 | 2.374 | 19,67 | 2.711 | 21,92 | 2.567 | 22,61 | 2.295 | 21,78 | 2.122 | 23,31 |
| Nafarroa | 267 | 2,59 | 221 | 1,83 | 185 | 1,50 | 203 | 1,79 | 215 | 2,04 | 180 | 1,98 |
| Iparraldea | 26 | 0,25 | 26 | 0,22 | 27 | 0,22 | 24 | 0,21 | 27 | 0,26 | 27 | 0,30 |
| Atzerrian | 1.036 | 10,05 | 1.393 | 11,54 | 1.181 | 9,55 | 1.029 | 9,06 | 1.133 | 10,75 | 1.004 | 11,03 |
| Estatuan | 796 | 7,72 | 801 | 6,64 | 780 | 6,31 | 694 | 6,11 | 747 | 7,09 | 842 | 9,25 |

Ikasle berrien jatorriaren azterketa egitean, badira zenbait joera aipagarri, betiere aztergai ditugun muturreko bi ikasturteak erkatuta:

a) Behera egin du Bizkaian jaiotakoen ehunekoak(-4,19).

b) Gora egin du Gipuzkoan (2,91) eta Espainiako estatuan (1,53) jaiotakoen ehunekoak.

c) Gainerakoetan, mantendu egin dira portzentajeak.

Nabarmentzekoa da Bizkaian jaiotakoen beherakada, baita Gipuzkoan nahiz Espainiako estatuan jaiotakoen gorakada.

Eta ikasleen orotariko datuekin konparatuta, joera bertsua dakusagu: 2007-2013 artean, Gipuzkoan jaiotakoen multzoak 1,79 puntu egin du gora eta atzerrian jaiotakoenak 1,08.

Jarraian, ikasle berrien jaioterriari buruzko datuak 2007/2013 bitartean, laburbilduta.




## 4.- Irakasleak

### 4.1. Irakasle-kopurua




Azterraldiaren hasieratik bukaerara, 97 irakasle gutxiago daude irakaskuntzan euskaltegietan (% 7 gutxiago), nahiz eta epealdiko kopururik handiena eta txikienaren artean % 12,5eko aldea ere gertatu den.

## 4.2. Irakasleak ikasle-kopuruarekiko




Sei ikasturteak aztertuz gero, zertxobait txikitu da irakasleek izandako ikasle-kopuruaren batez bestekoa (-1,29 ikasle irakasleko): 2007-2008an 24,7koa zen, eta 2012-2013an, berriz, 23,5ekoa. Tarterik handiena ia bi ikaslekoa izan da.

## 4.3. Sexua




Emakumezkoen ehunekoak ez du gorabehera handirik izan ikasturte batetik bestera: % 69 ziren 2007-2008an eta % 68,5 2012-2013an.

## 4.4. Adina




Bistan denez, ikasleen moduan, zahartzen ari dira irakasleak urtetik urtera: 2007-2008 ikasturtean, 46 urtetik gorako irakasleak guztien % 24 ziren, eta 2012-2013 ikasturtean, berriz, % 48. Sei ikasturtean bikoiztu egin da adin-tarte hori. Hurrengo taulan, ehunekoak.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| < 30 | 17,49 | 19,19 | 19,05 | 16,38 | 13,62 | 9,87 |
| 30-35 | 16,07 | 15,27 | 14,86 | 14 | 13,55 | 14,01 |
| 36-40 | 17,63 | 14,3 | 12 | 13,08 | 11,9 | 11,1 |
| 41-45 | 24,95 | 23,96 | 22,67 | 19,42 | 18,02 | 16,69 |
| 46-50 | 15,59 | 16,91 | 19,49 | 21,86 | 23,73 | 24,75 |
| >51 | 8,27 | 10,37 | 11,94 | 15,25 | 19,19 | 23,59 |

Hamasei urtean, 1997tik 2013ra bitartean, hamaika urte zahartu da irakasleen batez besteko adina; ikus dezagun grafiko batean adinaren bilakaera hau.



**4.5. Ikasketa akademikoak**

Lizentziadunak dira irakaslerik gehientsuenak; esaterako, 2012-2013an, % 58.




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziadun | 56,34 | 57,95 | 58,24 | 58,28 | 58,31 | 57,79 |
| Diplomadun | 31,74 | 31,08 | 31,11 | 31,26 | 31,03 | 31,17 |
| Homologatu | 11,92 | 10,97 | 10,65 | 10,46 | 10,66 | 11,05 |

**4.6. Irakasleak 2012-2013**

Jarraian, 2012-2013 ikasturtean eskolak ematen aritutako irakasleriaren profil zehatzagoa.Aipatu ikasturtean emakumezkoak 944 izan dira eta gizonezkoak, aldiz, 434.

**4.6.1. Sexua**



### 4.6.2. Jatorria

| | | |
|---|---|---|
| Araba | 101 | 7,82 |
| Gipuzkoa | 489 | 37,88 |
| Bizkaia | 659 | 51,05 |
| Nafarroa | 18 | 1,39 |
| Iparraldea | 3 | 0,23 |
| Atzerria | 3 | 0,23 |
| Espainia | 18 | 1,39 |

| | |
|---|---|
| Gaztela eta Leon | (6) |
| Madrilgo Erkidegoa | (4) |
| Errioxa | (2) |
| Extremadura | (1) |
| Galizia | (1) |
| Aragoi | (1) |
| Katalunia | (1) |
| Asturias | (1) |
| Andaluzia | (1) |




| | Araba | Atzerria | Bizkaia | Estatua | Gipuzkoa | Iparral. | Nafarroa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasleak | 12,34 | 5,26 | 49,63 | 9 | 21,89 | 0,14 | 1,75 |
| Irakasleak | 7,82 | 0,23 | 51,05 | 1,39 | 37,88 | 0,23 | 1,39 |

### 4.6.3. Bizitokia




Bizkaian bizi izan dira irakasle gehien (685) ikasturte horretan; Gipuzkoan 409, Araban 179, Nafarroan 12 eta Iparraldean 5.

### 4.6.4. Adina

| Urteak | Kop. | % |
|---|---|---|
| 15-19 | 0 | 0,00 |
| 20-24 | 13 | 0,94 |
| 25-29 | 123 | 8,93 |
| 30-34 | 166 | 12,05 |
| 35-39 | 153 | 11,10 |
| 40-44 | 198 | 14,37 |
| 45-49 | 330 | 23,95 |
| 50-54 | 252 | 18,29 |
| 55-59 | 107 | 7,76 |
| 60-64 | 30 | 2,18 |
| > 64 | 6 | 0,44 |

Ikasle-irakasleen adina alderaketa eginez gero, hurrengoa dugu:




2012-2013an, ikasleen batez besteko adina 37 urtekoa zen, eta irakasleena, berriz, 43koa.

### 4.6.5. Ikasketa akademikoak




Kopuruei dagokienez, 790 irakasle dira ikasketaz lizentziadunak, 426 diplomadunak eta 151 HABEren habilitazio-proben bitartez homologatuak.

### 4.6.6. Dedikazioa




Dedikazioari dagokionez[70], irakasleen % 26 dabil 350 eskola-ordu edo gutxiago ematen (beraz, egunean bi eskola-ordu); % 40, berriz, 351-700 eskola-ordu bitarteko dedikazioaz (700 ematen dituztenek egunean 4 eskola-ordu); % 27k, aldiz, 701 eta 1.000 eskola-ordu bitartean ematen ditu; eta, azkenik, irakasleen % 6 dabil 1.000 ordutik gora ematen (1.000 ematen dituztenek egunean 5 eskola-ordu eta erdi).

[70] Erreferentzia gisa bada ere, gutxi-asko, 735 eskola-ordu eman behar izaten dituzte ikasturtean zehar euskaltegi publikoetako irakasleek, urriaren 1etik irailaren 30era. Pribatuetan, dedikazio-mota ugari dago, baina esan liteke zabaldua dagoela egunean 5 bat eskola-ordu emateko eredua. Hala ere, asko dira 2, 4 edo 6 eskola-ordu ematen dituztenak. Udako ikastaroak aparte kudeatzen dira.

### 4.6.7.Eskarmentua




Esperientzia handiko irakasleak ari dira lanean euskaltegietan, eta geroz eta irakasle berri gutxiago sartzen dira helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrera. Hala ere, irakasleen % 20 berritu da bost urtean, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

| Esperientzia | Kopurua | % | % metatua |
|---|---|---|---|
| 1 urte | 32 | 2,48 | 2,48 |
| 2 urte | 43 | 3,33 | 5,81 |
| 3 urte | 47 | 3,64 | 9,45 |
| 4 urte | 69 | 5,34 | 14,79 |
| 5 urte | 64 | 4,96 | 19,75 |

Euskalduntze-alorrera irakasle berri gutxiago sartzeko joera hori argi ikusten da atzera egin eta 2000-2001/2006-2007 ikasturteen azterketan jasotako datuak (Elortza eta Perales, 2008: 32) aztertuz gero.

| Esperientzia | 2000-2001/2006-2007 | | 2007-2008/2012-2013 | |
|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | Kopurua | % |
| 1 urte | 109 | 7,65 | 32 | 2,48 |
| 2 urte | 90 | 6,32 | 43 | 3,33 |
| 3 urte | 57 | 4,00 | 47 | 3,64 |

## 5.- Euskaltegiak EAEn




Irudian ikusten den moduan, 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturteen artean, lau euskaltegi gutxiago azaltzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan. Dena dela, euskaltegi horiek ez dira itxi, eta zabalik dituzte ateak, nahiz eta horien zerbitzua beste euskaltegi batzuen bidez eskaintzen den egun.

## 6.- Lorpen-emaitzak

### 6.1. Euskaltegien ebaluazioa

Izenburuak adierazten duen bezala, lorpen-emaitzen lehen atala garatzeko, euskaltegietako ebaluazioan oinarrituko gara; hau da, euskaltegiek HABEren aplikazio informatikoan sartuak dituzten datuetan.

Lanaren hasieran adierazi moduan, gogoratu kanpoan laga ditugula 500 kodedun ikastaroen datuak, oso trinkotasun txikiko ikastaroak direlako eta maila-izaerarik ez dutelako HABEren Curriculumaren baitan.

*6.1.1. Lortutako azpimailak ikasturtez ikasturte, hasiera-mailaren arabera*




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 1.925 | 1.546 | 862 | 409 | 97 |
| A2 | 1.361 | 1.933 | 1.124 | 388 | 244 |
| B1 | 2.025 | 3.165 | 1.979 | 814 | 424 |
| B2 | 2.009 | 3.488 | 2.154 | 867 | 491 |
| C1 | 1.876 | 4.346 | 1.368 | 555 | 0 |
| C2 | 64 | 60 | 0 | 0 | 0 |

Ikasturte horretan, ikasle-kopururik handienak gainditu du azpimaila bat (14.538 ikaslek). Hurrengo multzo handiena ezer gainditu ez dutenek osatzen dute (9.260). Horien artean, deigarria da A1 mailakoena, ia % 40k ez baitzuen maila hori gainditu. Jarraian daude 2 azpimaila gainditu dituztenak (7.487), hiru gainditu dituztenak (3.033) eta hiru baino gehiago gainditu dituztenak(1.256).




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 2.245 | 1.615 | 859 | 395 | 119 |
| A2 | 1.318 | 2.084 | 1.229 | 320 | 310 |
| B1 | 1.856 | 3.304 | 2.080 | 845 | 498 |
| B2 | 1.938 | 3.802 | 2.393 | 973 | 490 |
| C1 | 2.185 | 5.129 | 1.446 | 528 | 0 |
| C2 | 103 | 127 | 0 | 0 | 0 |

2008-2009 ikasturtean euskaltegietan ibilitako 38.191 ikasleetatik 16.062k lortu zuten azpimaila bat gainditzea, 9.645ek ez zuten ezer gainditu, 8.007k bi azpimaila gainditu zituzten eta, 3.061ek hiru eta 1.417k hiru baino gehiago.

Aurreko ikasturtean bezalaxe, A1 mailan ibilitako ikasleek osatzen dute ezer gainditu ez dutenen multzorik handiena (2.245 ikasle, mailan ibilitakoen % 43). Halaber, ikasle-kopururik handiena C1 mailan azpimaila bat gainditu dutenek osatzen dute (5.129 ikasle).




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 1.913 | 1.568 | 838 | 442 | 144 |
| A2 | 1.315 | 2.000 | 1.097 | 325 | 295 |
| B1 | 1.843 | 3.366 | 1.985 | 838 | 521 |
| B2 | 2.077 | 4.076 | 2.394 | 954 | 495 |
| C1 | 2.264 | 5.826 | 1.506 | 682 | 0 |
| C2 | 32 | 162 | 203 | 0 | 0 |

Euskaltegian ibilitako ikasleetatik 16.998 ikaslek lortu zuten azpimaila bat gainditzea, 9.444k ez zuten ezer gainditu, 8.023k bi azpimaila gainditu zituzten, 3.241ek hiru eta, azkenik, 1.455ek hiru baino gehiago.

Ikasturte honetan ere, ia bete-betean errepikatzen dira aurreko ikasturteetako joerak, nahiz eta A1 mailan ezer gainditu ez dutenen portzentajea ia lau puntuz jaisten den (% 39, aurreko ikasturteko % 43aren aurrean).

Azterraldian, ikasle gehien izan dituen ikasturtea izan da (39.161)




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 1.438 | 1.289 | 713 | 316 | 122 |
| A2 | 1.181 | 1.762 | 1.079 | 294 | 303 |
| B1 | 1.700 | 3.079 | 1.820 | 782 | 497 |
| B2 | 1.895 | 4.175 | 2.184 | 990 | 495 |
| C1 | 2.228 | 5.790 | 1.515 | 603 | 0 |
| C2 | 39 | 237 | 221 | 0 | 0 |

Aurreko ikasturtearekiko, 2.414 ikasle gutxiago aritu ziren ikasturte honetan.Euskaltegietan ibilitako ikasleetatik, 16.332 ikaslek lortu zuten azpimaila bat gainditzea (guztira, ibilitakoen % 44k), 8.481ek ez zuten ezer gainditu (guztiaren % 23k), 7.532k bi azpimaila gainditu zituzten (% 20,5ek), 2.985ek hiru eta 1.417k hiru baino gehiago.

Ikasturte honetan, A1 mailan ezer gainditu ez dutenen portzentajeak behera egiten du ia bi puntuz, % 37raino etorriz.




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 1.495 | 1.390 | 768 | 245 | 114 |
| A2 | 1.066 | 1.680 | 943 | 303 | 237 |
| B1 | 1.564 | 2.952 | 1.677 | 754 | 446 |
| B2 | 1.353 | 4.260 | 2.148 | 875 | 353 |
| C1 | 1.386 | 5.765 | 1.346 | 594 | 0 |
| C2 | 12 | 350 | 277 | 0 | 0 |

Aurreko ikasturteko ia ikasle-kopuru bera galdu zen euskaltegietan ikasturte honetan ere (2.394 ikasle gutxiago, aurreko ikasturtean baino). Azpimaila bat gainditu zutenen kopurua da handiena oraingoan ere (16.397), baina bi gainditu dituztenak (7.159) ezer gainditu ez dutenen zertxobait aurretik (6.876) ageri dira lehenengo aldiz (% 21 eta % 20).




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 1.313 | 1.328 | 659 | 301 | 92 |
| A2 | 978 | 1.700 | 903 | 248 | 198 |
| B1 | 1.389 | 2.769 | 1.532 | 579 | 359 |
| B2 | 1.366 | 3.803 | 1.776 | 728 | 391 |
| C1 | 1.407 | 5.500 | 1.119 | 415 | 0 |
| C2 | 11 | 372 | 291 | 0 | 0 |

Ikasturtean, 2.826 ikasle gutxiago daude, aurreko ikasturtean baino. Euskaltegietan ibilitako ikasleetatik 15.472 ikaslek lortu zuten azpimaila bat gainditzea (guztira, ibilitakoen %49k), 6.464k ez zuten ezer gainditu (guztiaren % 20,5), 6.280k bi azpimaila gainditu zituzten (% 20), 2.271k hiru eta 1.040k hiru baino gehiago.

Ikasturtean A1 mailan ezer gainditu ez dutenen portzentajea handia izan baldin bada ere (% 35,55), lehen aldiz, gehiago dira azpimaila gainditu dutenak (% 35,96), oso gutxigatik bada ere.

### 6.1.2. Lorpen-emaitzak, hasiera-mailaren arabera




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 39,78 | 42,9 | 39 | 37,08 | 37,26 | 35,55 |
| 1 | 31,95 | 30,86 | 31,97 | 33,24 | 34,65 | 35,96 |
| 2 | 17,81 | 16,42 | 17,08 | 18,39 | 19,14 | 17,84 |
| 3 | 8,45 | 7,55 | 9,01 | 8,15 | 6,11 | 8,15 |
| >3 | 2 | 2,27 | 2,94 | 3,15 | 2,84 | 2,49 |

Azpimailarik gabeko maila bakarra izaki, deigarria egiten da maila honetako ikasle-kopuru oso esanguratsuak maila ez gainditzea ikasturtean. Egiaztatze soiletik areago, gaiak gehixeago sakontzea eskatzen duelakoan, berariazko atal batean aztertuko dugu gehixeago atal honen amaieran.




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 26,95 | 25,05 | 26,13 | 25,57 | 25,21 | 24,29 |
| 1 | 38,28 | 39,61 | 39,75 | 38,15 | 39,73 | 42,22 |
| 2 | 22,26 | 23,36 | 21,8 | 23,36 | 22,3 | 22,42 |
| 3 | 7,68 | 6,08 | 6,46 | 6,37 | 7,16 | 6,16 |
| >3 | 4,83 | 5,89 | 5,86 | 6,56 | 5,6 | 4,92 |

Azterraldi osoan azpimailarik gainditu ez dutenen artean, esanguratsua da maila honetakoak izatea bigarren multzorik handiena. Dena den, ez da ahaztu behar mailak bi azpimaila dituela, edo, bestela esan, A1 maila egiteko 125 eskola-ordu aurreikusten diren moduan, A2 egiteko 200 aurreikusten dira. Bestalde, kontuan hartu behar da ezer gainditzen ez dutenen portzentajea nabarmen ezberdina dela A1 mailarekin alderatuz gero (11 eta 18 punturen arteko aldea, ikasturtearen arabera).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 24,09 | 21,62 | 21,55 | 21,58 | 21,16 | 20,96 |
| 1 | 37,65 | 38,49 | 39,35 | 39,08 | 39,93 | 41,78 |
| 2 | 23,54 | 24,23 | 23,21 | 23,1 | 22,68 | 23,11 |
| 3 | 9,68 | 9,85 | 9,8 | 9,93 | 10,2 | 8,74 |
| >3 | 5,04 | 5,8 | 6,09 | 6,31 | 6,03 | 5,42 |

B1 mailak hiru azpimaila ditu, gutxi-asko aurreko mailakoen eskola-ordu kopuru bertsua dutenak (100 bat eskola-ordu).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 22,3 | 20,2 | 20,78 | 19,46 | 15,05 | 16,94 |
| 1 | 38,72 | 39,62 | 40,78 | 42,87 | 47,39 | 47,16 |
| 2 | 23,91 | 24,94 | 23,95 | 22,43 | 23,9 | 22,02 |
| 3 | 9,62 | 10,14 | 9,54 | 10,17 | 9,73 | 9,03 |
| >3 | 5,45 | 5,11 | 4,95 | 5,08 | 3,93 | 4,85 |

Ezer gainditu ez dutenen portzentajea A2 mailan baino hiruzpalau puntu apalagoa da.

Aurreko mailak bezalaxe, hiru azpimaila ditu maila honek, baina bakoitzaren eskola-ordu kopurua handixeagoa da (133 eskola ordu, batez beste). Ezer gainditu ez dutenen portzentajea orain arteko apalena da, eta azpimaila bat gainditu dutenena orain arteko altuena.




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 23,03 | 23,52 | 22,03 | 21,98 | 15,25 | 16,67 |
| 1 | 53,36 | 55,22 | 56,68 | 57,12 | 63,41 | 65,16 |
| 2 | 16,8 | 15,57 | 14,65 | 14,95 | 14,81 | 13,26 |
| 3 | 6,81 | 5,68 | 6,64 | 5,95 | 6,53 | 4,92 |
| >3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

Ezer gainditu ez dutenen portzentajea aurreko mailaren parean mantentzen da, baina azpimaila bat gainditu dutenen portzentajeak nabarmen egiten du gora. Datu hori interpretatzeko, gogoan izan behar da ikasle gehientsuenentzat maila hau dela ikasprozesuaren helmuga.




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 51,61 | 44,78 | 8,06 | 7,85 | 1,88 | 1,63 |
| 1 | 48,39 | 55,22 | 40,81 | 47,69 | 54,77 | 55,19 |
| 2 | 0 | 0 | 51,13 | 44,47 | 43,35 | 43,18 |
| 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| >3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

C2 edo laugarren maila 2005-2006 ikasturtean hasi zen lantzen euskaltegietan, eta orduz geroztikoak dira maila horri dagozkion datuak. Hasierako ikasturteetan, azpimailarik gabeko maila moduan ulertu zen, eta, ondorioz, 2 azpimaila gainditutakorik ez da ageri 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan. Urte horietako esperientziak, ordea, argiro eskatzen zuen bi azpimaila bereiztea, ikasprozesua hobeto kudeatzeko. C2 mailaren azpian funtsean bereizten dira eskoletako ikastaroa eta maila gainditzeko proiektua. Eginkizun horietako bakoitzari lotu zaio azpimaila bakoitza 2009-2010 ikasturtetik aurrera. Kudeaketa-eredu horren ondorio da horren handia izatea ezer gainditu gabekoen portzentajea azterraldiko lehen bi ikasturteetan. Berez, ikastaroa gainditu, baina proiektua gainditu gabe zutenei ezer gaindi-

tu ez izana aitortzen zitzaien bi ikasturte horietan, nahiz eta, geroztiko irizpideen arabera, azpimaila bat gainditua beharko luketen.

Hurrengo laukian, ehunekorik handienak laburbildu ditugu, esanguratsua delakoan jakitea ikasturtez ikasturte zer maila nabarmentzen den azpimaila-kopuru horiek lortzean.

| Lortutako azpimailak | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | A1 % 40 | A1 % 43 | A1 % 39 | A1 % 37 | A1 % 37 | A1 % 36 |
| 1 | C1 % 53 | C1 % 55 | C1 % 57 | C1 % 57 | C1 % 63 | C1 % 65 |
| 2 | B2 % 24 | B2 % 25 | B2 % 24 | B1 % 22 | B2 % 24 | B1 % 22 |
| 3 | B1 % 10 | B2 % 10 | B1 % 10 | B2 % 10 | B1 % 10 | B2 % 9 |
| >3 | B2 % 5 | A2 % 6 | A2 % 6 | A2 % 7 | B1 % 6 | B1 % 5 |

C2: 2009-2010ean, % 51k gainditu zituen bi maila; 2010-2011n, % 44k; 2011-2012an, % 43k; eta 2012-2013an, % 43k.

A1eko ikasleak nabarmentzen dira inolako azpimailarik gainditzen ez dutenen artean, eta C1ekoak[71], berriz, azpimaila bat gainditzen dutenen artean. Bi edo hiru azpimaila gainditzen dituzte B1 eta B2 mailetako ikasleek, eta hiru azpimaila baino gehiago A2, B1 eta B2 mailetakoek.

### 6.1.3. Azterraldiko emaitzak

Aztergai ditugun sei ikasturteotako emaitzei erreparatzerakoan, ikuspegi bat baino gehiago baliatuko dugu, deskribapena ahalik eta osatuena eta aberatsena suerta dadin. Funtsean, bi ikuspegi nagusi aurkeztuko ditugu: ikasturte bakoitzean ibilitako pertsonen ikuspegia eta epealdian ibilitako pertsona ezberdinen ikuspegia.

#### 6.1.3.1. Sei ikasturteetako emaitzak batera hartuta

Azterraldiaren sei ikasturteetako pertsonak metatuta, 215.553 ikasle aritu dira euskaltegietan aztergai ditugun mailak egiten. Pertsona bat ikasturte batean baino gehiagotan aritu baldin bada, ikasturte bakoitzeko behin kontatuta dago. Horiek horrela, 50.170 ikaslek ez dute lortu dagokien ikasturtean zehar azpimaila bakar bat ere gainditzea. Ostera, 95.805ek lortu dute azpimaila bat gainditzea, 44.500ek bi gainditu dituzte, 17.380k hiru eta 7.735ek lau edo gehiago.

[71] C1eko datuari dagokionez, kontuan hartzekoa da ikasle asko datozela D eredutik azterketa egitera. Zehazki, 112 kodea duen ikastaroan ibilitako 5etik 1ek egin du hilabeteko ikastaroa epealdi osoan (17.100 ikasleetatik 3.559k, % 21ek), eta, horietatik, % 93k udan.




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 10.329 | 8.737 | 4.701 | 2.111 | 688 |
| A2 | 7.219 | 11.160 | 6.377 | 1.881 | 1.587 |
| B1 | 10.377 | 18.636 | 11.075 | 4.615 | 2.745 |
| B2 | 10.638 | 23.605 | 13.051 | 5.390 | 2.715 |
| C1 | 11.346 | 32.357 | 8.302 | 3.380 | 0 |
| C2 | 261 | 1.309 | 992 | 0 | 0 |

Datuok portzentajeetara ekarrita, ikasleen % 44k lortu du azpimaila bat gainditzea aztergai ditugun sei ikasturteotan, % 23k ez du azpimailarik gainditu, % 21ek bi gainditu ditu, % 8k hiru eta % 4k lau edo gehiago.




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 38,89 | 32,9 | 17,7 | 7,95 | 2,59 |
| A2 | 25,58 | 39,55 | 22,6 | 6,67 | 5,62 |
| B1 | 21,87 | 39,28 | 23,34 | 9,73 | 5,79 |
| B2 | 19,2 | 42,61 | 23,56 | 9,73 | 4,9 |
| C1 | 20,49 | 58,43 | 14,99 | 6,1 | 0 |
| C2 | 10,19 | 51,11 | 38,73 | 0 | 0 |

### *6.1.3.2. Gainditutako azpimaila-kopurua, pertsonako eta ikasturteko*

Datuoi beste ertz batetik erreparatuta, hona ikasturte eta maila bakoitzean ibilitako ikasleek batez beste zenbat azpimaila gainditu dituzten. Oro har, emaitzarik apalenak A1 eta C1 mailetan suertatzen dira eta onenak, alde handirik gabe, B1, B2 eta C2n. Batez besteko orokorrei dagokienez, ikus daiteke azpimaila bat eta laurden gainditu dutela ikasleek ikasturteko.

| | 07-08 | 08-09 | 09-10 | 10-11 | 11-12 | 12-13 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 1,01 | 0,95 | 1,05 | 1,07 | 1,03 | 1,06 |
| A2 | 1,25 | 1,28 | 1,26 | 1,30 | 1,28 | 1,25 |
| B1 | 1,34 | 1,40 | 1,40 | 1,40 | 1,40 | 1,36 |
| B2 | 1,37 | 1,40 | 1,37 | 1,39 | 1,40 | 1,38 |
| C1 | 1,07 | 1,03 | 1,06 | 1,05 | 1,13 | 1,06 |
| C2 | 0,48 | 0,55 | 1,43 | 1,37 | 1,41 | 1,42 |
| B/ beste | 1,23 | 1,23 | 1,24 | 1,25 | 1,27 | 1,24 |

### 6.1.3.3. Azterraldiko pertsona ezberdinen emaitzak

Azterraldiko lorpenen gaineko bigarren ikuspegi nagusia da epealdian ibilitako pertsona ezberdinena. Aurreko atalean, ikasturte bakoitzeko pertsonak metatu ditugun moduan, atal honetan azterraldian ibilitako pertsona ezberdinak hartuko ditugu kontuan: 116.241 pertsona ezberdin aritu dira euskara ikasten sei ikasturteotan.

Emaitzak aurkezterakoan, lehen matrikularen hasiera-maila hartu dugu kontuan. Pertsonak horren arabera multzokatu ditugu, lehen matrikularen ikasturtea edozein delarik ere, eta epealdian lortu dituzten emaitzak aurkeztu.




Datuok alde esanguratsu samarra adierazten dute arestian aurkeztutako 215.553 ikasle-multzoarekiko. Ikuspegi hartan,esaterako, ikasleriaren % 12 A1 mailan kokatzen zen, eta ikuspegi honetan, aldiz, % 20. Ikus dezagun hurrengo taulan maila guztietan dagoen aldea.

| | I<br>(215.553)<br>% | II<br>(116.421)<br>% |
|---|---|---|
| **A1** | 12,32 | 20,2 |
| **A2** | 13,09 | 14,08 |
| **B1** | 22,01 | 19,36 |
| **B2** | 25,70 | 21,46 |
| **C1** | 25,69 | 23,48 |
| **C2** | 1,19 | 1,42 |

Hurrengo laukian, ikasle ezberdinek lortutako azpimaila-kopurua aztertuko dugu.




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 7.951 | 5.729 | 3.577 | 2.119 | 4.108 |
| A2 | 2.643 | 3.787 | 2.816 | 1.651 | 5.466 |
| B1 | 3.058 | 5.049 | 3.578 | 2.572 | 8.247 |
| B2 | 2.991 | 7.424 | 5.027 | 3.234 | 6.273 |
| C1 | 4.401 | 15.903 | 4.563 | 2.422 | 0 |
| C2 | 115 | 805 | 732 | 0 | 0 |

Epealdian ibilitako ikasleriaren % 18k ez du azpimailarik gainditu; % 33k azpimaila bat gainditu du; % 17k bi azpimaila; % 10ek hiru azpimaila eta% 21ek lau azpimaila edo gehiago.




| | 0 | 1 | 2 | 3 | >3 |
|---|---|---|---|---|---|
| A1 | 33,86 | 24,4 | 15,23 | 9,02 | 17,49 |
| A2 | 16,15 | 23,14 | 17,21 | 10,09 | 33,4 |
| B1 | 13,59 | 22,44 | 15,9 | 11,43 | 36,65 |
| B2 | 11,99 | 29,76 | 20,15 | 12,96 | 25,14 |
| C1 | 16,13 | 58,28 | 16,72 | 8,88 | 0 |
| C2 | 6,96 | 48,73 | 44,31 | 0 | 0 |

Laburbilduz, honako emaitza hauek lortzen dira, oinarri bat edo beste hartuta[72].

a) 215.553 ikasleen oinarria hartuta: % 44,45ek gainditzen du azpimaila bat eta % 23,28k bat ere ez.

b) 116.241 ikasle ezberdinen oinarria hartuta: % 33,29k gainditzen du azpimaila bat eta % 18,2k bat ere ez.

#### 6.1.3.4. Azpimaila bat gainditzeko behar diren eskola-orduak

Epealdian lorturiko errendimenduari erreparatzeko beste ikuspegi bat da ikustea azpimaila bat erdiesteko batez beste zenbat eskola-ordu eman dituzten euskaltegiek, eta azpimaila bat gainditzeko zenbat eskola-ordu behar izan diren.

Horrela, bada, hurrengo laukian ikus litekeen bezala, kalkulu hori egiteko, honako eragiketa hau egin dugu: euskaltegiek emandako eskola-orduak zati lortutako azpimailak ikasturtez ikasturte. Ondorioz, batez beste, 174,5 ordu behar izan dira sei ikasturteotan azpimaila bat gainditzeko.

[72] Sarrerako azken oharrean azaldu ditugu kopuru horien nondik norakoak.

| Ikasturtea | Azpimailak | Orduak | Azpimailako |
|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 46.278 | 8.550.406 | 185 |
| 2008-2009 | 50.248 | 8.926.366 | 178 |
| 2009-2010 | 51.614 | 9.116.543 | 177 |
| 2010-2011 | 49.196 | 8.488.198 | 173 |
| 2011-2012 | 47.271 | 7.762.725 | 164 |
| 2012-2013 | 41.980 | 7.121.617 | 170 |

Hala ere, bigarren kalkulu bat ere egin dugu, eta azpimailako ateratzen den ordu-kopuru horiei kendu diegu azpimailarik gainditu ez dutenei dagokien ordu-kopurua, ordu garbiak edo errentagarriak zenbatekoak diren jakiteko.

Esate baterako, 2012-2013 ikasturtean, % 20,50ek ez du azpimailarik gainditu (1.459.931 ordu eta 6.464 pertsona). Beraz, 7.121.617ko kopuruari 1.459.931ko ordu-kopurua kenduz gero, beste oinarri bat lortzen da: 5.661.686koa. Eta aurreko laukia osatzeko eragiketa bera egingo dugu; alegia, azken ordu-oinarri hori zati ikasturte horretan lorturiko 41.980 azpimailak: 135 ordukoa litzateke batez bestekoa.

Ezer gainditu ez dutenen portzentajeari erreparatu eta azpimaila bat gainditzeko behar izan diren orduak proportzio berean gutxituz, zerbait gainditu dutenek behar izan dituzten orduak kalkula daitezke. Kontuan izanda HEOC 2014k 14 azpimailatan banatzen duela ikasprozesu osoa eta guztira 1.730irakastordu inguru aurreikusten dituela, 125 ordukoa litzateke batez bestekoa, hurrengo taulan agertzen denaren antzekoa. Eragiketa horren arabera, sei ikasturte hauetan, batez beste, 134 eskola-ordu behar izan dira azpimaila bat gainditzeko.

| Ikasturtea | Azpimailak | Orduak | Azpimailako | Gainditu ez | Ordu garbiak |
|---|---|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 46.278 | 8.550.406 | 184,76 | % 26,03 | 137 |
| 2008-2009 | 50.248 | 8.926.366 | 177,65 | % 25,25 | 133 |
| 2009-2010 | 51.614 | 9.116.543 | 176,63 | % 24,12 | 134 |
| 2010-2011 | 49.196 | 8.488.198 | 172,54 | % 23,08 | 133 |
| 2011-2012 | 47.271 | 7.762.725 | 164,22 | % 20,02 | 131 |
| 2012-2013 | 41.980 | 7.121.617 | 169,64 | % 20,50 | 135 |

Horrela, bada, 2012-2013an esaterako, segun eta nola egiten den kalkulua, esan liteke 135 ordu behar izan direla azpimailako, edota, aitzitik, 170.

Dena dela, ohar bat egin behar dugu, gaizki-ulertuak saihesteko. Izan ere, eragiketak eragiketa eta zenbakiak zenbaki, azpimailarik lortu ez izanak ez du esan nahi inolako emaitzarik lortu ez denik, edota alferrikako ahaleginean aritu direnik, zeren eta ikas-irakas prozesuaren uneren batean, agian, ez baita lortuko azpimailarik, baina hurrengoan, aitzitik, bai.

### 6.1.3.5. Azpimailak, trinkotasunaren arabera

Autoikaskuntzako emaitzak alde batera laga ditugu, trinkotasun-mota bat baino gehiago, ikaskuntza-modalitate bat islatzen dutelako. Horrela, modalitate horretan, 3.591.984 ordu eman dira eta 28.137 azpimaila gainditu.

Aurrez aurreko modalitateari dagokionez, jakin nahi izan dugu zer trinkotasun-motak eman dituen emaitzarik onenak, eta, horretarako, kalkulatu dugu 100 orduko zenbat azpimaila gainditu diren erritmo ezberdinetako ikastaroetan. Eta ondorioa da udako ikastaro trinkoetan eta udako barnetegietan ematen direla emaitzarik positiboenak;bistan denez, trinkotasun handiko ikastaroak direlako, nahiz eta iraupen laburrekoak izan. Jarraian, honako hurrenkera azaleratzen da, emaitzarik onena lortzen duen trinkotasunetik hasita: 1) astean 1-6 ordu arteko ikastaroak, 2) barnetegiak, 3) 11-20 ordu artekoak, 4) 7-10 artekoak eta, azkenik, 5) astean 20 eskola-ordu baino gehiagoko ikastaroetan ematen dira emaitzarik apalenak.

| Trinkotasuna | Eman eskola-orduak | Gainditu azpimailak | Orduak azpimailako | Azpimailak 100 orduko | Batez bestekoarekiko |
|---|---|---|---|---|---|
| >20 ordu | 3.658.891 | 15.282 | 239,42 | 0,42 | -0,14 |
| 11-20 ordu | 3.728.186 | 21.148 | 176,29 | 0,57 | +0,01 |
| 1-6 ordu | 6.340.348 | 45.520 | 139,29 | 0,72 | +0,16 |
| 7-10 ordu | 28.182.936 | 140.034 | 201,26 | 0,5 | -0,06 |
| Barnetegiak | 1.138.789 | 6.997 | 162,75 | 0,61 | +0,05 |
| Udako barnetegiak | 939.332 | 7.232 | 129,89 | 0,77 | +0,21 |
| Udako trinkoak | 2.385.389 | 22.182 | 107,54 | 0,93 | +0,37 |
| | 46.373.871 | 258.395 | 179,47 | 0,56 | |

### 6.1.4. Azpimailarik gainditu ez dutenen ezaugarri batzuk

Ikasle horiek ezaugarri bereziturik duten aztertzea interesgarri iruditu zaigunez, ahalegintxo bat egin dugu hainbat ezaugarri alderatzeko. Horren aurretik, ordea, azpimailarik gainditu ez dutenen artean ez ditugu aintzat hartu 60 eskola-ordu baino gutxiago jaso dituzten ikasleak, aldera-karga handiegia eragin dezaketelakoan. Horrela, azpimailarik gainditu ez duten 25.611 ikasleetatik, 21.159ren datuak alderatu ditugu. Bestela esan, kanpoan utzi ditugu ezer gainditu ez dutenen % 17 (4.452 ikasle).

Horiek horrela, ikasle guztien portzentajeei ezer gainditu ez duten horien portzentajeak alderatu dizkiegu. Alde positiboak adierazten du delako adierazlearen ehunekoa handiagoa dela guztirakoan, ezer gainditu ez dutenen taldean baino; eta alderantziz. Alderaketa horretan, bestalde, lau alderdiri erreparatu diegu.

a) Lurraldea

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Araba** | -0,74 | -0,53 | 0,25 | 0,11 | -1,44 | 0,76 |
| **Bizkaia** | 6,65 | 5,54 | 3,79 | 2,81 | 8,64 | 3,56 |
| **Gipuzkoa** | -2,82 | -2,01 | -1,57 | 0,6 | 0,07 | 0,71 |
| **Nafarroa** | -0,48 | -0,65 | -0,72 | 0,11 | -0,63 | -0,65 |
| **Estatua** | -2,88 | -2,35 | -1,9 | -2,97 | -4,28 | -3,55 |
| **Iparraldea** | -0,02 | -0,01 | -0,03 | 0 | -0,08 | 0,02 |
| **Atzerria** | 0,3 | 0,02 | 0,16 | -0,67 | -2,3 | -0,85 |

Arlo horretan ezer nabarmentzekotan, aipatu behar da azpimailarik gainditzen ez dutenen artean ezohikoagoak direla Bizkaian jaiotakoak, eta ugarixeagoak, aldiz, Espainiako estatuan jaiotakoak; alegia, orotarako datuetan, % 49,63 dira Bizkaian jaiotakoak, baina ez gainditторuen artean, aldiz, % 46,07: 3,56 puntuko aldea. Eta Espainiako estatuan jaiotakoekin alderantziz gertatzen da: orotarako datuetan, % 9 dira Estatuan jaiotakoak, baina ez gaindituen artean, berriz, % 12,55 (-3,55 puntu).

b) Hizkuntza-eredua

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Erantzunik ez** | -2,47 | -1,1 | -0,23 | -0,55 | -0,75 | -0,42 |
| **A ereduan** | -0,45 | -0,6 | 0,67 | -1,57 | -1,14 | -1,66 |
| **B ereduan** | 0,99 | 0,89 | 0,61 | 1,14 | 3,07 | 2,94 |
| **D ereduan** | 4,69 | 6,06 | 5,11 | 6,62 | 9,71 | 8,48 |
| **X ereduan** | -2,77 | -5,23 | -6,15 | -5,63 | -10,9 | -9,35 |

Nabarmen antzera ikusten da B eta D ereduetan ikasitako gutxiago dagoela azpimailarik gainditzen ez dutenen artean, eta gehiago, aldiz, A edo X ereduetan ikasi dutenen artean. Muturretara jota, 2012-2013 ikasturtean,X ereduan ikasitakoen eta D ereduan ikasitakoen artean % 17,83ko aldea eman zen.

c) Adina

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 16-20 | 1,76 | 1,64 | -0,75 | -0,16 | 3,06 | 1,51 |
| 21-30 | 6,99 | 7,39 | 8,34 | 8,4 | 9,63 | 8,47 |
| 31-40 | 2,46 | 1,42 | 3,78 | 3,54 | 1,89 | 4,73 |
| 41-55 | -7,54 | -6,5 | -7,19 | -6,83 | -9,16 | -7,79 |
| 56-65 | -2,1 | -2,4 | -2,28 | -2,97 | -3,37 | -4,48 |
| 66> | -2,38 | -1,54 | -1,92 | -1,97 | -2,05 | -2,45 |

Oro har, adierazgarri samarrak dira 40 urtetik beheragokoen datuak eta hortik gorakoenak. Edozein modutara, muturreko tarteak 21-40 urtekoen artean ematen dira azpimailak ez gaindituen portzentajerik baxuenak, eta 41-55 urtekoen artean altuenak.

| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziadunak | 5,02 | 4,01 | 3,93 | 5,93 | 3,13 | 4 |
| Diplomadunak | 0,51 | -0,47 | 1,1 | 0,99 | 0,12 | 1,66 |
| Irakasle-ikasketak | 1,22 | 1,51 | 0,94 | 1 | 1,56 | 1,23 |
| UBI edo LHII | -2,67 | -0,75 | -0,71 | -2,78 | -1 | -2,47 |
| Eskola-graduat. LHI | -3,19 | -3,5 | -4,88 | -4,25 | -2,38 | -3,7 |
| Beste | -0,87 | -0,79 | -0,38 | -0,9 | -1,42 | -0,72 |

d) Ikasketa-maila

Multzoka hartuta, unibertsitate-ikasketak dituztenak proportzio baxuagoan geratzen dira azpimailak gainditu gabe eta, aitzitik, unibertsitate-ikasketarik ez dutenek ez gainditzeko proportzio handixeagoa erakusten dute. Muturretan, lizentziadunak gutxiago dira gainditzen ez dutenen artean eta eskola-graduatuak edo Lanbide Heziketako lehen maila dutenak ugariago.

## 6.2. Emaitzak egiaztatze-deialdietan

Arestian esan moduan, lorpen-emaitzen 6.1. atala euskaltegiko barne-ebaluazioaren ondorioz euskaltegiek aitortutako emaitzekin landu dugu. Jarraian, HABEren egiaztatze-deialdietara aurkeztutako ikasleen emaitzak aztertuko ditugu atal honetan.

Testuingurua zehazteko, kontuan hartu behar da HABEren egiaztatze-deialdiak deialdi itxiak direla; hau da, horietara aurkeztu ahal izateko, euskaltegietan matrikulatua egon behar du ikasleak eta aurkeztu nahi duen mailaren atalasea euskaltegian gainditua duela erakutsi.

Urtean, bi deialdi egin ohi dira, HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenez arautzen direnak. 2010eko Ebazpenak ordura arteko baldintzak moldatu zituen, azken ikasturtean matrikulatuta egon beharra arautuz, eta 2011ko deialdiak gehitu zion epealdi horretan gutxieneko errendimendua erakutsi behar izana (epealdian azpimaila bat behintzat gainditu izana).

Egiaztatze-deialdiok bideratzeko, HABEk euskaltegietako 550 bat irakasle izendatzen ditu aztertzaile urtero; betiere, 30 bat tutorek gidatutako taldeetan irizpideak bateratzeko hainbat saio burutu ondoren —aurrez aurreko saioekin batera, plataforma digitalen bidezko lana ere uztartzen da—.

Egiaztatzeko probak burutzeko moduari dagokionez ere, hainbat aldaketa izan dira ikasturte batetik bestera. Kontuan hartu behar da lehenengo urteetan egun bakarrean egiten zirela entzumeneko, irakurmeneko eta idazmeneko probak, eta horiek gainditzen zituztenek egiten zutela gero mintzameneko proba. Audio-sistemarekin izandako arazo baten ondorioz, 2009ko lehen deialdian bertan behera laga ziren Bizkaiko 1. eta 2. mailetako entzumeneko probak, eta gainerako bi probak (irakurmena eta idazmena) gainditu zituztenei egin zitzaien proba geroago, mintzamenarekin batera.

2010eko lehen deialditik aurrera erabaki zen entzumeneko proba mintzamenekoarekin batera egitea irakurmena eta idazmena gainditzen zutenei. Baina 2012tik aurrera, euskaltegiek eurek aplikatzen dituzte entzumeneko eta irakurmeneko probak; hasieran, euskaltegiek aukeratutako probekin, eta, 2013. urtetik aurrera, HABEk diseinatu eta euskaltegien eskura jarritakoekin. Horrekin batera, erabaki zen idazmeneko probarik ez zuzentzea proba horiek gainditzen ez zituzten ikasleei.

Egiaztatze-deialdien lehen urteetan, aztertzaile batek zuzentzen zituen entzumeneko, irakurmeneko eta idazmeneko probak, aurreneko hiru mailetan; eta, gero, taldeko tutoreak proba horien guztien% 25-edo eramaten zituen aztertzaileen birzuzentze-saioetara, han bigarren aztertzaile batek berriro zuzen zitzan[73]. Mintzameneko probak, aldiz, beti egin izan dira bi aztertzaileren parte-hartzearekin.

Gaur egun, lau maila egiaztatzen ditu HABEk egiaztatze-deialdietan (B1, B2, C1 eta C2), bi aztertzailek zuzentzen dituzte proba guztiak maila guztietan, eta, lehentxeago aipatu bezala, maila horietara aurkezteko aukera izateko, euskaltegiak gaindituta izan behar du dagokion azpimaila, ondoko grafikoan zehazten den bezalaxe.

Horrela, maila hori egiaztatzera aurkezteko aukera du mailaren atalasemaila gainditu duen ikasleak edo, bestela esan, mailari dagokion azken azpimaila gainditu duenak. Maila horretako beste azpimailaren bat egiaztatu duenak beheragoko mailara aurkez daiteke, C2ren eta B1en salbuespenarekin; izan ere, C2n matrikulatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza da

[73] Dena dela, laugarren mailan, bi aztertzailek zuzendu izan dituzte hasiera-hasieratik proba guztiak.




C1 gainditua izatea, eta B1en kasuan, egiaztatzen den mailarik baxuena izaki, atalasera iritsi ez denak ezin egiaztatzegintzan parte hartu. Maila horren kasuan, muga esanguratsua da, zeren eta ezin baitute B1 egiaztatzera aurkeztu, ez A1 eta A2 mailetako ikasleek, ezta B1A1 eta B1A2 azpimailetakoek ere.

Oro har, deialdi batetik besterako gorabehera txikiak tarteko, egiaztatze-deialdietara aurkezteko baldintzak betetzen dituzten ikasleen herena matrikulatu ohi da egiaztatze-deialdietan.

Urteko lehen egiaztatze-deialdia, gutxi-asko, apiriletik uztailera bitartean gauzatzen da, eta bigarrena irailetik abendura bitartean.

Deialdi batetik bestera tarte handiegirik ez dagoelako eta lehen deialdian maila gainditu dutenen eraginez-edo, oso gorabehera txikiarekin, bigarren deialdian lehen deialdian matrikulatutakoaren erdia matrikulatu ohi da. Oro har, bigarren deialdietako emaitzak apalxeagoak izan ohi dira, eta horrexegatik, azterraldiaren bilakaera aurkezterakoan, lehen deialdiak aurkeztuko ditugu, batetik, eta bigarren deialdiak, bestetik.

### *6.2.1. Emaitza orokorrak*

Hurrengo laukietan laburbildu ditugu egiaztatze-deialdietako emaitza orokorrak, lehen eta bigarren deialdiak bereizita, gauzatu diren bezala. Kontuan hartu, esaterako, 2007-2008 ikasturteari 2008-1 eta 2008-2 izenburupeko emaitzak dagozkiola.

Honako hau dugu lehen deialdiari dagokiona.

| | Matrikulatu | Aurkeztu | Gainditu | Aurkeztuen % |
|---|---|---|---|---|
| 2008-1 | 9.797 | 9.070 | 4.703 | 51,85 |
| 2009-1 | 10.755 | 9.986 | 4.963 | 49,70 |
| 2010-1 | 12.430 | 11.840 | 5.098 | 43,06 |
| 2011-1 | 32.982 | 12.013 | 5.019 | 41,78 |
| 2012-1 | 65.964 | 10.474 | 3.760 | 35,90 |
| 2013-1 | 131.928 | 8.863 | 3.267 | 36,86 |
| Guztira | 263.856 | 62.246 | 26.810 | 43,07 |

Bigarrenari buruz, berriz, hurrengoa.

| | Matrikulatu | Aurkeztu | Gainditu | Aurkeztuen % |
|---|---|---|---|---|
| 2008-2 | 4.050 | 3.691 | 1.589 | 43,05 |
| 2009-2 | 5.382 | 4.969 | 2.092 | 42,10 |
| 2010-2 | 6.276 | 5.839 | 2.039 | 34,92 |
| 2011-2 | 6.299 | 5.892 | 2.120 | 35,98 |
| 2012-2 | 5.713 | 5.416 [74] | 2.066 | 38,15 |
| 2013-2 | 4.555 | 4.191 [75] | 1.519 | 36,24 |
| Guztira | 32.275 | 29.998 | 11.425 | 38,09 |

Ikus daitekeenez, matrikulatu eta gero probetara aurkezten ez direnak % 5-8 artean ibiltzen dira, gutxi-asko.

Laburbilduz, 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturteei dagokienez, aurkeztu diren 92.244 ikasleetatik 38.235ek egiaztatu dute maila (% 41ek).




[74]

[75] Azken bi deialdietan, entzumena, irakurmena eta idazmena gainditutakoei gorde egin zaizkie emaitzak bigarren deialdirako. Egoera horretan zeudenak 675 eta 623 ikasle izan ziren, hurrenez hurren.

### 6.2.2. Emaitzak, mailaz maila




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 66,72 | 65,46 | 55,32 | 57,2 | 48,74 | 54,6 |
| Bigarren deialdiak | 48,52 | 52,91 | 51,36 | 57,27 | 49,47 | 72,84 |

Lehen mailan, guztira, 22.785 ikasle aurkeztu dira sei ikasturteotan, eta horietatik 13.048k lortu dute maila egiaztatzea (% 57k).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 52,8 | 51,85 | 43,99 | 45,6 | 39,16 | 40,94 |
| Bigarren deialdiak | 46,59 | 47,14 | 34,54 | 37,69 | 42,75 | 40,61 |

Bigarren maila egiaztatzera aurkeztutako 35.280 ikasleetatik, 15.582k lortu dute maila egiaztatzea (% 44k).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 30,67 | 31,75 | 32,33 | 26,06 | 23,9 | 22,46 |
| Bigarren deialdiak | 33,39 | 32,05 | 27,17 | 25,69 | 30,16 | 26,99 |

Hirugarren maila egiaztatzera aurkezturiko 32.026 ikasleetatik, 9.002k lortu dute maila egiaztatzea (% 28k).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 55,77 | 47,37 | 30,24 | 28,79 | 31,88 | 29,21 |
| Bigarren deialdiak | 60,98 | 11,48 | 20,31 | 18,95 | 31,31 | 28,08 |

Laugarren maila egiaztatzera aurkezturiko 1.990 ikasleetatik, 603k lortu dute maila egiaztatzea (% 30ek).

Laburbilduz, hurrengo laukian daude ikusgai maila egiaztatzea lortu duten ikasle-kopuruak, mailaka. Horrela, esaterako, deialdira aurkezturiko ikasleen % 57k lortu du 1. maila egiaztatzea.

| 2007-2013 | |
|---|---|
| 1. maila | % 57 |
| 2. maila | % 44 |
| 3. maila | % 28 |
| 4. maila | % 30 |

### 6.2.3. Emaitzak, trebetasunez trebetasun

Hurrengo datuak bere osoan interpretatzeko, komeni da probon aplikazioan izan diren aldaketa guztiak kontuan hartzea.




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 94,58 | 94,97 | 91,7 | 94,56 | 99,82 | 97,6 |
| Bigarren deialdiak | 95,58 | 94,66 | 93,73 | 91,19 | 99,81 | 94,79 |

Irakurmeneko probetara aurkeztutako 92.462 ikasleetatik, 88.079k gainditu zituzten probok (% 95ek)




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 94,82 | 92,19 | 96,92 | 97,02 | 99,9 | 97,88 |
| Bigarren deialdiak | 93,13 | 93,85 | 96,17 | 95,96 | 99,89 | 95,19 |

Entzumeneko probetara azterraldian aurkeztu diren 72.778 ikasleetatik, % 96k lortu du proba gainditzea (70.136 ikaslek).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen deialdiak | 57,07 | 59,02 | 54,05 | 51 | 47,9 | 48,49 |
| Bigarren deialdiak | 51,05 | 49,12 | 44,69 | 46,45 | 44,82 | 40,13 |

Idazmeneko probetara aurkeztutako ikasleen %51k lortu du proba gainditzea (90.943 ikasleetatik 46.271 ikaslek).




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ■ Lehen deialdiak | 93,25 | 89,15 | 84,94 | 85,24 | 83,22 | 81,96 |
| ■ Bigarren deialdiak | 84,69 | 88,01 | 79,71 | 78,2 | 76,15 | 74,9 |

Mintzameneko probetara aurkeztutako 45.310 ikasleetatik, 38.235 ikaslek gainditu dute proba, hau da, % 84k.

Laburbilduz, hurrengo laukian daude ikusgai euskara-maila egiaztatzera joan, eta probak gainditzea lortu duten ikasle-kopuruak, trebetasunez trebetasun; betiere,azterketa-probetako bakoitza egitera aurkeztutako ikasle-kopurua oinarri.

| 2007-2013 | |
|---|---|
| Irakurmena | % 95 |
| Entzumena | % 96 |
| Idazmena | % 51 |
| Mintzamena | % 84 |

6.3. Argazkia: 2013ko lehen egiaztatze-deialdia

HIZPIDE honetan, hainbat datu esanguratsu ematen ahalegindu gara, oinarri hartuta 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturteetako ikasprozesuen alderdirik garrantzizkoenak. Jakin badakigu nekeza gerta dakiokeela bati baino gehiagori datu horiek guztiak egoki lotzea, eta, horregatik, irakurleak beste lanabes bat izan dezan irakurketa horretan, 2013ko lehen egiaztatze-deialdiko emaitzen gaineko argazki osatua eskaintzen dizuegu jarraian.

## 6.3.1. Mailaz mailako begirada

### 6.3.1.1. 1. maila

| 1.mailan | Euskaltegian matrikulatuak | Deialdian matrikulatuak | Deialdian GAI |
|---|---|---|---|
| **Emakumezkoak** | %65,89 | %69,98 | %71,13 |
| **Batez besteko adina** | 36,92 urte | 35,89 urte | 34,12 urte |
| **Langabezian** | %30,42 | %34,87 | %38,75 |
| **Ikasketa-maila** | | | |
| Lizentziadunak | %25,08 | %26,95 | %34,69 |
| Diplomadunak | %15,19 | %18,21 | %19,96 |
| Irakasle-ikasketak | %1,91 | %2,48 | %2,62 |
| UBI edo LHII | %27,94 | %30,11 | %26,74 |
| Eskola-graduatuak, LHI | %19,79 | %13,64 | %11,83 |
| Beste | % 10,02 | %7,58 | %7,41 |
| **Kop.** | 14.216 | 2.059 | 1.098 |

Lehenengo mailan, emakumezkoa zen 2012-2013 ikasturtean matrikulaturiko ikasleen % 66, edota 2013ko lehen deialdian matrikulaturikoen % 70, edota deialdi horretan GAI kalifikazioa lortu zutenetatik % 71.

Horrela, bada, honako profil hau dugu lehen maila lortu duten ikasleen artean: hamarretik zazpi dira emakumezkoak, ikasle horrek 34 urte ditu batez beste, maila lortu dutenetatik % 39 dago langabezian eta % 57k ditu unibertsitate-ikasketak.

Hurrengo taulan daude jasota lehen mailako ikasleei dagozkien kopuruak

| | Matrikula Euskaltegian | Euskaltegiak Gai | Matrikula deialdian | Aurkeztu probetara | Idazmena Gai | Aurkeztu mintzamenera | Orotara Gai |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Kop.*** | 14.216 | 4.301 | 2.059 | 2.011 | 1.356 | 1.269 | 1.098 |

Euskalduntzearen lehendabiziko mailan, 14.216 ikasle matrikulatu ziren 2012-2013an. Horietatik, 4.301 ikaslek lortu zuten GAI kalifikazioa euskaltegiaren ebaluazioan, eta horietatik 2.059k egin zuten matrikula 2013ko lehen deialdian. Deialdi horretara aurkeztu ziren 2.011 azterketarietatik, 1.356k lortu zuten GAI kalifikazioa idazmen-proba gaindituta, eta, gero, horietatik guztietatik, 1.269 aurkeztu ziren mintzamen-probara. Azkenik, 1.098 lagunek gainditu zituzten proba guztiak, eta, ondorioz, egiaztatu ahal izan zuten 1.mailari dagokion gaitasuna zutela.

### 6.3.1.2. 2.maila

| 2.mailan | Euskaltegian matrikulatuak | Deialdian matrikulatuak | Deialdian GAI |
|---|---|---|---|
| **Emakumezkoak** | %68,72 | %68,29 | %69,82 |
| **Batez besteko adina** | 36,69 urte | 33,82 urte | 31,94 urte |
| **Langabezian** | %29,22 | %32,96 | %35,88 |
| **Ikasketa-maila** | | | |
| Lizentziadunak | %28,40 | %26,91 | %30,57 |
| Diplomadunak | %17,59 | %18,13 | %18,78 |
| Irakasle-ikasketak | %3,42 | %3,72 | %3,42 |
| UBI edo LHII | %28,72 | %27,27 | %26,49 |
| Eskola-graduatuak, LHI | %14,33 | %13,87 | %11,79 |
| Beste | %7,51 | %8,34 | %8,95 |
| **Kop.** | 8.324 | 3.359 | 1.348 |

Bigarren mailan, emakumezkoa zen 2012-2013 ikasturtean matrikulaturiko ikasleen % 69, edota 2013ko lehen deialdian matrikulaturikoen % 68, edota deialdi horretan GAI kalifikazioa lortu zutenetatik % 70.

Horrela, bada, honako profil hau dugu bigarren maila lortu duten ikasleen artean: hamarretik zazpi dira emakumezkoak, ikasle horrek 32 urte ditu batez beste, maila lortu dutenetatik % 36 dago langabezian eta % 53k ditu unibertsitate-ikasketak.

Hurrengo taulan daude jasota bigarren mailako ikasleei dagozkien kopuruak

| | Matrikula Euskaltegian | Euskaltegiak Gai | Matrikula deialdian | Aurkeztu probetara | Idazmena Gai | Aurkeztu mintzamenera | Orotara Gai |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Kop.* | 8.324 | 5.382 | 3.359 | 3.294 | 1.728 | 1.623 | 1.348 |

Bigarren mailari dagokionez, 8.324 ikasle matrikulatu ziren, eta, euskaltegiaren ebaluazioan, horietatik 5.382 ikaslek lortu zuten GAI kalifikazioa. Ondoren, horietatik 3.359k egin zuten matrikula 2013ko lehen deialdian. Deialdi horretara aurkeztu ziren 3.294 azterketarietatik, 1.728k lortu zuten GAI kalifikazioa idazmen-proba gaindituta, eta, gero, horietatik guztietatik, 1.623 aurkeztu ziren mintzamen-probara. Azkenik, 1.348 lagunek gainditu zituzten proba guztiak, eta, ondorioz, egiaztatu ahal izan zuten 2.mailari dagokion gaitasuna zutela.

#### *6.3.1.3. 3. maila*

| 3.mailan | Euskaltegian matrikulatuak | Deialdian matrikulatuak | Deialdian GAI |
|---|---|---|---|
| **Emakumezkoak** | %69,67 | %67,47 | %66,04 |
| **Batez besteko adina** | 32,75 urte | 29,78 urte | 28,58 urte |
| **Langabezian** | %27,35 | %28,64 | %33,15 |
| **Ikasketa-maila** | | | |
| Lizentziadunak | %31,09 | %28,55 | %33,69 |
| Diplomadunak | %14,33 | %11,88 | %11,73 |
| Irakasle-ikasketak | %6,00 | %6,43 | %4,85 |
| UBI edo LHII | %23,08 | %21,86 | %20,89 |
| Eskola-graduatuak, LHI | %15,92 | %17,40 | %18,46 |
| Beste | %9,46 | %10,88 | %10,38 |
| **Kop.** | 8.348 | 3.299 | 727 |

Hirugarren mailan, emakumezkoa zen 2012-2013 ikasturtean matrikulaturiko ikasleen % 70, edota 2013ko lehen deialdian matrikulaturikoen % 67, edota deialdi horretan GAI kalifikazioa lortu zutenetatik % 66.

Horrela, bada, honako profil hau dugu hirugarren maila lortu duten ikasleen artean: hamarretik ia zazpi dira emakumezkoak, 29 urte ditu batez beste, maila lortu dutenetatik % 33 dago langabezian eta % 50ek ditu unibertsitate-ikasketak.

Hurrengo taulan daude jasota hirugarren mailako ikasleei dagozkien kopuruak

| | Matrikula Euskaltegian | Euskaltegiak Gai | Matrikula deialdian | Aurkeztu probetara | Idazmena Gai | Aurkeztu mintzamenera | Orotara Gai |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Kop.*** | 8.348 | 4.959 | 3.299 | 3.242 | 1.098 | 978 | 727 |

Hirugarren mailan, 8.348 ikasle matrikulatu ziren 2012-2013an. Horietatik 4.959 ikaslek lortu zuten GAI kalifikazioa euskaltegiaren ebaluazioan, eta horietatik 3.299k egin zuten matrikula 2013ko lehen deialdian. Deialdi horretara aurkeztu ziren 3.242 azterketarietatik, 1.098k lortu zuten GAI kalifikazioa idazmen-proba gaindituta, eta, gero, horietatik guztietatik, 978 aurkeztu ziren mintzamen-probara. Azkenik, 727 lagunek gainditu zituzten proba guztiak, eta, ondorioz, egiaztatu ahal izan zuten 3. mailari dagokion gaitasuna zutela.

### 6.3.1.4. 4.maila

| 4.mailan | Euskaltegian matrikulatuak | Deialdian matrikulatuak | Deialdian GAI |
|---|---|---|---|
| **Emakumezkoak** | %69,51 | %62,04 | %77,38 |
| **Batez besteko adina** | 37,40 urte | 35,40 urte | 34,38 urte |
| **Langabezian** | %21,80 | %24,10 | %29,76 |
| **Ikasketa-maila** | | | |
| Lizentziadunak | %68,54 | %65,96 | %82,14 |
| Diplomadunak | %15,73 | %11,14 | %9,53 |
| Irakasle-ikasketak | %3,67 | %3,01 | - |
| UBI edo LHII | %4,27 | %2,11 | %1,19 |
| Eskola-graduatuak, LHI | %2,47 | %1,81 | %2,38 |
| Beste | %5,32 | %4,22 | %4,76 |
| **Kop** | 655 | 332 | 92 |

Laugarren mailan, emakumezkoa zen 2012-2013 ikasturtean matrikulaturiko ikasleen % 70, edota 2013ko lehen deialdian matrikulaturikoen % 62, edota deialdi horretan GAI kalifikazioa lortu zutenetatik % 77.

Horrela, bada, honako profil hau dugu laugarren maila lortu duten ikasleen artean:  hamarretik ia zortzi dira emakumezkoak, ikasle horrek 34 urte ditu batez beste, maila lortu dutenetatik % 30 dago langabezian eta % 92k ditu unibertsitate-ikasketak.

Hurrengo taulan daude jasota laugarren mailako ikasleei dagozkien kopuruak

| | Matrikula Euskaltegian | Euskaltegiak Gai | Matrikula deialdian | Aurkeztu probetara | Idazmena Gai | Aurkeztu mintzamenera | Orotara Gai |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Kop.*** | 655 [76] | 437 | 332 | 315 | 116 | 113 | 92 |

Azkenik, laugarren mailari dagokionez, 655 ikasle matrikulatu ziren, eta, euskaltegiaren ebaluazioan, horietatik 437 ikaslek lortu zuten GAI kalifikazioa[77]. Ondoren, horietatik 332k egin zuten matrikula 2013ko lehen deialdian. Deialdi horretara aurkeztu ziren 315 azterketarietatik, 116k lortu zuten GAI kalifikazioa idazmen-proba gaindituta, eta, gero, horietatik guztietatik, 113 aurkeztu ziren mintzamen-probara. Azkenik, 92 lagunek gainditu zituzten azterketa-proba guztiak, eta, ondorioz, egiaztatu ahal izan zuten 4. mailari dagokion gaitasuna zutela.

[76] 411 kodean matrikulatuak; alegia, ikastaroa eta proiektua euskaltegian gaindituta.
[77] Laugarren mailan, ikastaroa (401) eta proiektua (411) gainditu behar dute ikasleek, egiaztatze-deialdira aurkeztu ahal izateko.

### 6.3.2. Aurreko maila noiz lortua

2013ko lehen egiaztatze-deialdiari erreparatu, eta jakin nahi izan dugu aurkezturiko azterketariek noiz lortu zuten dagokien euskara-maila. Hortaz, laburbil ditzagun taula batean 2013ko lehen deialdiko oinarrizko datu batzuk.

| | Ikasleak | Euskaltegiak GAI | Matrikulatu deialdian | Aurkeztu | Gainditu |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.maila | 14.216 | 4.031 | 2.059 | 2.011 | 1.098 |
| 2.maila | 8.324 | 5.382 | 3.359 | 3.294 | 1.348 |
| 3.maila | 8.348 | 4.959 | 3.299 | 3.242 | 727 |
| 4.maila | 655 | 437 | 332 | 315 | 92 |

Hortaz, bigarren mailan matrikulaturiko 3.359 ikasleetatik, 1.392 ikaslek (% 41ek) eskuratua zuten HABEren egiaztatze-deialdiren batean 1.mailari dagokion agiria. Hurrengo taulan daude laburbilduta kopuruak eta zer urtetan lortu zuten egiaztatzea ikasle horiek 1.maila.

| Ikasturtea | 1. maila | |
|---|---|---|
| 2003-2004 | 8 | % 0,57 |
| 2004-2005 | 15 | % 1,08 |
| 2005-2006 | 29 | % 2,08 |
| 2006-2007 | 26 | % 1,87 |
| 2007-2008 | 76 | % 5,46 |
| 2008-2009 | 141 | % 10,13 |
| 2009-2010 | 198 | % 14,22 |
| 2010-2011 | 367 | % 26,36 |
| 2011-2012 | 532 | % 38,22 |
| | **1.392** | 100,00 |

Hirugarren mailan matrikulatutako 3.299 ikasleetatik, 1.240 ikaslek (% 38k) lortua zuten 2. maila egiaztatzea HABEren deialdiren batean, eta 743k (% 23k), berriz, 1.maila. Azter dezagun noiz.

| Ikasturtea | 2. maila | | 1. maila | |
|---|---|---|---|---|
| **2003-2004** | 9 | 0,73 | 11 | 1,48 |
| **2004-2005** | 13 | 1,05 | 37 | 4,98 |
| **2005-2006** | 24 | 1,94 | 39 | 5,25 |
| **2006-2007** | 24 | 1,94 | 50 | 6,73 |
| **2007-2008** | 59 | 4,76 | 105 | 14,13 |
| **2008-2009** | 139 | 11,21 | 115 | 15,48 |
| **2009-2010** | 193 | 15,56 | 181 | 24,36 |
| **2010-2011** | 326 | 26,29 | 157 | 21,13 |
| **2011-2012** | 453 | 36,53 | 48 | 6,46 |
| | **1.240** | 100,00 | **743** | 100,00 |

### 6.3.3. Laburtuz

Atal honetako datu horietan guztietan, aurreko orrialdeetan azalduriko hainbat ezaugarri azaleratzen dira. Esate baterako, laugarren mailako agiria lortu zutenen artean, hamarretik bederatzik zituzten unibertsitate-ikasketak, 2012-2013 ikasturteko batez bestekoa baino 45 puntu gehiago[78]; datu horrek Curriculumak egiten duen mailaren deskribapenarekin du lotura zuzena, eta oso nabarmena da aurreko hiru maileetako ehunekoarekin dagoen aldea. Horrezaz gain, begien bistakoa da handiagoa dela emakumezkoen proportzioa: aurreko hiru mailetan baino % 10 gehiago, gutxi-asko.

Beste datu deigarri bat da hirugarren mailaren agiria lortu dutenen batez besteko adina gainerako mailetakoena baina 3-5 puntu gazteagoa[79] dela; datu hori bat dator azterraldian atzemandako joerarekin, zeren eta C1 mailan izena emandakoen % 56 baitira 16-30 urte bitartekoak.

Bestalde, nabaria da zenbat eta maila altuagoan, orduan eta txikiagoa dela langabezi tasa, eta alderantziz; eta, bestalde, 2012-2013ko ikasle langabetuen batez bestekoa baino kopuru handiagoa topatzen dela maila gainditu dutenen artean[80].

Laburtuz, honako profila zuen 2013ko lehen deialdian maila gainditu zuen azterketariak.

[78] Ikus *2.9. Ikasleen ikasketa akademikoak* atala. 2012-13an, ikasleen % 46,87k zituen unibertsitate-ikasketak.
[79] Ikus *2.14. Ikasleak, hasiera-maila eta adinaren arabera* atala.
[80] Ikus *2.11. Langabetuak* atala. 2012-2013an, % 27,8koa zen ikasle langabetuen batez bestekoa.

| | 1M | 2M | 3M | 4M |
|---|---|---|---|---|
| **Emakumezkoak** | % 70 | % 70 | % 70 | % 80 |
| **Batez besteko adina** | 34 urte | 32 urte | 29 urte | 34 urte |
| **Langabezian** | % 39 | % 36 | % 33 | % 30 |
| **Unib.-ikasketak** | % 57 | % 53 | % 50 | % 92k |

Azterlan honen hasieran bertan dugu adierazia errealitatearen irakurketarik aberatsena egitea izan dela gure erronketako bat azterlan honetan eta, ondorioz, helburu dugula askotariko ikuspegiak azaleratzea, ahalik eta ondoriorik esanguratsuenak izateko, zeren eta sinetsita baikaude kalitatezko ebaluazioak erakutsiko digula hobetzeko bidearen zer-nolakoa.

Irizpide hori bidelagun aurkeztu ditugu, besteak beste, 2013ko lehen egiaztatze-deialdiko emaitzak. Horretarako, erreferentziazko hiru kopururekin gurutzatu dugu egiaztatze-deialdian gai izandakoen zenbatekoa:

a) Batetik, jakin nahi izan dugu zenbatek egiaztatu duten maila,euskaltegiek gaitzat jotzen dituzten ikasleak oinarri hartuta.

b) Bestetik, zenbat diren maila egiaztatu dutenak, deialdiko probetara aurkeztu diren ikasleak kontuan hartuta.

c) Eta, azkenik, mintzamen-probara ailegatu direnak oinarri hartuta egin dugu kalkulua.

Horrela, bil ditzagun gaindituei buruzko ehunekoak lauki batean.

| | 1M | 2M | 3M | 4M |
|---|---|---|---|---|
| **Euskaltegiak GAI** | % 25,52 | % 25,04 | % 14,66 | % 21,05 |
| **Deialdira aurkeztu** | % 54,59 | % 40,92 | % 22,42 | % 29,20 |
| **Mintzamen-probara aurkeztu** | % 86,52 | % 83,05 | % 74,33 | % 81,41 |

Bistan dira emaitzak, eta agerian geratzen da badagoela zer hobetua helduen euskalduntzean eta, ondorioz, premia dagoela sakonago hausnartzeko. Ehunekoei erreparatuta, alde bat baino gehiago dago maila batetik bestera. Dena dela, guk hirugarren maila azpimarratuko dugu orrialdeotan. Izan ere, bigarren mailatik hirugarrenera dagoen jauzia uler liteke pentsatuz ikasprozesuan aurrera egiteak dakarren zailtasunak eraginda ematen direla bigarren mailakoekiko emaitza horiek: -10,38, -18,5 eta -8,72 puntuko aldea dago, hurrenez hurren. Kopuru horien arabera, alderik handiena deialdira aurkeztutakoek lortzen duten emaitzaren baitakoa da. Bestalde, irakurketa patxadatsuagoa egin beharko litzateke, zeren eta hobeak baitira laugarren mailako kopuruak, hirugarrenekoak baino.

## 7.- Ondorioak

Lan honen hasieran genioen moduan, gogoeta egitea da ebaluatzea; eta, ondorioz, euskalduntze-prozesuko eragile guztioi dagokigu hausnarketa bideratzea eta hainbat erabaki hartzea, emaitzak hobetzeko.

Jarraian, honako atal hauetan laburbildu ditugu oinarrizko datuak, baita zenbait ondorio atera ere: a) ikasle-irakasleei dagozkien xehetasun orokorrak, b) euskaltegien ebaluazioari dagozkion datuak, c) euskara-mailen egiaztatze-deialdiei buruzkoak eta, azkenik, d) etorkizunari begirakoa.

### *7.1. Xehetasun orokorrak*

**Kopuruak.**

Behera egin du ikasle-kopuruak (4.187 gutxiago, % 11,4), baita irakasle-kopuruak ere (97 gutxiago, % 6,5). Hiru lurraldeetan atzematen da ikasle-jaitsiera 2010-2011 ikasturtetik aurrera, Gipuzkoan arinago eta Bizkaian nabarmenago.

**Sexua.**

Emakumezkoa da, neurri handi batean, euskaltegiko ikaslea (% 67).

**Jatorria.**

Gutxitu egin dira ikasle bizkaitarrak (-3 puntu), eta zertxobait egin dute gora Gipuzkoan eta atzerrian jaiotakoek (1,8 eta 1,1 puntu, hurrenez hurren).

**Lehen hizkuntza.**

Ikasleen artean, nagusi dira lehen hizkuntza gaztelania dutenen multzoa (2012-13an, esaterako, % 77).

**Etxeko hizkuntza**.

Ikasle gehienek gaztelaniaz hitz egiten dute etxean (2012-13an, esaterako, % 79k).

**Lagunen arteko hizkuntza**.

Ikasle gehienek gaztelaniaz hitz egiten dute lagunen artean (% 76k, 2012-13an).

**Hizkuntza-ereduak**.

Ikaslerik gehienak A + X ereduetan ikasitakoak dira. 2012-13an, esaterako, ikasleen % 74. Hala ere, % 57ra dator ehunekoa ikasle berrietan.

Era berean, gora egin du B eta D ereduetan ikasitako ikasleen kopuruak. 2012-13an, adibidez, ikasle guztien % 15 dira D ereduan ikasitakoak eta % 9, aldiz, B eredukoak. Eta ikasle berrietan, berriz, % 31 eta % 12, hurrenez hurren.

**Ikasketa akademikoak.**

Zertxobait gutxitu da unibertsitate-ikasketak dituzten ikasleen kopurua (% 50etik % 47ra).

**Ogibideak.**

Euskaltegietako ikasleen artean, ugaritu egin dira ikasle-lanbidea dutenak (4,15 puntu, % 17tik % 21era) eta, aitzitik, gutxitu Administrazioko langileak (-6,16 puntu, % 21etik % 15era).

Bestalde, handiagoa da langabetuen proportzioa euskaltegian, gizartean baino. 2012-13an, esaterako, biztanleen % 15 zegoen lanik gabe EAEn eta ikasleen % 28 euskaltegietan (13 puntuko aldea).

**Ikasleak, mailaka.**

B1 maila bitartean biltzen da ikasleen % 47, eta B2 bitartean, berriz, % 73.

Sei ikasturte hauetan, behera egin du A1, A2, B1 eta B2 mailetako ikasle-kopuruak (4.893 ikasle gutxiago). Ikasle berrietan, argi islatzen da beheranzko joera: ikasle berrien % 58 ziren 2007-08an hasierako hiru mailetakoak, eta % 53, aldiz, 2012-13an (-5 puntu).

Bestalde, C1 eta C2 mailetan egin du gora ikasle-kopuruak (3,9 eta 1,8 puntu, hurrenez hurren). Lurraldeka, deigarria da C1eko matrikulen gorakada Bizkaian (ia 7 puntu, % 25etik % 32ra). Gipuzkoan, berriz, behera egin du C1eko matrikulazioak (puntu bat, % 28tik % 27ra) eta nabarmen gora C2koak (6 puntu, % 0,41etik % 7ra).

**Adina.**

2012-2013 ikasturtean, 37 urtekoa da ikasleen batez besteko adina —27 urtekoa zen 1994-95ean—. Irakasleena, berriz, 43koa da.

Ikaslerik gehienak 31-55 adin-tartekoak dira (% 61). Hiru lurraldeetan egin du behera 21-40 urte bitarteko multzoak, eta Gipuzkoan baita 16-20koak ere.

Ikasle berrietan, oro har, ugaritu egin dira, bai 16-20 urte bitartekoak, bai 56 urtetik gorakoak; eta gutxitu, berriz, 21-30ekoak; eta ez dago aldaketa handirik 31-55 bitartekoetan.

**Adina, ikasketak eta maila.**

Bi joera antzematen dira.

Batetik, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta euskara-maila altuagoa dute ikasleek, eta zenbat eta zaharragoak, orduan eta euskara-maila baxuagoa. Esaterako, C1 mailan, 16-30 urte bitartekoak nabarmentzen dira (% 55); edota, A1 mailan, 31-55ekoak (% 68).

Bestetik, zenbat eta euskara-maila altuagoa izan, orduan eta gehiagok dute goi-mailako titulazioa; eta alderantziz, zenbat eta euskara-maila baxuagoa izan, orduan eta gutxiagok dute goi-mailako titulazioa. Esaterako, A1 mailan, % 34k ditu unibertsitate-ikasketak, eta C1 mailan, aldiz, % 49k (C2 mailan, aitzitik, % 89k).

### Ikastaroen trinkotasuna.

Gero eta trinkotasun txikiagoko erritmoak ari dira indartzen. Esaterako, astean 1-6 ordukoak % 19tik % 25era ugaritu dira, eta 10-19 ordukoak, aitzitik, % 37tik % 29ra gutxitu. Beraz, trinkotasun txikiagoko erritmoak indartzeko joera nagusitzen ari da.

### Irakasleen eskarmentua.

Eskarmentu handiko irakasleak ari dira lanean: 19 urte baino gehiagoko esperientzia du irakasleen % 44k. Era berean, geroz eta irakasle berri gutxiago sartzen dira euskalduntze-alfabetatzearen alorrera; eta, hala ere, irakasleen % 20 berritu da bost urtean.

## *7.2. Euskaltegiaren ebaluazioa*

### Gainditutako azpimailak, hasiera-mailaren arabera.

Azterraldian, batez beste, azpimaila bat eta laurden gainditu dute ikasleek ikasturteko; zehatzago, 1,23 -1,24 bitartean. Bestalde, emaitzarik apalenak A1 eta C1 mailetan lortu dira (esaterako, 2012-2013an, bietan 1,06 maila), eta onenak B1, B2 eta C2n (1,36, 1,38 eta 1,42, hurrenez hurren).

Gainditutako azpimaila-kopuruaren joerari dagokionez, C2 mailan nabaritzen da hobekuntzarik handiena: 0,48 azpimaila gainditzetik 1,24 gainditzera igaro baitira 2007-2008tik 2012-2013ra bitartean. Eta A1 mailan ere, nahiz eta emaitzarik apalena izan euskara-mailetan, hobetu egin da emaitza: 1,01 azpimaila gainditzetik 1,06 gainditzera igaro dira-eta. Gainerako mailetan, ez dago aparteko aldaketarik.

### Lorpen-emaitzak, hasiera-mailaren arabera.

Azpimailarik lortzen ez dutenen artean, 2012-2013an, nagusi dira A1 mailakoak (% 35), ondoren A2koak (% 24), gero B1ekoak (% 21), ondoren B2 (% 17) eta C1ekoak (% 17). C2 bereiz aztertu behar da.

Eta azpimaila bat gainditzen dutenen artean, C1ekoak dira nagusi 2012-2013an, maila horretako ikasleen % 65ek gainditzen baitu azpimaila bat.

Bestalde, bizpahiru azpimaila gainditzen dituztenen artean, B1 eta B2 mailetako ikasleak dira ugarienak (2012-13an, esaterako, % 23k eta % 9k, hurrenez hurren), eta hiru azpimaila baino gehiago gainditzen dituztenean artean, A2, B1 eta B2 mailetakoak (% 5-% 7k).

Azpimaila-lorpenen joerari dagokionez, nahiz eta A1eko ikasleak nabarmentzen diren inolako azpimailarik gainditzen ez dutenen artean, azterraldian hobetu egin da horien emaitza: 2007-2008an, A1eko ikasleen % 40k ez zuen inolako azpimailarik gainditu, eta, 2012-2013an, berriz, % 35ek. Era berean, hobetu egin dira C1eko ikasleen emaitzak: % 53k gainditzen du azpimaila bat 2007-2008an, eta % 65ek, berriz, 2012-2013an. Gainerakoetan, ez dago aldaketa nabarmenik.

**Sei ikasturteetako emaitzak batera hartuta.**

215.553 ikasle aritu dira euskara ikasten euskaltegietan. Ikasle horien % 44,45ek lortu du azpimaila bat gainditzea sei ikasturteotan, % 23,28k ez du batere gainditu, % 20,64k bi gainditu, % 8,06k hiru eta % 3,59k lau edo gehiago.

**Azterraldiko 116.241 pertsona ezberdinen emaitzei dagokienez.**

Ikasleen % 33,29k gainditu du azpimaila bat, % 18,2k ez du bat ere gainditu, % 17,46k b, % 10,32k hiru eta % 20,78k lau.

**Azpimaila bat gainditzeko eskola-orduez.**

Batez beste, 137,5[81] behar izan dira azpimaila bat gainditzeko; betiere, azpimailarik gainditu ez dutenei dagokien ordu-kopurua kenduta.

**Azpimailak, trinkotasunaren arabera.**

Zenbat eta trinkotasun txikiagoa izan, orduan eta emaitza hobeak lortzen dira. Emaitzarik onenak udako ikastaro trinkoetan eta udako barnetegietan lortzen dira; trinkotasun handiko ikastaroak dira, baina laburrak.

**Azpimailarik gainditu ez dutenen profila.**

Alde batetik, A + X ereduetan ikasitakoak, eta, bestetik, 21-40 urtekoen artean ematen dira azpimailak ez gaindituen portzentajerik baxuenak eta 41etik gorakoetan altuenak.

## *7.3. Egiaztatze-deialdia*

**Aurkezten ez direnak.**

2008tik 2013ra bitarteko egiaztatze-deialdietan, % 5 eta % 8 artean dira matrikulatu ondoren euskara-probetara aurkezten ez direnak. Azterraldian, aurkeztu diren 92.244 ikasleetatik 38.235ek egiaztatu dute maila,% 41ek.

**Deialdietako matrikula.**

2008tik 2013ra bitarteko egiaztatze-deialdietan, etenik gabe ari da gutxitzen matrikula 2011tik aurrera. Ondorioz, 2013ko deialdietan 2011koetan baino 5.428 ikasle gutxiago matrikulatu ziren (% 28,5 gutxiago).

**Gaindituak.**

2008tik 2013ra bitarteko egiaztatze-deialdietan, txikitu egin da gaindituen ehunekoa. Esate baterako, aurkeztutakoen % 52k egiaztatu zuen maila 2008ko lehen deialdian, eta % 37k, aldiz, 2012-2013koan.

Beraz, azterraldian zehar, gaindituen ehunekoa txikitzeko joera antzematen da.

[81] Inolako kenketarik egin gabe, batez bestekoa 174,5 ordukoa da.

### Emaitzak, mailaz maila.

Azterraldian, % 57k egiaztatu dute 1. maila, % 44k 2. maila, % 28k 3. maila eta % 30ek 4. maila.

Joerari dagokionez, maila guztietan urritu dira maila gainditu dutenen ehunekoak. Esaterako, azterraldiko lehen eta azken ikasturteetako lehen deialdietan erkatuz gero, honako aldea antzematen da: 1. mailan, % 67tik % 55era txikitu da portzentajea (-12 puntu); 2. mailan, % 53tik % 41era (-12 puntu); 3. mailan, % 31tik % 22ra (-9 puntu); eta, azkenik, 4. mailan, % 56tik % 29ra (-27 puntu). Ikusten denez, laugarren mailan urritu dira gehien gaindituen kopuruak.

### Emaitzak, trebetasunez trebetasun.

Aurkeztutako ikasleen artetik, % 95ek lortu du irakurmen-proba gainditzea azterraldian; % 96k entzumen-proba; % 51k idazmen-proba; eta, azkenik, % 84k mintzamen-proba. Hortaz, deialditik deialdira, ia-ia % 100ek gainditzen ditu trebetasun hartzaileak neurtzeko probak eta erdiak idazmen-proba.

Joerari dagokienez, trebetasun hartzaileetan, oro har, handitu egin dira gaindituen ehunekoak. Esate baterako, 2007-08an, % 95ek gainditu zuen lehen deialdiko irakurmen-proba, eta 2012-2013an, berriz, % 98k (3 puntu).

Trebetasun ekoizleei dagokienez, gutxitu egin dira gaindituen ehunekoak. Adibidez, % 57k gainditu zuen idazmen-proba 2007-2008ko lehen deialdian, eta % 48k 2012-2013an (-8,58 puntu). Eta antzeko zerbait gertatzen da mintzamen-probetan: 2007-2008an % 93k gainditu zuen eta % 82k, berriz, 2012-2013an (-11 puntu)

### 2013ko lehen egiaztatze-deialdiaren argazkia.

- Sexua ➔ Emakumezkoak dira ikasleen % 70 lehen hiru mailetan eta % 80, berriz, laugarrenean.
- Adina ➔ 32-34 urte dituzte lehen, bigarren eta laugarren mailako ikasleek; 3. mailan, aldiz, 29 urte.
- Langabezia ➔ Lanik gabe, mailaren arabera, ikasleen % 30 eta % 39 bitartean daude.
- Ikasketa akademikoak ➔ Unibertsitate-ikasketak dituzte ikasleen % 50-57k, lehen hiru mailetan;(C2n, % 92k.
- Emaitzak ➔ Deialdira aurkeztutako ikasleak oinarri hartuta, % 55ek gainditu du lehen maila, % 41ek bigarren maila, % 22k hirugarren maila eta % 29k laugarren maila.

## 7.4. Etorkizunari begira

Konplexua da oso hizkuntzaren ikas-irakas prozesua; eta are gehiago, Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoan eta gurea bezalako hizkuntza gutxituaren kasuan. Irakurleak ondo dakien bezala, aspaldi gabiltza euskaldunak euskara biziberritzeko ahaleginean murgilduta, eta, aurrerapauso ugari eman badira ere, ez da txikia eginkizun dugun erronka —besteak beste, helduen euskalduntzean lortzen diren emaitzak hobetzea—. Horregatik, gure iritziz, etenik gabe gogoeta egin eta gainerako eragileekin partekatzea da erronka horiei guztiei aurre egiteko bide eraginkorra; eta argi dugu helburu dugun hobekuntza hori euskalduntze-alorreko eragile guztien arteko lankidetza sustatzetik etorriko dela; hau da, HABEren, euskaltegien eta irakasleen arteko elkarreraginetik.

Bide horretan, ezinbesteko helburu dugu eraginkortasun handiagoz jardutea, jakinik euskaltegien sektorean badirela konpondu beharreko gabezia historiko batzuk, hala nola profesionalen lan-baldintzei edota prestakuntzari dagozkienak, esaterako. Hala ere, ezinbestekoa da gero eta emaitza hobeak lortzen ahalegintzea; alegia, eraginkorrago jarduten saiatzea, ezarritako helburuak eskura dauden baliabideekin eta behar den denboran lortzeko.

Azterlan honetako orrialdeotan, makina bat datu azaleratu ditugu, baina badira zenbait ekarri ezin izan ditugunak, daturik ez dugulako. Eta hutsune horretan dago hobetzeko alderdi garrantzizko bat —bide batez, Euskal Administrazio Publikoari berari legokiokeena—, zeren eta, helduen euskalduntzearen edozein ekimen planifikatuk arrakasta izan dezan, ezinbestekoa baita diagnostiko zehatza egitea. Ondorioz, euskararen erabilera erronka nagusi dugun honetan, euskalduntze-alfabetatzearen nondik norakoak sakonago ezagutzeko premia dugu, eta, horretarako, ikerketa-lerro sendoak sustatu, gaur egun dakiguna baino gehiago jakin behar baitugu.

Esate baterako, ikerketetako bat izan liteke euskaltegiko ikasleek euskara ikasteko eta erabiltzeko duten motibazioaren ingurukoa, zeren eta erdalduna eta euskalduna motibatu nahi izaten baititugu euskalgintzan, batak euskara ikas dezan eta besteak euskaraz hitz egin, begien bistakoa da-eta nahitaezko osagai estrategikoa dela edozein alorretan motibatua egotea. Orobat, beste ikerketa mamitsu bat ere bidera liteke irakasleen motibazioa aztertzera, zeren eta,euskaltegietako profesionala ikas-iras prozesuetako giltzarri nagusietako bat izaki, ikasleen ikaskuntza-prozesuan eragiten baitu irakaslea era batera edo bestera sentitu edo motibatua egoteak.

Edota, azterlan honetan aurkeztutako datuei hertsiki helduta, beste ikerketa batek azter litzake matrikulazioren gorabeherak eta joerak, edota zer eragin duten matrikulazio-gorabeherek ekonomi krisiarekin, edota hizkuntzaren prestigioarekin, edota gizarte-sustapenarekin, edota lan-munduan euskarak duen tokiarekin, edota hezkuntza-sistemak euskalduntzen dituen haur-gazteen euskara-mailarekin, edota ikasleek zer-nolako estrategia eta bitarteko erabiltzen dituzten arrakasta izateko, edota…

Ikerketa-lerroak sustatu eta datuak eskuan, helduen euskalduntze-prozesuan parte hartzen dugun eragile guztiok (Administrazioak, euskaltegiek eta irakasleek) egin beharko genuke gogoeta sakona. Eta, lehenik, geure buruari galdetu ea ontzat ematen ditugun HIZPIDE aldizkari honetan azaleratutako egoerak; eta, hausnarketa horretan, komeniko litzateke gure iritzia zehazten ahalegintzea. Esaterako: datu positiboak iruditzen zaizkigu ala hobetu beharrekoak?, zergatik?, zer-nolako hobekuntzak proposatuko genituzke?

Honako ardatz hauen gainean egin liteke aipatu gogoeta:

- Ikasleek ikasturteko, batez beste, azpimaila bat eta laurden gainditzen dute.
- Azpimaila bat gainditzeko, batez beste, 137,5 eskola-ordu[82] behar izan dira sei ikasturteotan.
- Egiaztatze-deialdietako emaitzei dagokienez, deialdietara aurkezturiko ikasleen % 41ek gainditu du maila 2007-2013an.
- 2013ko lehen egiaztatze-deialdian, esaterako, euskaltegiaren ebaluazioan gaitzat hartu ondoren, honako azterketari-kopuru hauek egiaztatu zuten maila: % 26k 1.mailan, % 25ek 2.mailan, % 15ek 3.mailan eta % 21ek 4.mailan.

Bistan dira 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturte bitarteko emaitzak, eta, gure iritziz, agerian geratzen da badagoela zer hobetua helduen euskalduntzean eta, ondorioz, premia dagoela sakonago hausnartzeko. Zeren eta zer pentsa eman behar bailiguke lehen mailan, esate baterako, euskaltegietako ebaluazioan gainditutako lautik batek egiaztatu izana maila; edota, baita ere, zer pentsa eman behar bailiguke deialdian parte hartzen duten ikasleetatik erdiak, gutxi gorabehera, egiaztatu izana maila. Izan ere, portzentaje horiek erakusten dute hor badagoela hobetzeko tartea.

Beraz, gogoeta curriculumaren hiru mailetan egin, eta funtsezkoa litzateke, alde batetik, nork bere eragin-esparrua aztertzea eta bideratzen dituen prozesuen analisi kritikoa egitea, eta, bestetik, elkarreragina hobetzeko ahalegin sendoa sustatzea, emaitza hobeak lor ditzagun pixkanaka. Horretarako, garrantzizkoa litzateke HABEk berak sustatzea gogoeta hori eta behar diren baliabideak jartzea, euskalduntzegintzako gainerako eragileekin batera egiteko aurrera hobekuntza-bidean.

Eta aurrera eginez. HABEk paradigma-aldaketa (ezagutzatik erabilerara) bultzatu nahi du HEOC 2014an eta indar handiagoz bideratu ikas-irakas prozesua gaitasun komunikatiboa garatzera, helburu komunikatibotan sakontzeak emaitza hobeak emango dituelakoan. Era berean, bat egiten du Euskararen Aholku Batzordearen *Euskara 21. Itun berritu baterantz dokumentuan*[83] jasotzen denarekin; alegia, XXI. mende-hasierako hizkuntza-

[82] Kontuan izan azpimailarik lortu ez dutenen kopurua gutxitu dugula kalkulu hori egiteko (6.1.3.4. atala).
[83] http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/euskara21.pdf

politikaren helburuak ezin duela izan, soilik, euskaldunak sortzea, baizik eta ahalik eta euskaldun gehienak, ahalik eta egokiera, toki eta esparru gehienetan euskal hiztun bihurtzea, erabilera dela medio.

Horiek horrela, glotodidaktika-prozesu (UZEI, 1987) on eta eraginkorrak bermatzeko, ez da nahikoa material didaktiko egokiak prestatzea, eta funtsezkoa izan ohi da ikasgelan behar bezalako etekin didaktikoa ateratzea materialei eta jarduerei. Horrezaz gain, badira beste faktore batzuk baldintza dezaketenak prozesuaren emaitza, izan gizarte-alorrekoak, izan gizakiaren psikologi eremukoak.Normalean, irakaslea arduratzen da hizkuntza irakasteaz —gure kasuan, euskara—, eta, ondorioz, prestakuntza zabala behar du, emaitza egokiak lortze aldera; izan ere, ikuspegi komunikatiboaren arabera, ikasleek dagokien komunikazio-gaitasuna lortu behar dute lau hizkuntz trebetasunetan —ulermenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean—, eta, jakina, nahikoa zeregin konplexua izan ohi da ikas-irakas prozesua eraginkor taxutzea.

Testuinguru horretan eta gehiago sakonduz, etorkizunari begira ere, irakasleei erreparatu nahi izan diegu, zeren eta, Rodríguez-Pérezek (2012) dioen moduan, hizkuntza-irakaslea funtsezkoa baita hizkuntzen ikas-irakas prozesuaren ekintza didaktikoan. Labur bada ere, azter ditzagun irakasle eredugarriaren ezaugarri batzuk, ikusteko lortu beharreko profesional-profilaren nolakoa. Horrela, bada, irakasle eredugarriak berariazko prestakuntza du irakasle-lanerako; hizkuntzen irakaskuntzarako teoriak eta ikuspegi linguistikoak ezagutzen ditu; ikasleen beharrizanen nolakoa ezagutu, eta nahikoa irizpide du informazio horren arabera aukeratu eta diseinatzeko material didaktikoa; ikasgelan giro ona sortzeko gaitasuna du; bitartekaria da ikas-irakas prozesuan; eta irakasle-lanerako trebetasun berezia du, esaterako: ezagutza antolatu eta egituratzeko, ekintzak epe motz eta luzera planifikatzeko, azalpen argiak emateko…; eta, horrezaz gainera, alderdi metodologikoak menderatzen ditu, motibatua dago, bere lana kritikatzeko eta hausnartzeko jarrera du, berritzailea da eta aldaketarako prest dago, besteak beste.

Azterlan honetako datuei erreparatuz, zahartzen ari da irakasleria[84], eta euskaltegietan gero eta irakasle berri gutxiago hasten da lanean[85], nahiz eta irakasleen % 20 berritu den azken bost urtean. Jakina da irakasleen jarrera berritzaileak baduela lotura lanbidearekin izan ohi den poztasunarekin, motibazioarekin, ilusioarekin eta gozamenarekin. Rodriguez Pérezen arabera (2012), irakasle hasiberriak berritzaileagoak izan ohi dira, eta, ondorioz, irakasle eskarmentudun eta erretirotik gertu daudenak baino motibatuagoak. Horregatik guztiagatik, euskara-irakasleen gabezia historiko bat estaltze-

[84] Gizartearen ildotik, zahartzen ari da sektorea: 43 urtekoa da irakasleen batez besteko adina, eta 37koa ikasleena (18 urtean, 10 urte egin du gora ikasleen adinak).
[85] Ikus 4.6.7. atala.

ra letorke euskara-irakasle izateko unibertsitate-ikasketak sortzea EAEn, irakasle berriak berariazko prestakuntza profesionalez iritsiko liratekeelako euskaltegietara eta horrek ekarriko lukeelako bai euskalduntzearen emaitzak hobetzea, bai ilusioa piztea profesionalen artean, bai euskalduntze-alorreko indargune bilakatzea.

Ildo horretan, proposamen batzuk partekatu nahi ditugu irakurleekin; betiere, prozesuaren kalitateari mesede egingo diolakoan:

a) Areagotu eta zabaltzea irakasleen prestakuntza didaktikoa, irizpide zientifiko eta praktikoetan oinarritua, gainerako irakasleekin bilduz eta elkarri esperientziak trukatuz.

b) Jaurlaritzak dirulaguntzak ematea, bitartekoak eta material didaktikoak berritzeko.

c) Administrazioaren ardura da irakasleen motibazioa eta gaitasun-maila zaintzea, haien lana aitortuz gizartean eta nahikoa baliabidez lagunduz.

Laburbilduz, etorkizunari begira, honako proposamen hauek egin ditugu, emaitzak hobetu eta eraginkortasuna sustatze aldera:

- Gogoeta  sakona sustatu sektorean.
- Ikerketa berriak bideratu.
- Areagotu eta zabaldu irakasleriaren prestakuntza didaktikoa.
- Administrazioak nahikoa baliabidez lagundu.
- Euskara-irakasle izateko unibertsitate-ikasketak sortu.

### *Bibliografia*


#### *Orokorra*

Europako Kontseilua. Hizkuntza Politika Saila. 2005. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa.* Donostia: HABE. [dokumentua linean] http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/eu/contenidos/informacion/oinarrizko_kontzeptuak/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf

HABE. 1999. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK). Donostia: HABE.

HABE. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC). [zirriborroa]

Kultura Saila. IV. Mapa Soziolinguistikoa, 2006. [txostena]

http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/MAPAeusk.pdf

Kultura Saila. V. Mapa Soziolinguistikoa, 2011. [txostena] http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/4411/V_Mapa_EU.pdf?1396872659

Kultura saila. Euskararen Aholku Batzordea. 2009. *Euskara 21* txostena. *Itun berritu baterantz.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [dokumentua linean] http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/euskara21.pdf

Martínez Bonafé, J. eta Salinas Fernández D. 1988. *Programación y evaluación de la enseñanza: problemas y sugerencias didácticas.* Valencia: Mestral Libros.

Perales, J. eta Elortza, X. 2008. *"Ikas-prozesuaren azterketa (2000-2001/2006-2007).* Hizpide 68.

Rodríguez-Pérez, N. 2012 La motivación del profesor. Unfactorfundamental para la eficacia del proceso de enseñanza-aprendizaje de idiomas. *Encuentro, 21*: 126-142. [dokumentua linean] http://dspace.uah.es/dspace/bitstream/handle/10017/14861/Rodriguez_Motivacion.pdf?sequence=1

UZEI. 1987. *Glotodidaktika hiztegia.* Donostia: HABE. [dokumentua linean] http://www.ikasbil.net/c/document_library/get_file?uuid=1cfb1abe-0883-46c7-97bf-d952c585d284&groupId=10138

#### *Araudiari buruzko aipuak*

LEGEA Azaroaren 25eko 29/1983koa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoa. (EHAA-1983ko abenduak 12, 183 zk.) http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/1983/12/8302326a.pdf

AGINDUA, 1989.eko azaroaren 17koa, Kultura eta Turismo Sailarena, HABE Erakunde Publikoak dirulaguntza ematen dien Euskaltegietan derrigorrez Helduen Euskalduntzeko Irakaskuntz Programari jarraitu beharra xedatuz. (EHAA-1989ko abenduak 1, 228 zk.) http://www9.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?e&f=19891201&a=198903302,

http://www9.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?e&f=19891201&a=198903303

AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 24koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) onartuz, erreferentzi marko obligaziozkoa izan dezaten HABE Erakunde Publikoak diruz lagundutako euskaltegiek. (EHAA-2000ko otsailak 8, 26 zk.) http://www.lehendakaritza.ejgveuskadi.net/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/2000/02/0000549a.pdf

AGINDUA, 2006ko martxoaren 13koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren mailari dagozkion eduki eta ebaluazio-irizpideak onartzen dituena. (EHAA-2006ko martxoak 30, 63 zk.) http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/2006/03/0601700a.pdf.

AGINDUA, 2003ko abuztuaren 6koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen oinarrizko curriculumean ezarritako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko sistema zehazten duena. (EHAA-2003ko irailak 10, 176 zk.) http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/ bopv2/datos/2003/09/0305009a.pdf

DEKRETUA 297/2010, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. (EHAA-2010ko azaroaren 15, 219 zk.)

http://www.habe.euskadi.net/ bopv2/ datos/2010/11/1005372a.pdf

AGINDUA, 2011ko urtarrilaren 19koa, Kultura sailburuarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean xedatutako euskararen komunikazio-gaitasunen mailak egiaztatzeko oinarri berriak zehazten dituena. (EHAA-2011ko urtarrilak 31, 20 zk.) http://www.habe.euskadi.net/bopv2/datos/2011/01/1100449a.pdf

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 20koa, HABEren zuzendari nagusiarena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi eta euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuetako ikasleen euskara-mailak Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren arabera egiaztatzeko, 2014. Urteko ohiko gaitasun-proben deialdiak egiten dituena. (EHAA-2014ko urtarrilaren 20, 12. zk.) http://www.habe.euskadi.net/bopv2 /datos/2014/01/1400245e.pdf

## Eranskinak

### 1.- Euskaltegiak, lurraldeka




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaia | 51 | 51 | 49 | 49 | 48 | 48 |
| Gipuzkoa | 42 | 42 | 42 | 41 | 41 | 41 |
| Araba | 15 | 15 | 15 | 15 | 15 | 15 |

### 2.- Ikasle-kopuruaren urteroko bilakaera, lurraldeka[86]




| | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 6.270 | 6.690 | 6.819 | 6.476 | 6.002 | 5.343 |
| Gipuzkoa | 9.690 | 10.280 | 10.742 | 10.296 | 10.181 | 9.888 |
| Bizkaia | 21.062 | 22.493 | 22.633 | 21.158 | 19.351 | 17.508 |
| EAE | 37.022 | 39.463 | 40.194 | 37.930 | 35.534 | 32.739 |

[86] Guztizko kopuruak lurraldez lurraldeko kopuruen batuketarekin bat ez etortzearen arrazoia da egon badaudela ikasleak lurralde batean baino gehiagotan ikasi dutenak ikasturtean zehar.

Ikasleei buruzko atalean aztertua dugun datua gogora ekarriz, oro har, behera egin du ikasle-kopuruak 2007-08 eta 2012-13 ikasturteetan[87]; hain zuzen ere, 4.187 ikasle gutxiago aritu dira azken ikasturtean(% 11,45eko beherakada).

Lurraldeka aztertuz gero, Arabak 927 ikasle (% 14,78) galdu zituen aztergai ditugun sei ikasturteotan eta Bizkaiak, berriz, 3.554 (% 16,87). Gipuzkoak, aitzitik, ikasle gutxiago galdu ditu eta, azkenean, 198 ikasle gehiagorekin (% 2,01) amaitu du 2012-2013 ikasturtea. Beraz, hiru lurraldeetan gertatu da beheranzko joera hori 2010-2011 ikasturtetik aurrera, zeren eta Gipuzkoan ere begien bistakoa da urtetik urterako ikasle-kopuruaren galera.

### 3.- Emakumezkoen ehunekoak, lurraldeka




| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 11,89 | 39,02 | 17,97 |
| 2008-2009 | 11,9 | 38,44 | 17,59 |
| 2009-2010 | 11,61 | 37,97 | 17,87 |
| 2010-2011 | 11,81 | 37,42 | 18,2 |
| 2011-2012 | 11,76 | 36,53 | 19,05 |
| 2012-2013 | 11,45 | 35,82 | 19,97 |

Lurraldez lurralde,muturreko bi ikasturteak erkatuz gero, Araban zertxobait jaisten da emakumezkoen ehunekoa (-0,44 puntu), eta Bizkaian, aldiz, nabaria da emakumezkoen beherakada (-3,2 puntu); Gipuzkoan, aitzitik, gora egin du (+2 puntu).

[87] 36.565 eta 32.378 ikasle aritu ziren, hurrenez hurren.

4.- Ikasleriaren ikasketa akademikoen banaketa, lurraldez lurralde

| ARABA | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziadunak | 28,74 | 27,56 | 27,07 | 27,81 | 27,17 | 26,10 |
| Diplomadunak | 23,56 | 23,03 | 21,55 | 21,37 | 20,66 | 20,43 |
| UBI edo LHII | 27,62 | 27,00 | 26,57 | 27,76 | 27,14 | 26,42 |
| Eskola-graduatua, LHI | 15,57 | 16,88 | 17,80 | 15,24 | 16,43 | 18,43 |
| Beste | 4,51 | 5,53 | 7,01 | 7,81 | 8,60 | 8,61 |

| BIZKAIA | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziadunak | 29,88 | 29,57 | 28,90 | 28,51 | 28,98 | 28,99 |
| Diplomadunak | 20,93 | 19,91 | 19,05 | 18,58 | 18,35 | 18,53 |
| UBI edo LHII | 23,88 | 24,67 | 25,22 | 25,48 | 25,48 | 25,69 |
| Eskola-graduatua, LHI | 17,41 | 18,12 | 18,27 | 18,54 | 17,91 | 17,30 |
| Beste | 7,90 | 7,73 | 8,56 | 8,89 | 9,29 | 9,50 |

| GIPUZKOA | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziadunak | 28,00 | 26,33 | 26,10 | 27,55 | 28,35 | 28,95 |
| Diplomadunak | 20,01 | 18,53 | 17,92 | 19,05 | 18,81 | 17,57 |
| UBI edo LHII | 26,18 | 26,93 | 27,89 | 27,06 | 25,85 | 25,51 |
| Eskola-graduatua, LHI | 17,78 | 18,20 | 18,16 | 17,20 | 17,63 | 17,82 |
| Beste | 8,03 | 10,01 | 9,91 | 9,14 | 9,36 | 10,15 |




| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 52,3 | 50,81 | 48,01 |
| 2008-2009 | 50,59 | 49,48 | 44,86 |
| 2009-2010 | 48,62 | 47,95 | 44,02 |
| 2010-2011 | 49,18 | 47,09 | 46,6 |
| 2011-2012 | 47,83 | 47,33 | 47,16 |
| 2012-2013 | 46,53 | 47,52 | 46,52 |

Lauki horretan, goi-mailako ikasketak dituzten ikasleen ehunekoak laburbildu ditugu, lurraldeka. Gogoan izan unibertsitate-ikasketen multzoan txertatu ditugula lizentziadunak, diplomadunak eta irakasle-ikasketak dituztenak.

5.- Ogibideen banaketa, lurraldez lurralde

| Araba | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Adm. Publ. langile | 26,76 | 25,26 | 22,72 | 21,56 | 20,11 | 21,60 |
| Bestelakoa | 13,27 | 15,34 | 16,28 | 18,14 | 17,88 | 17,54 |
| Etxeko lanak | 4,39 | 4,96 | 4,15 | 4,00 | 4,25 | 4,14 |
| Ikasle | 17,77 | 16,86 | 19,43 | 19,50 | 20,21 | 20,38 |
| Inoiz lanik ez | 0,41 | 0,37 | 0,51 | 0,40 | 0,62 | 0,51 |
| Irakasle | 8,66 | 8,15 | 7,11 | 5,87 | 6,65 | 5,35 |
| Lanbide liberala | 3,91 | 3,65 | 3,30 | 3,09 | 3,03 | 3,18 |
| Langile espezializatua | 13,05 | 13,60 | 13,87 | 14,58 | 14,53 | 14,79 |
| Langile ez espezializatua | 3,43 | 3,36 | 3,49 | 3,47 | 3,17 | 3,20 |
| Teknikaria | 8,36 | 8,45 | 9,14 | 9,39 | 9,56 | 9,32 |

| Bizkaia | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Adm. Publ. langile | 21,09 | 18,74 | 15,52 | 13,74 | 13,29 | 13,89 |
| Bestelakoa | 17,16 | 17,29 | 18,79 | 19,26 | 19,44 | 20,01 |
| Etxeko lanak | 3,51 | 3,03 | 2,89 | 2,53 | 2,68 | 2,78 |
| Ikasle | 18,62 | 21,30 | 23,03 | 25,36 | 25,31 | 24,03 |
| Inoiz lanik ez | 0,53 | 0,48 | 0,49 | 0,71 | 0,59 | 0,77 |
| Irakasle | 11,30 | 9,34 | 8,59 | 7,75 | 7,91 | 8,26 |
| Lanbide liberala | 4,14 | 4,30 | 4,25 | 4,36 | 4,20 | 3,99 |
| Langile espezializatua | 12,66 | 13,20 | 13,50 | 13,45 | 13,56 | 13,57 |
| Langile ez espezializatua | 2,94 | 3,29 | 3,30 | 3,25 | 3,42 | 2,99 |
| Teknikaria | 8,04 | 9,02 | 9,64 | 9,59 | 9,61 | 9,73 |

| Gipuzkoa | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Adm. Publ. langile | 19,10 | 17,28 | 15,54 | 15,26 | 13,84 | 14,45 |
| Bestelakoa | 18,29 | 20,29 | 20,31 | 20,10 | 21,11 | 21,79 |
| Etxeko lanak | 4,53 | 4,70 | 4,51 | 4,56 | 4,19 | 4,00 |
| Ikasle | 13,73 | 14,93 | 17,32 | 16,74 | 15,37 | 16,23 |
| Inoiz lanik ez | 0,19 | 0,47 | 0,39 | 0,51 | 0,47 | 0,53 |
| Irakasle | 9,90 | 7,36 | 6,80 | 7,86 | 8,99 | 7,88 |
| Lanbide liberala | 5,25 | 5,58 | 5,00 | 5,12 | 5,10 | 5,45 |
| Langile espezializatua | 16,06 | 15,26 | 15,59 | 14,78 | 15,76 | 15,09 |
| Langile ez espezializatua | 4,09 | 4,66 | 4,12 | 4,36 | 4,44 | 4,28 |
| Teknikaria | 8,88 | 9,46 | 10,43 | 10,69 | 10,73 | 10,30 |

Oinarrizko datu horietatik, bi interesgune aztertuko ditugu berariaz: Administrazio publikoan lan egiten duten langile eta ikasleena.




| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 26,76 | 21,09 | 19,1 |
| 2008-2009 | 25,26 | 18,74 | 17,28 |
| 2009-2010 | 22,72 | 15,52 | 15,54 |
| 2010-2011 | 21,56 | 13,74 | 15,26 |
| 2011-2012 | 20,11 | 13,29 | 13,84 |
| 2012-2013 | 21,6 | 13,89 | 14,45 |

Administrazioko langileei dagokienez, hiru lurraldeetan gutxitu da langile publiko diren ikasleen kopurua, baina neurri ezberdinean: Araban, 5,16 puntu gutxitu da; Bizkaian, -7,2; eta Gipuzkoan, azkenik, -4,45. Bistan da Bizkaian gutxitu dela gehien.




| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| 2007-2008 | 17,77 | 18,62 | 13,73 |
| 2008-2009 | 16,86 | 21,3 | 14,93 |
| 2009-2010 | 19,43 | 23,03 | 17,32 |
| 2010-2011 | 19,5 | 25,36 | 16,74 |
| 2011-2012 | 20,21 | 25,31 | 15,37 |
| 2012-2013 | 20,38 | 24,03 | 16,23 |

Ikasleei dagokienez, aitzitik, hiru lurraldeetan handitu da hezkuntza-sisteman ikasten ari diren ikasleen kopurua: Araban, 2,61 puntu; Bizkaian, 5,41; eta Gipuzkoan, azkenik, 2,5. Bizkaiko kopurua nabarmentzen da Araba eta Gipuzkoarenetik gora.

## 6.- Hizkuntza-eredua, lurraldeka

